



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
Ingurumen Sailburuordetza  
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA  
Viceconsejería de Medio Ambiente  
Dirección de Administración Ambiental

**EUSKADIKO INGURUMEN-ADMINISTRAZIOAREN LEGE-AURREPROIEKTUA  
EGITEKO PROZEDURAREN LABURPEN-MEMORIA. INSTRUKZIO-FASEA,  
ENTZUNALDIAREN, JENDAURREKO INFORMAZIOAREN ETA PARTE-  
HARTZEAREN, BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI KONTSULTATZEAREN ETA  
EUSKADIKO TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEAK ETA EUSKADIKO EKONOMIA  
ETA GIZARTE ARAZOETAKO BATZORDEAK EGINDAKO TXOSTENAREN  
ONDORENGOA.**

Memoria hau 2003ko abenduaren 30eko 254. EHAOean argitaratutako Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikulua 2. atalean xedatutakoa betez egiten da.

**1.- AURREKARIAK ETA XEDAPEN OROKORRAREN BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA.**

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra onestearekin batera, bere garaian, araudi-esparru bateratu bat ezarri egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-politika egikaritzeko. Lege hau aitzindaria izan zen bere garaian eta horrek gidatu egin du azkenengo urteotan politika hori dagozkion eremu desberdinetan, besteak beste, hauetan: ingurumen-ebaluazioa, hondakinen kudeaketa eta kutsaduraren kontrola.

Hala eta guztiz ere, ingurumena bezalako arlo bat etengabe egokitzen da gizarteak berak eskatzen dituen premia berrietara. Horrenbestez, azkenengo urteotan, zenbait araudi-testu onetsi egin dira, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak aratutako gaian eragin dutenak.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra onetsi zenetik 20 urte igaro dira eta Europar Batasunetik sustatutako eta Estatuko oinarritzko araudira helarazitako ingurumeneko lege-corpusa nabarmen garatu egin da ordutik hona. Horregatik, beharrezkoa da Euskadiko Ingurumen-administrazioaren araudi-esparrua eguneratzea.

Beraz, Autonomia Estatutuak bere 11. artikuluan Euskal Herriari aitortzen dizkion eskumenak gauzatuz eta Autonomia-elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-lurraldeetako Foruzko Ihardutze-erakundeen Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakoaren arabera, bidezkoa da ingurumenaren arloan beste arau bat egitea sustatzea. Horrek otsailaren 27ko 3/1998 Legea ordeztuko du eta, horrez gain, denbora horretan zehar lortutako eskarmentutik, ingurumen-politika berri baten oinarriak finkatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, ingurumenarekin lotutako erronka aldakorrei eta gizarte-eskariei erantzuteko.

Era berean, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legea onetsi eta 12 urte beranduago, hasiera batean, jo zen beharrezkoa zela hori aldatzea, hain zuzen ere, bere edukia egungo araudi-esparrura egokitze aldera.

**2.- LEGE-AURREPROIEKTUAREN IZAPIDETZEA**

**2.1.- Hasierako eta aurretiazko onespeneko aginduak**



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1JRT-9X54 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1JRT-9X54 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

Helburu horrekin, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren 2018ko otsailaren 13ko Agindua eman zen, Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea erabaki zuena.

Data berean eta araudi-testuaren zirriborroa idatzi aurretik, **herritarrei honen inguruko informazioa eman zitzaien**: a) ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak; b) onesteko beharra eta aukera; c) arauaren xedeak eta d) balizko beste arauketa-aukera batzuk eta arauzkoak ez diren bestelako aukerak. Horrela, herritarrak gonbidatu zituzten horren inguruko iritzia eman zezaten urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritako **aurretiazko kontsulta publikoaren** bidez. Kontsulta hori 2018ko otsailaren 13an hasi zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikokoaren Iragarki-oholean iragarki bat jarri eman zen jakitera.

2018ko maiatzaren 25erako, lege-aurreproiektuaren lehenengo testu bat zegoen eginda, egituratuta eta hori egiteko prozeduraren hasierarako aginduaren planteamenduei jarraiki. Orduan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren Agindua eman zen, zeinaren bidez Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Lege-aurreproiektua aurretiaz onestea erabaki zen.

## **2.2.- Entzunaldi, informazio publiko, parte-hartze eta beste administrazio batzuei kontsultatzeko izapideak eta kide anitzeko organoen txostena**

Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Lege-aurreproiektuak entzunaldiko, informazio publikoko eta parte-hartzeko eta beste administrazio batzuei kontsultatzeko nahitaezko izapideak bete ditu, hain zuzen ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen VI Tituluan eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Herritarrei oro har zuzendutako eta 2018ko ekainaren 4ko EHAOren bidez iragarritako **informazio publikoko** izapideaz gain, paraleloki eta ekimenak eragin diezaiekeen sektore ekonomiko eta sozial desberdinen iritzia izate aldera, banakako **entzunaldi-izapidea** ireki zitzaien arauak ukitutako interes kolektiboak ordeztzen dituzten berrogeita hamar bat antolakuntzei. Besteak beste, hauei: elkarte ekologistak, sindikatuak, ugazabak, elkargo profesionalak, merkataritza-ganbarak, klusterrak, udal-partzuergoak, etab.

Era berean, aurreikusitako arauketak zuzenean eragin liezaiekeen bestelako administrazioek parte hartu ahal izan dute. Beraz, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako **parte hartzeko eta beste administrazio batzuei kontsultatzeko** izapidea egin zaien administrazio publikoak hauek izan dira: Estatuko Administrazioa, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren eta Konfederazio Hidrografikoen bidez; hiru foru aldundiak eta Euskadiko Udalak, EUDEL-en bitartez.

Kontuan hartuta arauketak dagozkien eskumen-eremuetan duen eragina, arauketa-ekimena **EAEko administrazio orokorreko sail batzuen esku jarri zen** xedapen orokorren izapidetze elektronikorako tresnaren (Tramitagune) bidez, zegokien azterketa egin zezaten eta, hala balegokio, ekarpenak egiteko.

Nabarmenezkoa da aurreko izapide guztiak elektronikoki egin direla eta alegazioak egiteko aukera izan duten antolakuntzek eta administrazioek, hau da, berrogeita hamar

inguruk Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa, zehazki, Nire Karpeta atalean, kanal elektronikoa bat izan dutela ekarpenak egiteko.

Ingurumen Sailburuordetzak ingurumenaren arloan parte-hartze publikoko eskubideak benetan gauzatzen direla bermatzeko duen konpromisoa betetz, Ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justiziarako sarbideko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen informazio-printzipioak betetz, jarduketa eta izapide horien guztien berri eman da, bai gobernuaren egoitza elektronikoa eta Irekian, bai sailaren webgunean: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ingurumena/>.

Era berean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, herritarrek uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 16. artikuluan ezarritako ingurumenarekin lotutako arauak egiteko prozesuan parte hartzeko duten eskubidea betetzen dela sustatzeko eta errazteko, **zuzeneko prozesu parte-hartzaile bat** burutu du, hain zuzen ere, neurri handiagoan ezagutzera emateko araudi-proiektua, zuzenago ukitutako eragileak dinamizatzeko eta zuzenago eskuratzeko horien iritzia eta hobekuntza-proposamenak. Prozesu honetan zehar, bost saio parte-hartzaile burutu egin dira hiru lurralde historikoetan, zehazki, hauei zuzenduta: enpresak, klusterrak, enpresa-elkarteak eta nekazaritza-sindikatuak; elkargo profesionalak, zentro teknologikoak eta unibertsitateak (enpresen foroa); Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuk, erakunde publikoak eta foru aldundiak (foru aldundien foroa) eta, azkenik, udalekin (udalen foroa). Hala, horren guztiaren berri eman zen dokumentu honetan: "Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Lege-aurreproiektuaren parte-hartze prozesua. Laburpeneko azken txostena. 2018ko uztaila". Bertan, parte-hartze prozesuaren inguruabarrak dokumentatu egiten dira modu sistematizatu eta labur batean.

Herritarrei, eragile desberdinei eta ukitutako erakundeei irekitako parte-hartze izapide horien ondorioz, honako interesdun hauek bidalitako hobekuntza-proposamen, ohar eta alegazioetako idazkiak jaso dira:

- ACLIMA/Basque Environment Cluster.
- Astigarragako Udala.
- Bermeoko Udala.
- Bilboko Udala.
- Donostiako Udala.
- Hernaniko Udala.
- Pasaiaiko Udala.
- BASQUEGUR.
- Bizkaiko Abokatutzaren Elkargoa/ICAB.
- Jabetzako eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoa.
- Geologoen Elkargo Ofiziala.
- Euskal Herriko Ingeniari Industrialen Elkargo Ofiziala.
- CONFEBASK.
- J.A.A.S. jauna.
- M.S. jauna.
- J.M.T.C. jauna.
- Trantsizio Ekologikorako Ministerioa.
- Arabako Foru Aldundia-Nekazaritza Saila.
- Arabako Foru Aldundia-Ingurumen eta Hirigintza Saila

- Bizkaiko Foru Aldundia-Azpiegituren Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundia-Ingurumen Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ENBA/Euskal Nekazarien Batasuna.
- EHNE-Euskal Herriko Nekazarien Elkartea.
- EUSKAL ARIDO.
- MERCADONA, S.A.
- MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL, S.A.
- IBERDROLA DISTRIB. ELEC, S.A.U.
- IHOBE.
- JAIZKIBEL GEONATURE.
- HAZI.
- AZTI.
- HP PRINTING AND COMPUTING SOLUTIONS, S.L.U.
- Enpresen Foroko parte-hartzaileak.
- Udalen Foroko parte-hartzaileak.
- Foru Aldundien Foroko parte-hartzaileak.

Halaber, EAEko administrazio orokorreko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura, Ogasun eta Ekonomia eta Osasun Sailek ekarpenak egin dituzte.

Alegazioak aurkezteko epea ireki zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ostean, 2018ko abenduaren 28an, Arabako Foru Aldundiak alegazioen agiri bat egin du, paperean, 2018ko uztailaren 4an eta 12an dagoeneko egindako alegazioen osagarri modura. Erabat garaiz kanpo aurkeztu zirenez, ez ziren aztertu, ez eta alegazioei erantzuteko dagoeneko amaituta zegoen txostenean gehitu ere.

Garaiz egindako alegazio eta ekarpenak aztertu ziren, eta espedientean agertzen den 2019ko urtarrilaren 7ko Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Lege-aurreproiektuaren instrukzio-fasean zehar jasotako alegazioei eta hobekuntza-proposamenei erantzuteko txostena idatzi zen. Txosten horretan, behar bezala motibatuta adierazi zen, horiek aztertu ostean, alegazioak eta proposamenak onetsi egin ziren edo ez; hala izanez gero, lege-aurreproiektuaren hasierako testua aldatuko zen.

Alegazioei erantzuteko igorritako txosten horren berri eman zitzaizen interesdunei, alegazioak eta oharrak aurkeztu zituztenak entzunaldiko eta parte-hartzeko eta kontsultetarako izapideetan. Gainera, eskuragarri dago Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzerako arloaren euskal araudiaren atarian (Legegunea), aldatutako lege-aurreproiektuaren testuarekin batera.

### **2.3.- Nahitaezko txostenak**

2018ko azaroaren 6an, Euskal Herriko Ingurumen Batzordeak aurreproiektuaren aldeko txostena, kontrako botorik gabe, egin zuen, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Aholku Batzordeak ere.

2019ko urtarrilaren 28an, Naturzaintza - Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordea bildu zen, eta, bertan, Lege Aurreproiektuaren berri eman zen. Ez zen kontrako botorik egon.

Euskal Herriko Uraren Kontseiluak ez du igorri memoria hau sinatu zenean eskatu zitzaion txostena.

Instrukzio-fase honetan, nahitaezko txostenak eskatu zaizkie hauei: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzuen Zuzendaritza; EMAKUNDE; Kontratazio Publikoko Aholku Batzordea; Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerga-administrazioko Zuzendaritza; Lehiaren Euskal Agintaritza; Kultura eta Hizkuntza-politikako Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Saileko Funtzio Publikoko Zuzendaritza.

Horiek guztiek bideratu dute txostena eta bere oharra, iradokizunak eta hobekuntza-proposamenak behar bezala aztertu egin dira. Onetsi egin diren kasuetan, dagozkien aldaketak egin dira lege-aurreproiektuaren testuan. Analisi eta aldaketa horien xehetasuna memoria honen eranskinean dago jasota.

Interesgarriatzat jotzen dugu memoria honetan seinalatzea (2018ko abenduaren 6ko 294 zenbakiko EBO) abenduaren 5eko, 9/2018, Legea argitaratu dela. Lege horrek, aldatzen ditu hainbat arau: abenduaren 9ko 21/2013 ingurumen-ebaluazioari buruzko Legea; uztailaren 20ko 21/2015 Legea, azaroaren 21eko 43/2003 Mendietako Legea aldatzen duena; eta martxoaren 9ko 1/2005 berotegi-efektuko gas isurtzeko eskubide merkataritzaren erregimena arautzen duena.

Aipaturiko arauak, 2014ko apirilaren 16ko 2014/52/EBa Europako Parlamentuko eta Batzordeko Zuzentaraua, 2011/92/EB Zuzentaraua aldatzen duena, proiektu publiko eta pribatu batzuen ingurumenarekiko inaktu ebaluazioari buruzkoa eta, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko, 21/2013 Legean hainbat alderdi sakonean aldatzen ditu.

Zentzu honetan, eta nahiz eta oso denbora gutxi izan den, Legearen Aurreproiektuko testu berrian hainbat aldaketa txertatu dira berriki aldatu den abenduaren 9ko, 21/2013 estatuko Lege oinarritzora egokitzeko.

Alegazioak eta oharra aztertuta eta legegintza-teknikako arrazoiengatik, proposamena egin duen organoak erabaki du Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen aldaketari buruzko bigarren azken xedapena ezabatzea.

Azken datu nabarmen bezala, honako hau aipatu behar da: prozesu parte-hartzailearen eta jasotako alegazioen eta oharren azterketaren ondorioz eta ukitutako sektoreen adostasun-maila handiagoa lortze aldera, aldatu egin da, irismen handiagorekin edo txikiagorekin, artikuluen eta xedapenen % 60 inguru, baita hasiera batean idatzitako eranskin guztiak ere.

#### **2.4. Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.**

2019ko otsailaren 1ean, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak, Tramitaguneren bidez, izapidetzen ari den espedientearen sartu zuen Euskadiko Tokiko gobernuen Batzordearen aurretiazko derrigorrezko txostena, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen (2/2016 Legea) 91. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hasteko, adierazi behar da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 88. artikuluen arabera, toki-autonomia defendatzeko, eta, horren barruan, udalerriek autoantolaketaarako daukaten gaitasuna aitortzeko, Euskadiko Tokiko Gobernuen

Batzordeak alerta goiztiarreko organo gisa jardungo duela (90. artikulua), edo xedapen orokorren aurreproiektuak prestatzen parte hartuko duela (91. artikulua).

91. artikulua horrek ezartzen du Tokiko Gobernuen Batzordearen aurretiazko txostena beharko dutela udalerrien eskumen propioei berariaz eragiten dieten xedapen orokorreko proiektuek. Era berean, berariaz adieraziko da txostenaren xedea izango dela proiektuan jasotako araua udalerriaren interesentzat egokia den aztertzea. Proiektatutako arauak euskal erakundeen autonomian izan dezakeen inpaktua ebaluatzeko, toki-autonomiaren kalteari udalerrien eskumen propioek jasandako zuzeneko inpaktu esango diogu.

Zentzu horretan, memoria honetan xehetasunez aztertuko dira, *ex lege*, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak bere txostenean azertu behar dituela uste dugun alderdiak; horrela, bada, organo hori kokatzen den albo-alderdien azaleko tratamendua egin da.

Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak zenbait apartatutan egituratu du txostena, askotariko gaiak lantzeko. Egitura horri jarraikiz, horiei erantzungo zaie.

**2. ondorioa:** *Honako hau Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak lege-aurreproiektu bati buruz legegintzaldi honetan egindako lehenengo txostena da. Txosten honen gorputzean adierazi den moduan, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak agerian jarri nahi du alerta goiztiarreko eta tokiko autonomiaren defentsako helburuak eta udalerrien eskumen propioak oztopatu daitezkeela legegintzako ekimenak lege-proposamenen bidez egiten direnean. Eta, horregatik, Eusko Legebiltzarrari iradokitzen dio bere Araudian izapide bat ezartzeko, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak aukera izan dezan lege-proposamen moduan bideratutako legegintzako ekimen guztien txostena egiteko, baldin eta proposamen horrek eragina badu organo horrek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen aginduz dituen funtzioetan.*

Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak lege-aurreproiektu bati buruzko lehenengo txostena egiten duen guztietan, organo horrek zenbait oharpide orokor egin ditu horrelako izapidetan duen rolari eta funtzioari buruz; horrelako lege-aurreproiektuak oso interesgarriak diren arren, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren eta izapidetze-memoria honen esparru material hertsia gainditzen dute (ingurumeneko araudi sektoriala). Ildo horretan, dokumentu honek azaleko erantzuna soilik emango du gai jakin batzuei buruz, eta adieraziko du beste goi-mailako organo edo instantzia batzuek erabaki behar dutela gai horiei buruz, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua sustatu duen zuzendaritzak beharrean.

Memoria honetan intereseko ekarpenik ezin da egin Eusko Legebiltzarrari egindako proposamenari buruz, zeinak iradokitzen dion bere barne-araudian izapide bat ezar dezala, zertarako eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak aukera izan dezan lege-proposamen moduan bideratutako legegintzako ekimen guztien txostena egiteko, baldin eta proposamen horrek eragina badu organo horrek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen aginduz dituen funtzioetan.

Edozein kasutan, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak adierazitakoak botere legegilea eta geroagoko prozedura fase bat aipatzen ditu, baina haren txostenaren edukia funtzio betearazleak eta administratiboak dituen botere-organismoan izapidetutako aurreproiektuaren edukia buruzkoa soilik izan beharko litzateke, Euskal Autonomia Estatuaren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera. Esandakoagatik, ez dugu egokitzen jotzen organo honek horri buruzko erabakirik hartzea, ordenamendu juridikoak beste

bide batzuk aurreikusten baititu Eusko Legebiltzarrari txostenean eskatutakoa gauzatzeko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua ez den araudi bat aldatzeari buruz.

**3. ondorioa.** *Txostena lege-aurreproiektuei buruzkoa denean, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen eskutako alerta goiztiarreko sistemak berezitasun hau du: proposamena egin duen organoak ez badu onartzen txosten honetan jasotako eta ondorio hauetan bildutako proposamenen bat edo guztiak, desadostasunak leuntzeko Bitariko Batzordea sortu beharko da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 91. artikuluan ezarritako epeetan eta baldintzetan. Horregatik du halako garrantzi formala eta materiala txosten honek kasu horretan.*

Gure ikuspegitik, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena oker dago adierazten duenean lege-aurreproiektu honi dagokionez batzordeak egin beharreko jardura Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 88.1 a) artikuluan alerta goiztiarreko organo gisa esleitutako funtzioen barruan sartzen dela, eta jatorriko akats horrek txostenaren ondorengo edukien eta alegazioen gehiengoa baldintzatzen du. Gogora dezagun aipatutako artikulua ezartzen duela Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak alerta goiztiarreko organo gisa jardungo duela kasu hauetan (letra lodia geurea da): «**udalerrien eskumen propioei eragiten dieten** araugintza-prozesuetan (...)». Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak ez die inola ere udalerrien eskumen horiei soilik eragiten. Aldiz, aurreproiektu horrek erabat arautzen ditu ingurumenaren arloko zenbait alderdi, materialak eta eskumenen ingurukoak, EAEko administrazioen hiru maileri dagozkienak (Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta tokiko erakundeak), bai eta udalerrien berezkitzat hartu ezin diren eskumen batzuk ere.

Egiaz, jarduketak eta EAEko Tokiko Gobernuen Batzordeari eskatutako txostena Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 88.1 b) artikuluan EAEko Tokiko Gobernuen Batzordeari agindutako funtzioekin datoz bat, 91. artikuluan ezarritako baldintzetan xedapen orokorrak prestatzen parte hartzen duen organoa den heinean, eta parametro horietan soilik ulertu behar dira egindako alegazioak.

Aurrekoa esanda, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 90. artikuluan araututako funtzio eta prerrogatibei buruz Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari dagokionez txostenean esandako guztia eta bitariko batzordearen aipamenak ez dira aplikatuko Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan eta, ondorioz, ez dira kontuan hartuko txosten honetan.

**4. ondorioa.** *Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak Lurralde Historikoen Legea berritzea proposatzen du, baina ez du ezer ezartzen udalen eskumenetan duen eraginari buruz. Hain zuzen ere, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak Lurralde Historikoen Legean egin nahi duen berrikuntzak (azken xedapenetatik lehena) ezin ditu ahatzarazi edo alde batera utzi ingurumenaren arloan euskal udalerrri guztiek dituzten berezko eskumenak (eta horiekin batera doazen ahalmenak), Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.8) artikulua berariaz adierazten duenaren arabera; horien artean, kasu honetan garrantzia duelako, nabarmentzekoa da hiriguneetan ingurumenaren arloan (inongo mugarik gabe) kudeatzeko duten ahalmena. Beraz, bidezkoa da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak Lurralde Historikoen Legea berritzea, zuzenean, berariaz eta arrazoi sendoz, baina ezin du gauza bera egin Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearekin (10.000 biztanletik beherako udalerriei dagokienez), guztiz alde batera utzita arau horrek 17.2 artikuluan «in fine» ezartzen duena.*

Hasteko, azpimarratu behar da gure ustez aztertutako arauak ez dituela ahazten gaiari buruz udalerriei esleitutako berezko eskumenak, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak ez diela ematen «*hiriguneetan ingurumenari buruz (mugarik gabe) kudeatzeko eskumena*» euskal udalerri guztiei, apartatu horretan adierazten den moduan.

Horri buruz, gogoratu behar da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1 artikuluan adierazten dela udalerriek arlo materialetako berezko eskumenak izango dituztela, hauek, adibidez (8. apartatua): «Ingurumenaren babesaren eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, **kudeatzea** eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argi-kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesaren barne hartuta», baina **lege honetan ezarritakoarekin eta aplikatzekoa den legeriarekin bat etorritik**, betiere.

Lege-aurreproiektu informatuak –EAEko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenak betez izapidetu dena– arau-esparru hori ematen du ingurumenaren esparruan legearen EAEko udalei esleitzen zaizkien eskumenak ahalik eta modurik egokienean gauzatu ahal izateko. Udalek, hiriko ingurumenaren babesari loturiko kudeaketa-eskumenez baliatzeko, sektorekako erreferentziako arau-esparrua izan behar dute, zeinak zehaztuko duen zein eskumen dituzten ingurumenaren babesaren eta garapen jasagarriaren eremuan, oso eremu zabala baita.

Inola ere ez da egin, txostenean adierazi moduan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen aldaketarik, eta ez dira udalen ahalmenak mugatu, halako moldean non legearen erreforma bidez artikulatuak berriz idatzi beharko diren. Gure ustez, neurri zuzentzaileak ezartzeari buruz egindako aldaketak ez die inola ere eragiten euskal udalerrien eskumen propioei, ez dizkie betebeharrak berriak inposatzen, eta ez ditu haien funtzioak mugatzen. Gogora dezagun zer dioen literalki aurreproiektuaren 51. artikulua, Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordearen txostenaren alegazioen jatorri denak:

**«51. artikulua. Neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzeari buruzko txostena.**

1. 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek babes- eta zuzenketa-neurriak ezartzeko **txostena eskatu beharko diote** dagokion foru-aldundiko ingurumen-eskumenak dituen organoari. (...)
2. 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek **txostena eskatu ahaliko dute**, aurreko apartatuan dagokion foru-aldundiko ingurumen-eskumenak dituen organoa adierazita. Txosten hori eskatzen ez bada, udalek berek finkatuko dituzte ingurumenaren arloko neurri babesleak eta zuzentzaileak, sailkatutako jarduerarako baimenaren mendeko jardueran edo instalazioan».

Ikus daitekeenez, agerikoa da neurri zuzentzaileak ezartzeari buruzko txostena egiteko funtzioa foru-aldundiei esleitzen zaiela orokorrean; orain arte, funtzio hori Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean banatzen zen, jarduera kokatuko zen lurzorua nolakotasunaren arabera. Halaber, 10.000 biztanletik gorako udalek hala nahi izanez gero (funtzio hori egin dezaketela uste dutelako, karga handiegia izan gabe), bere gain har dezakete funtzio hori. Artikulua oso argia da ildo horretan, *dezakete* hitza barne hartzen baitu.

Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordearen txostena bat dator tesi horrekin, 18. orrialdean honako hau adierazten baitu (letra lodia geurea da):

**«Kasu honetan, ez dira zabaltzen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.8) artikuluan jasotako ahalmenak edo funtzioak; aitzitik, jarduerak eta zerbitzuak (kasu batzuetan) ugaritzen dira, aurreko araudiaren aldean, zeinak udalerriak ez ziren beste erakunde batzuen eskumenen barruan kokatzen baitzuen jarduera edo zerbitzu horiek gauzatzea. Hemen, arazoa ez da soilik eskumenei buruzkoa; aldiz, ondorio handiak ditu finantza-nahikotasunaren arloan, ikusiko dugun moduan. Eta hori, suma daitekeen moduan, funtsezko alderdia da».**

Azaldutako guztiagatik, esan daiteke ez dagoela jarduerak edo zerbitzuak ugaritzeko legezko inposizioirik; aldiz, legeak ahalmena ematen die udalei, jarduera horiek onartu nahi dituzten erabakitzeko.

Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenean finantza-nahikotasunari buruz azaldutako alderdiak memoria honen ondorengo apartatuetan aztertuko dira.

**5. ondorioa.** *Era berean, aurreko txostenetan ohartarazi den moduan, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak agerian jarri nahi du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea oso gutxi barneratu dela (edo batere ez) Eusko Jaurlaritzako sailek xedapen orokorrak prestatzeko prozeduretan. Kasu honetan (lege-aurreproiektu bat prestatzeko prozedura), argi ikusten da gabezia hori, ez baita ia kontuan hartu Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea administrazio-espeditente orritsuan jasotako txosten, memoria eta agirietan; halaber, ez dira hauteman Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak euskal erakundeen sarean izan dituen ondorio garrantzitsuak, eta alde batera utzi dira ingurumenari bereziki eragiten dieten arau eta printzipio asko, nahiz eta udalen eskumen propioetan oso gai sentikorra izan.*

Horri buruz, adierazi behar da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak une oro hartu duela kontuan toki-autonomia, tokiko erakundeei benetan eragiten dieten alderdi horiek arautzean; adibidez, ikus 7. artikulua, eskumenen banaketari buruzkoa, zeinetan apirilaren 7ko 2/2016 Legea aipatzen den, berariaz. Beraz, ez badira behar beste aipatu Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea espeditente barruko memoria, txosten eta agirietan, ez da izan gai horretan arretarik jarri ez delako; aitzitik, kontua da ez dela garrantzitsutzat jo proposatutako araudi berriak tokiko erakundeetan duen eragina.

Edonola ere, aipatu behar da txostena Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren xedera mugatu behar dela; horregatik, kasu honetan, zeinetan Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak EAEko Administrazio Orokorraren sailek prestatutako xedapenei buruz arreta deitzen duen, txostenaren eduki jakin bat aipatu gabe, azalpenezko alegazio soil moduan hartu behar da.

**6. ondorioa.** *Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak uste du, aurretik azaldutako arrazoietan adierazi den moduan, ezertan eragotzi gabe 2017ko abenduaren 12ko erabaki bidez Eusko Jaurlaritzak onartutako Instrukzioak ezartzen duena, lege-aurreproiektuen prozeduren txostena Aholku Batzorde Juridikoaren txostena egin eta Gobernu Kontseiluak aurreproiektua lege-proiektu moduan onartu aurretiko fasean sartu behar dela; izan ere, Aholku Batzorde Juridiko honen xedea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak ezarritakoari jarraikiz, alerta goiztiarreko sistema bat ezartzea da; horren arabera, ezin bada aktibatu, bitariko batzordean adostasun bat lortu ez delako, desadostasun horiek Eusko Jaurlaritzara bidali beharko dira, lege-proiektuarekin batera (Batzordearen erabaki-akten eta txosten honen bitartez). (...). Ondorioz, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak gai hori nabarmendu nahi du (duen garrantziagatik), eta Eusko Jaurlaritzaren erabaki hori aipatutako baldintzetan*

*aldatzea iradokitzen du, eta, hala badagokio, kontuan har dadila irizpide hori, Eusko Legebiltzarrak 8/2003 Legea aldatzeko etorkizunean.*

Alegazio hori Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskumenetik kanpo geratzen da; izan ere, Gobernu Kontseiluak emandako agindu bat aldatzea proposatzen da; agindu hori abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotako Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren aplikazio praktikoari buruzkoa da. Gure ustez, egindako eskaeraren izaeragatik, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren bidez bideratu beharko luke eskabidea, idazki autonomo baten bidez, Xedapen Orokorrak egiteko espediente jakin baten izapideari lotu gabe, halakoa baita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua.

Azaldutakoagatik, ez dugu egokitzen jotzen administrazio-organo honek horri buruzko iritzia ematea, xedapen orokorrak egiteko agindu bat berrikusteko eskabideari dagokionez, ez baitu zerikusirik txostenaren xede den aurreproiektuarekin.

**7. ondorioa.** *Agerikoa da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak ingurumeneko eskumen propioak (bai eta horiekin lotutako beste asko ere, baina ez dagokio horiek aztertzea, orain) esleitzen dizkiela euskal udalerriei, indarrean sartu zenetik. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1 8) artikuluan esleitzen zaizkie eskumen horiek euskal udalerriei, eta arlo materiala aitortzeaz gain, funtzio batzuk aitortzen zaizkie (edo arauzko aipamen horretan jasotzen diren ahalmenak gordetzen). Jakina, euskal udalerrien aldeko esleipen material eta funtzional horrek, betiere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea indarrean jarri ondoren jardungo du eta, bereziki, zenbait legegintzako prozesutan, zeinak udalen eskumen propioen eta ahalmenen inguruan eta ordura arte gauzatutako jarduera, prestazio eta zerbitzuetan aurrez zegoen statu quo aldatu nahi duten. Horrekin esan nahi da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 149.1 8) artikulua parametro edo neurria dela, proposatuko den lege-erregulazio sektorial berriak araudiaren perimetroak berak adierazitako nukleo material eta funtzionala errespetatzea. Perimetro materiala edo funtzionala ukituko balitz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.2 artikuluan jasotako aurreikuspena aktibatuko litzateke, perimetroa mugatuz gero. Zabalduko balitz, gero esango diren baldintzetan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.3 artikulua aktibatuko litzateke, 18.3 eta 112. artikuluekin lotuta.*

Hasteko, aipatu behar da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak 121. artikulua dituela; horregatik, ezin izan da aztertu zertaz ari den Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea esaten duenean Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 149.1 8) (sic.) artikuluan dagoela jasota *parametro edo neurria (...), proposatuko den lege-erregulazio sektorial berriak araudiaren perimetroak berak adierazitako nukleo material eta funtzionala errespetatzea*.

Alegazioan, ahotara ekartzen da 17.3 artikulua, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren lege bidez edo foru-arau bidez zehazteari buruzkoa, 18.3 artikuluekin lotzeko, zeinak, nagusiki, hau esaten duen: udalei eskumen propioak esleitu eta propiotzat izendatu zaizkien eskumenetatik eratorritako zerbitzu, jarduera edo prestazioak zehaztu ondoren, behar den baliabide-zuzkidura egin behar da, udalen finantza-nahikotasuna bermatzeko.

Esan dugun moduan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan ez zaizkie eskumen propio berriak esleitzen EAEko udalerriei; nolana ere, adierazi behar da tokiko erakunde horiek ez dituztela nahitaez beren gain

hartu behar zerbitzu, jarduera edo prestazio berriak, halakotzat hartu badaiteke neurri zuzentzaileak ezartzeari buruzko txostena egitea, sailkatutako jarduerarako baimenaren mendeko jardueretan, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.

EAEko 251 udalen % 16,7k soilik (42) ditu 10.000 biztanletik gora (Iturria: Eustat).

Are gehiago, adierazi behar da indarrean dagoen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, 62. artikuluan, dagoeneko jasotzen duela Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak aurreikusitakoaren antzeko mekanismo bat, zeinetan aukera ematen zaien aipatutako txostena egiteko hala erabakitzen duten udalei, eskumenak eskuordetuta; hau dio, hitzez hitz: *Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak eta lurralde historikoetako foru-organismoek, beren eskumenen esparruan, zerbitzu egokiak dituzten udaletan delegatu ahal izango dute, udalok aurrez espresuki eskatuta, finkatzen diren jardueretarako **neurri zuzentzaileak ezartzeko txostenak egitea**. Nolanahi ere, onartu egingo da eskumen horiek erkidetutako, partzuergoz elkartutako edo beste era bateko udal-elkarteetan bildutako organoen bidez benetan erabiltzea.*

Legezko gaikuntza horren ondorioetarako, EAEko udal handienek, zeinak ingurumen teknikariak dituzten eta, beraz, horretarako zerbitzu egokia ere bai, dagoeneko eskatu dute eskumenak eskuordetzea, eta neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena egiteko zeregina betetzen dute, baina ez dute eskatu finantzaketa handiagorik, beren borondatez eskumen horiek hartzeagatik, gure aldetiko akatsik egon ez bada.

**8. ondorioa.** *Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea ez dago ados (ez baitator bat Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen interpretazio orokor batekin) 17.1 artikulua interpretazioarekin, zeinaren arabera artikulua horretako gaien zerrendak udal-finantzaketaren sistema «petrifikatzea» dakarren; izan ere, interpretazio horren oinarrian premisa faltsu bat dago, hots, indarreko finantzaketa-ereduak dagoeneko finantzatzen zituela euskal udalek ez zituzten eskumen batzuk. Beraz, baldin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak, 3/2018 Legea aplikatuz, lehen euskal udalek ematen zituzten jarduerak edo zerbitzuak ugaritzen baditu, kudeaketa handiagoa eta finantza-baliabide gehiago behar dituzten jarduerak eta zerbitzuak Legearen eranskin ekonomiko batean jaso beharko dira, dagokion moduan zenbatu ondoren, euskal udalerrien finantza-nahikotasuna babesteko.*

Puntu honetan, lehenago aipatutakoa errepikatu behar dugu: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak ez du agintzen ugaritu egin behar direnik lehen euskal udalek ematen zituzten jarduerak eta zerbitzuak, eta ez dituzte kudeaketa eta finantza-baliabide handiagoak beharko. Era berean, adierazi behar da legearen aurreproiektuaren justifikazioko memoria ekonomikoak araudi berriak EAEko hiru maila administratiboetan dituen eragin ekonomikoak aztertu dituela, eta azterketa horretara jotzen dugu, esandakoa ez errepikatzeko.

**9. ondorioa.** *Nabarmendu behar da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak euskal udaletan duen eraginari buruz Memoria Ekonomikoak emandako amaierako ondorioa erabat autokonplazentziazkoa dela ekimen hori abiarazi duen Administrazio Publikoarentzat; era berean, agerian jarri behar da ez duela hautematen finantza-egokitze osoa egin behar denik (hots, gobernu-maila guztietan), hiru gobernu-mailetan (autonomia-erkidegoa, lurralde historikoak eta udalerriak) eskumenak antolatzearen ondorioz, edo, hala badagokio, onartu behar denik Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak benetako eraginak dituela administrazio publikoen gastu publiko osoan.*

Legezko betekizunekin bat etorritik eta EAEko Administrazio Orokorrean dauden ereduen arabera, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua proposatu duen zuzendaritzak ahalegin handia egin du, arauaren proiektuarekin batera doan memoria ekonomikoaren bidez, neurtzeko, besteak beste, zer kostu izan dezakeen hori aplikatzeak beste administrazio publiko batzuetan: aldundietan, tokikoetan, estatukoetan eta beste batzuetan. Konplexutasun tekniko handiko jarduera izan da.

Nolanahi ere, errepikatu nahi dugu arauaren proiektuak Euskadiko toki-administrazioan izango duela eragin ekonomikorik txikiena, beste administrazio publikoekin alderatuta. Behar baino gehiago ez errepikatzeke, aipatutako memorian azaldutakora joko dugu (46. orrialdea eta hurrengoak), proposatutako lege-aldaketak EAEko udaletan eta aztertutako gainerako administrazio publikoetan izan dezakeen eragin ekonomikoari buruz han zenbatetsitakoa defendatzeko.

**10. ondorioa.** *Txosten horren argumentu-ibilbidearen ideia nagusiak aztertu ondoren, orrialde horietan egindako proposamen zehatzei helduko diegu. Batzorde honen ustez, hauek dira garrantzitsuenak:*

- **Zioen azalpena.** *Azkenean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.8) artikuluan ezarritakoaren arabera euskal udalerriek dituzten funtzioak edo ahalmenak murriztu edo mugatu nahi badira, mugatze hori justifikatu egin beharko da, lege-aurreproiektuaren zioen azalpeneko subsidiarioritasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.2 «in fine» artikulua ezarritakoari jarraikiz.*

Aurreko apartatuetan adierazi dugun moduan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan EAEko udalei esleitzen zaizkien funtzioei buruz jasotzen diren xedapenek ez dituzte mugatzen edo murrizten *funtzio edo ahalmenak*. Aldiz, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren xede da horiek modu orekatuagoan banatzea, zioen azalpenean adierazi den moduan, administrazio publiko guztien jarduera administratiboa eraginkorragoa izatea bermatzeko.

Nolanahi ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.2 *in fine* artikuluan «...behar bezala azaldu beharko da...» esateak ez du esan nahi arrazoiketa hori, nahitaez, arauaren zioen azalpenean joan behar denik. Hala badagokio, lege-aurreproiektuarekin batera doazen memoria eta txostenetan arrazoitu beharko dira gai horiek. Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren kasuan, gai horiek eta beste batzuk egokiro eta behar beste aztertu eta arrazoitu dira, gure ustez.

Are gehiago, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak emandako iritzia guztiz azalpenezkoa dela, ez baitu arrazoirik ematen eskumenei ustez egiten zaien murrizketari edo mugaketari buruz; areago, kontraesanetan erortzen dira, txostenean eskumenak handitzen direla esan baitute lehenago, esaterako: «*baldin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak, 3/2018 Legea aplikatuz, lehen euskal udalek ematen zituzten jarduerak edo zerbitzuak ugaritzen baditu*»; hala, ez du argi zehaztu zer jarrera duen horri buruz, eta argudio kontraesankorrak eman ditu, bere alegazioko apartatuen arabera.

- **7.2 d) artikulua.** *Agindu horretan jasotako eskumena, txostenaren gorputzean zehazten den moduan, ez dator bat ez tokiko autonomiaren printzipioarekin, ez eta orain indarrean dagoen araudiarekin ere, hala Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeari nola Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeari dagokienez,*

*Konstituzio Auzitegiaren 1/2016 Epaiak interpretatu duenaren arabera. Beraz, kentzea edo, osagarri moduan, esaldian hau jasotzea proposatzen da: «...dagozkion udal interesdunek aurretiaz hala eskatuta eta batzarrean osoko bilkuran onartuta».*

Hasteko, esan behar da alegazioa 7.2 b) artikuluari buruzkoa izango dela, eta ez 7.2 d) artikuluari buruzkoa; izan ere, d) apartatuan ez dira aipatzen tokiko eskumenak.

Hala, b) apartatuan, aurreikusten da Lurralde Historikoetako foru-organismoek laguntza emango dietela hala eskatzen duten udalei, lege-aurreproiektuan araututako sailkatutako jarduerarako baimenaren eta aurretiko komunikazioaren prozedurei buruz. Alegazioa apartatu horri buruz ari bada, aipatutako Konstituzio Auzitegiaren 111/2016 Epaiak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea irakurrita, ez da ondorioztatzen xedapena ez datorrenik bat toki-autonomiaren printzipioarekin, ez eta udalek aurretiaz eskabidea egitea nahitaezkoa denik ere.

Ildo horretan, gogoratu behar da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 19.4 artikuluan hau soilik aipatzen dela: «*Dena dela, toki-araubidearen oinarritzko legeriak eta foru-arauek ezarritakoarekin bat etorrira, foru-organo eskudunek laguntza teknikoa emango diete bakoitzak bere lurralde historikoko udalerriei, legeek edo, kasuan kasu, foru-arauek udalerriei esleitutako eskumenak benetan gauzatzen direla bermatzeko*».

Edonola ere, azken xedapenetatik lehenengoak, azaroaren 25eko 27/1983 Legeari buruz, hau jasotzen du, hitzez hitz: «*neurri zuzentzaileak ezartzea jarduera-baimena behar duten jarduera sailkatuaren araubidearen mendeko jardueretan, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, eta 10.000 biztanletik gorakoetan, dagozkion udalak **hala eskatzen badu** (...)*»; beraz, dagoeneko nahiko argi jasotzen du tokiko erakundeek egin beharreko eskabidea, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen alegazioak sartzeko eskatzen duena, hain zuzen.

- **22. artikulua.** *Agerian jarri nahi da udalerriek arlo horretan zituzten eskumenak kualitatiboki aldatu direla; izan ere, kudeaketako edo betearazteko (baimenak) eta antolamenduko (ordenantzak) funtzioak izatetik, EAEko ingurumen-organismoak erregulatzen, kudeatzen eta ebazten duen baimentze-prozedura batean «parte hartzeko» ahalmenetara igarotzen da. Hala bada, zalantzarik gabe, lehen adierazi denagatik, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak legearen aldaketa hori (kudeaketako eskumenak murriztea, kasu honetan, subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioen izenean) arrazoitu beharko luke zioen azalpenean, eta amaierako xedapen batean jaso beharko lituzke jarduera sailkatu horiei dagokienez aurreikusten diren funtzio- edo ahalmen-mugaketa horiek, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.2 «in fine» artikulua ezarritakoari jarraikiz.*

Lege-aurreproiektuaren 22. artikulua ingurumeneko esku hartzeen gaineko erregimenen aldiberekotasun-egoerak arautzen ditu, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren bidez. Xedapen horretan ez da ikusten Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenean aipatzen den udalen funtzioen aldaketa kualitatiborik. Hain zuzen ere, araudia gaur egun indarrean dagoenaren oso antzekoa da, zeina otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren (Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena) ondorio den. Horren bidez arautzen dira ingurumen-ebaluazioa eta industriako igorpenak. Beraz, ez dugu arrazoitu behar gure ustez existitzen ez den «eskumenen aldaketa kualitatiborik».

Gainera, aipatu behar da ingurumen-baimen integratu eta bakarrek prozedura baimentzaile substantiboaren barruan adierazten dela udalek nahitaez parte hartu behar dutela, bi aipamen hartzen baititu barne: batetik, hirigintzako alderdiei buruz (32. artikulua) eta, bestetik, haien eskumenei buruzko alderdiei buruz (36. artikulua). Hala, izapidearen bi une desberdinetan parte har dezaten bermatzen da; izan ere, udalak udalerriko hirigintza-eskumenei buruz egindako lehenengo aipamenak ingurumen-izapidea amaitu dezake, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren 32. artikuluan jasotzen denez: «(...) artikulua honetan araututako hirigintzako txostena negatiboa balitz (...), baimen hori emateko eskumena duen ingurumen-organoak arrazoietan oinarritutako ebazpena egingo du eta, hala, prozedura amaitu eta jarduketak artxibatuko ditu».

Kontuan hartuta, gainera, gaur egun EAEko edo Lurralde Historikoetako ingurumen-organoei dagokiela neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena egitea jarduteko lizentzia izapideetan, ezin da esan tokiko erakundeen eskumenak mugatu direnik, indarreko araudiaren baldintza berberetan errespetatzen baitira.

- **47. artikulua.** *Egokia litzateke udalerrietako ikuskapen funtzioak eskuordetzeko aukera egotea, ingurumen-baimen integratuaren eta ingurumen-baimen bateratuaren kudeaketan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legean jasotako arauari jarraikiz. Hala eginez gero, EAEko administrazioaren ingurumen-kudeaketako organoak ahalmen hori izango luke, baina dagokion udalerriak onartu beharko luke; hala, euskal udalek alegazioetan egindako proposamen batzuk beteko lirateke.*

Lege-aurreproiektuaren 47. artikuluan, hasierako komunikazioa arautzen da. Artikulu horren 4. zenbakian dagoeneko adierazten da administrazio publiko guztiek ikuskapenak egin ditzaketela, nork bere eskumen-esparruan.

Nolanahi ere, alegazioa ez bada bereziki 47. artikuluari buruzkoa eta orokorragoa bada, aipatu behar da baimen edo lizentzia substantiboa ematen duen administrazioari dagokiela ikuskaritzaren ahalmena, memorian eta lege-aurreproiektuari egindako alegazioei erantzuten dien txostenean jasota dagoen moduan. Ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bateratua emateko eskumena Eusko Jaurlaritzako dagokion sailari dagokio eta, ondorioz, horiek ikuskatzea ere organo horri dagokio. Ikuskatzeko ahalmena osagarria da eta baimena emateko ahalmenari lotuta ulertzen da, betiere. Ez luke zentzu handirik izango administrazio batek neurri zuzentzaile batzuen funtzionamendua eta bideragarritasuna ikuskatzeak, ez badaki zer egoerak bultzatu dituen kanpoko zerbitzu tekniko batzuk neurri horiek hartzera, eta ez baditu ezagutzen egoera horien izapidea eta proiektua.

- **IV. tituluko IV. kapitulua (sailkatutako jarduerarako baimena);** *egia da sailkatutako jarduerarako baimenaren mendeko jardueren perimetroa murriztu dela sailkapeneko jardueren aurretiko komunikazioko jardueren onurarako; baina egia da, halaber, kudeaketaren zamaren zati bat aurretiko kontrol-lanetatik egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko funtzioetara igarotzen direla, baimena emateko teknikaren bidez. Horrek aldaketa kualitatiboa ekarriko du udal-zerbitzuen antolatze moduan eta langileek gauzatu beharreko zeregin eta funtzioetan; ondorioz, egokitze aldi bat beharko da eta, beraz, finantza-baliabide gehiago erabili beharko dira, gutxienez behin behineko aldi horretan. Eta nabarmendu behar da memoria ekonomikoak ez duela hori berariaz kontuan hartu (kuantifikazioaz ari gara), zeinak adierazten duen eragin neutroa izango duela, eredu berriaren gastuak «automatikoki» orekatuko baitira eredu hori tokian-tokian ezartzeak ekarriko dituen aurrezkien bidez.*

Sailkatutako jarduerarako baimenaren eta aurretiko komunikazioaren mendeko jarduerak Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren I.C eta I.D eranskinetan daude jasota. Aipatu behar da aurreproiektu horretan adierazitakoa bat datorrela bi titulu horien mendeko jardueren indarreko banaketarekin, zeina apirilaren 23ko 7/2012 Legea (barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa) indarrean jartzean sartu baitzen; beraz, alegazioko «*sailkatutako jarduerarako baimenaren mendeko jardueren perimetroa murriztu dela*» aipamena ez dago behar adina frogatuta, eta ez dugu uste oraingoa denik, banaketa hori 2012an egin baitzen, Europako araudiarekin bat etorritz.

- **48.4. artikulua.** *Ulertu behar da hor egiten den aipamenak ez dituela ezertan eragozten «Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen 17.1. 8) artikulua arabera udalerriek arlo horretan dituzten ordenantza-ahalmenak», eta arlo material jakin batean tokiko arau-xedapenak onartzeko berariazko eskumena direla.*

Lege-aurreproiektuaren 48.4 artikulua hau adierazten du: «*Udalek, ordenantza bidez, prozedurak gauzatu ahalko dituzte, emandako jarduera sailkatuko lizentzietan aldaketa substantzialak edo ez substantzialak izapidetzeko*». Gure ikuspegitik, hor adierazten dena bat dator Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen 17.1.8 artikuluan ingurumen-arloko antolamendu osagarriari buruz ezarritakoarekin; horrez gain, berariazko aipamena da, udalek eskumen hori eragozpenik gabe erabil dezaten. Jakina, arlo horretan eskumen hori erabil dezaketela esateak ez du mugatzen gaiari buruzko antolamendu osagarriarako duen gaitasuna; hain zuzen ere, osorik mantentzen da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legeak eta sektoreko erreferentziarako arau esparruak ezarritako baldintzetan.

8) Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.

- **50. artikulua.** *Kasu honetan ez dago eskumenen arloko arazorik, hertsieratsian; aldiz, euskal udalerrien ingurumen-politikaren erdiguneko eskumen baten kudeaketarekin dago arazoa. Horregatik, sistema berriak udal-antolaketa eta prozeduran ezarritako epeak betetzean izan ditzakeen ondorioak ikusita, egokitzeak jotzen dugu 20 eguneko epea ezartzea, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 82.3. artikuluan ezarritako gutxienekoarekin bat etortzeko.*

Ulertzen dugu Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 83.2 artikulua ari dela, 82.3 artikulua beharrean, lehenengo horretan ezartzen baita 20 eguneko gutxieneko epea espedienteaz aztertzeko eta alegazioak egiteko, administrazio-prozedura bateko jendaurreko informazioaren izapide baten barruan.

Lege-aurreproiektuaren 50. artikulua guztiz bat dator aipatutako Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 83.2 artikuluaarekin, eta berme handiagoak edo epe luzeagoa ematen die interesdunei; izan ere, legezko gutxienekoa baino epe handiagoa ezartzen du, eta hilabete ematen du jendaurreko informazioaldarako eta alegazioak aurkezteko. Egia da arauaren xedeetako bat prozedurak arintzea dela, baina ez dugu egokitzeak jotzen, oro har, izapidetzeko epeak laburtzea eta herritarrek ingurumen-gaietan parte hartzeko duten eskubidea osatzen edo ahalbidetzen dutenak murriztea.

- **51. artikulua.** *Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren 51. artikulua garrantzitsuenetakoa da, txosten honen xedeari dagokionez; izan ere, nabarmen aldatzen du gobernu maila guztien artean*

*eskumenak esleitzeko gaur egun arte zegoen sistema, arlo zehatz batean, hots, neurri zuzentzaileak ezartzeko txostenari dagokionez; gainera, biztanle-atalaseak ezartzen ditu (arrazoitu gabe, gainera) udalen kasuan eta udalen borondatezkotasunean oinarritutako sistema gehitzen du, zeinak izapide horretarako gaitzen dituen eta, azken finean, Lurralde Historikoen Legea berriz diseinatzen du, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren azken xedapenetatik lehenengoan. Agindu horri buruz, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak puntu eta proposamen hauek azaldu nahi ditu:*

- *Neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena erakunde bati edo beste bati esleitzeko eredua aldatzeak ondorio garrantzitsuak ditu udalen eskumenetan eta toki-ogasunen finantzaketan.*

Memoria honetan lehenago adierazi dugun moduan, gure ikuspegitik, bi baieztapen horiek ez dute oinarririk, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan esandakoa hitzez hitz begiratzen bada. Gainera, ez da adierazten zein diren ondorio garrantzitsu horiek, eta ez da zenbatetsi ustezko finantzaketa-behar hori.

- *Eskumen-aldaketa hori egiteko (hobeto esanda, erakunde jakin batzuen ahalmenen aldaketa) Lurralde Historikoen Legea aldatu da (azken xedapenetatik lehenengoan), baina ez da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legea aldatu, nahiz eta 17.1.8) artikuluan udalei (salbuespen materialik gabe) aitortutako kudeaketa ahalmenak mugatzen diren, eta hori zioen azalpenean adierazi behar da (subsidiarioritasun- eta proportzionaltasun-printzipioei egokitzea) berariaz (Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren azken xedapenetatik lehenengoan, edo ondorio hauen amaieran adierazten den moduan).*

Memoria honetan lehenago adierazi dugun moduan, gure ikuspegitik, baieztapen horiek ez dute oinarririk, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan esandakoa hitzez hitz begiratzen bada.

- *Araua egiteko prozeduraren espediente osoan ez dago justifikaziorik biztanleriaren atalasea 10.000 biztanle baino gehiago edo gutxiagotan ezartzea azaltzen duenik; atalase hori ezartzean, maila edo eragin desberdina ematen zaio udal-autonomiari, handiagoa zifra hori gainditzen duten udalerrientzat, txikiagoa heltzen ez direnentzat. Gutxienez, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) 91. artikuluan ezarritakoarekin bat etor zitekeen; izan ere, artikulua horretan 7.000 biztanleko atalasea ezartzen da (...).*

Gure ustez, memoria honetan lehenago adierazi dugun moduan, EAEko udal handienek, *a priori*, behar adina baliabide dituzte, bai eta ingurumen-teknikariak ere, eta, beraz, zerbitzu egokia daukate; hala, funtzio horiek gauzatzeko hautagai egokiak dira, baldin eta, praktikan, eskumenak eskuordetzea eskatu badute, bere egin badute eta neurri zuzentzaileak ezartzeko txostenak egiteko lanak gauzatzen badituzte.

Alegazioak ez du azaltzen zergatik ez den egokia adierazi dugun atalasea. Halaber, ez du azaltzen zergatik den beste sektore-araudi batek eta beste xede batzuekin ezarritako 7.000 biztanleko atalasea EAEko ingurumen-organismoak proposatutakoa baino egokiagoa, ez eta nola justifikatu zen erabaki hori hartzea ere. Beraz, ezin dugu alegazioa aintzat hartu.

- *Nolanahi ere, proposamen hori subsidiarioa litzateke, orain nabarmendu behar dugunarekiko. 3/1998 Legea eta 2/2006 Legea Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legea baino lehenagokoak dira. Azken hori indarrean sartu*

*ondoren, araudi horrek zerbitzu-kudeaketari buruz duen gida-oinarria agerikoa da: udalerriek kudeatzea lehenesten du, edo, hala badagokio, mankomunitateek edo udalen beste elkarte batzuek; aldiz, udalez gaindiko erakundeek edo, azken buruan, foru-aldundien kudeaketa bigarren mailakoa da. Beraz, EAEko udal batzuek alegazioetan esan zuten moduan (adibidez, Bermeoko eta Pasaiko udalek), Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen espirituarekiko eta xedearekiko egokiagoa da neurri zuzentzaileak ezartzeko txostenak egiteko ahalmena udalei ematea salbuespenik gabe (ingurumen-kudeaketako eskumena baita), eta atea zabalik uztea foru-aldundien laguntza teknikoa eska dezaten, bestela.*

Memorian behar bezala azaldu dugu zergatik erabaki den horrela banatzea funtzioak administrazio publikoen artean.

Nolanahi ere, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren 7.2 b) artikuluan, orokorrean, atea zabalik uzten zaie udalei Lurralde Historikoetako foru-aldundien laguntza eskatzeko horrelako izapideetan; beraz, ez da berariazko aipamena egin beharrik artikulurik horretan. Hitzez hitz, foru-aldundien eskumena litzateke: *udalei laguntza ematea, Lege honetan araututako sailkatutako jarduerarako baimenaren eta aurretiko komunikazioaren prozeduraren mendeko jarduerari eta instalazioei dagokienez.*

- *Alabaina, neurri hori egokitzen ez bada, azaldu dugun moduan, sektoreko legegileak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.2 «in fine» artikuluan arabera, agerian jarri beharko du berariazko muga hori dagoela 10.000 biztanletik beherako udalerrientzat, eta berariaz adierazi (edo arauen bidez berariaz gorpuztu) eta zehaztu beharko du zergatik murriztu diren horrelako udalerrien kudeaketa-ahalmenak, subsidiaritasun- eta proportzionaltasun-printzipioetan oinarrituta.*

Memoria honetan lehenago adierazi dugun moduan, gure ikuspegitik, baieztapen horiek ez dute oinaririk, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan esandakoa hitzez hitz begiratzen bada. Ez dago aipatu den moduko kudeaketa-ahalmenen murrizketarik.

- *Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak ez ditu kontuan hartu gai horiek guztiak, eta behar bezala zuzendu behar dira hemen adierazitako baldintzetan.*
- **IV. tituluko V. kapitulua** (sailkapeneko jardueren aurretiko komunikazioa). IV. kapitulu hau ere garrantzitsua da euskal udalerrientzat, besteak beste, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak diseinatutako ereduak sailkatutako jarduerarako baimenaren mendeko jardueren perimetroa aldatzen duelako, eta horietako batzuk sailkapeneko jardueren aurretiko komunikaziora eramaten dituelako, izapideak sinplifikatzeko eta zama administratiboak murrizteko hasieran aipatutako prozesu horretan. (...). Laburbilduz, udal-administrazioari dagokionez, kontuan hartu beharko da orain sailkatutako jarduerarako baimenaren mende ez dauden jardueretan kontrolako eta ikuskapeneko tekniken bidez esku hartzea eskatzen dutela eta, horregatik, baliabideak behar dituztela.

Administrazio publiko guztiek barneko egiturak antolatzen jarraitu behar izan dute edo dute, baliabideak ongi banatzeko, paradigma aldaketa gertatu ondoren, aurretiko kontrola egitetik (baimenak) ondorengo kontrolak egitera (aurretiko komunikazioak edo erantzukizunpeko adierazpenak) igaro baita. Euskadiko Tokiko Gobernuen

Batzordearen gogoetak ez du zehazten komunikazioaren mendeko jardueren areagotzea eta, beraz, kontrola ondorengoa litzateke. Lehenago esan dugun moduan, aipatutako aurreproiektua bat dator, bi tituluen mendeko jardueren banaketari dagokionez, bere garaian apirilaren 23ko 7/2012 Legearen (barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa) bitartez indarrean jarri zenarekin. Gure ikuspegitik, ez dugu uste gaur egungo proiektuari egotzi behar zaionik funtzioak areagotzea, 2012ko maiatzean banatu baitziren jarduerak eta horiei dagozkien funtzioak, Europako araudiarekin bat etorritz.

- **VII. titulua (Erakunde kolaboratzaileak eta ingurumen-ikuskaritza).** *Izapide horretan parte hartu zuten udalek alegazio asko egin dituzte titulu honi buruz, batez ere ingurumen-ikuskaritzari buruzko kapituluari dagokionez, zeinak ondorio garrantzitsuak dituen udalen antolakuntzan, eta giza eta finantza-baliabideetan.*

Alegazio guztiak aztertu eta behar bezala erantzun ditugu, dagozkien izapide-faseetan; horregatik, ez dugu uste bidezkoa denik Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak udal bakoitzaren izenean aurkeztutako alegazioak aipatzea, horiei garrantzi handiagoa emateko xedez edo, bestela, alegazio jakin batzuk testuan sartzea lortzeko, txostena bigarren itzuli moduan erabiliz.

Ez dugu uste Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak ingurumen-ikuskaritzari buruz araututakoak ondorio garrantzitsuak dituenik antolakuntzan eta giza eta finantza-baliabideetan. Adierazi dugun moduan, ez da asko aldatu gaur egungo egoera EAEko udalentzat; aldiz, egiaz, ikuskatu beharreko jardueren kopurua murriztu da, ingurumen-baimen bateratuaren erregimenera pasatzeagatik.

Are gehiago, adierazi behar da EAEko 251 udalerrietatik lauk soilik egin dituztela gai horri buruzko alegazioak; beraz, ez gaude ados zati horretan esaten denarekin, *alegazio asko egin direla* adierazi baitu.

- **91. artikulua.** *Artikulu honetan, modu orokorrean erabiltzen da «langile» hitza, jardueren titularrak haiekin elkarlanean aritzera behartzen baititu. Eta hor 89. artikuluan jasotakora itzultzen da; horretan, erakunde laguntzaileak arautzen dira, eta haien esku hartzeko zirkulua zabaltzen, berariaz esaten baitu langile horiek ikuskaritza-lanak egingo dituztela. Askoz ere egokiagoa litzateke bestelako hitz batzuk erabiltzea, esaterako, egiaztatzeko jarduerak, kontroleko jarduerak eta abar, eta ikuskaritzaren nozioa alde batera uztea, ahalmen publikoak erabiltzeaz ari baita azken hori. Ikus, halaber, txostenaren gorputzean 92. eta 93. artikuluei buruz egiten diren antzeko gogoetak (txostenaren 82. eta 83. apartatuak).*

Arau-testuaren idazketaren alderdi teknikoei buruzko alegazioa da eta, argi eta garbi, ez dagokio halakorik egiterik Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari honelako txostenetan.

Edonola ere, lege-aurreproiektuari egindako alegazioei erantzuten dieten memoria eta txostenetan aipatu den moduan, 89. artikuluan «ingurumen-ikuskaritzako langileak» arautzen dira, behar bati erantzuteko: erakunde pribatuei aukera ematea zenbait jarduketatan laguntzeko, baldin eta ez badira nahitaez funtzionario publikoek egitekoak, ahalmen publikoak gauzatzea dakartelako berekin, betiere administrazio publikoek hala eskatuta eta haien tutoretzapean, eta dagokion nahitaezko kontratazio-prozedura egin ondoren. Kapitulu horri egindako alegazioei emandako erantzunetara jotzen dugu, behar baino gehiago ez errepikatzeko.

- **Xedapen gehigarria (bakarra).** Badirudi Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak nolabaiteko «autofinantzaketa» ezartzen duela, Administrazio Publikoek etorkizuneko legea aplikatzean izango dituzten betebeharrak eta erantzukizunak gauzatzeko; hala izanez gero, horrek ez ditu inola ere betetzen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea aplikatzearen ondoriozko finantzaketa-eskakizunak, aurreikusten diren eskumen eta ahalmen berriei dagokienez, testu berria onartu arte indarrean zegoen legeria betez orain arte euskal udalerriek gauzatutakoen aldean. Beraz, komenigarria litzateke paragrafo bat sartzea aipatutako xedapen gehigarrian, gai horri dagokionez Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea aplikatu behar dela berariaz bermatzeko. Paragrafo hori honela egon liteke idatzita: «Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez du inola ere eragozten apirilaren 2ko 2/2016 Legean (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) tokiko erakundeen finantza-nahikotasunari buruz idatzitakoa, bereziki 17., 18. eta 112. artikuluetan eta lehenengo xedapen iragankorrean jasotakoa».

Memoria honetan, behin eta berriz azaldu da ez direla eskumen eta ahalmen berriak aurreikusten euskal udalerriek orain arte gauzatutakoen aldean, testu berria onartzeko unean indarrean zegoen legeriarekin bat etorritz. Beraz, ez du zentzurik aipamen hori egiteak.

Nolanahi ere, ez da beharrezkoa eta legegintza-teknika on guztien aurka doa aipamen gurutzatuak egitea arau batean, indarrean egonik modu osagarrian aplika daitezkeen beste arau batzuekiko. Lege-aurreproiektuaren artikuluetan, haietan arautzen diren gaietan aplika daitezkeen lege-lerruna duten xedapen guztiak aipatuko balira, horietako asko duten eduki eta irismenagatik oso garrantzitsuak diren arren, ondoriozko legea arau-katalogo bat izango litzateke eta ez luke berme juridiko handirik emango; izan ere, arauak onartzen dutenetik eta indarrean jartzen denetik ditu ondorioak, eta ez beste xedapen batek berariaz aipatzen duelako.

- **Azken xedapenetatik lehena.** Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren 51. artikulua aztertzean, Batzorde honek ordezkoko konponbideak proposatu ditu araudi hori eta ustezko foru-eskumen hori Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritakora egokitzeak, hala materialki nola formalki (...).

Memorian lehenago esandakora jotzen dugu, planteatutako gai guztiei erantzun baitiegu.

- Nolanahi ere, eskumen hori Foru Aldundiei eman nahi bazaie, irismen horrekin edo beste batekin, ezinbestean justifikatu beharko da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.8) artikulua aldaketa, Lege beraren 17.2 «in fine» artikuluari jarraikiz, subsidiarioratasun- eta proportzionaltasun-printzipioetan oinarrituta; gainera, artikulua horren berariazko aldaketa txertatu beharko da azken xedapen batean, eta adieraziko da neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzeko ingurumen-kudeaketako eskumenei dagokienez Lurralde Historikoen Legearen 7. C) 6 artikuluan eta Lege honen 51. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaiola. Alabaina, Batzorde honen ustez, euskal udalen eskuetan egon beharko litzateke neurri zuzentzaileak txosten bidez ezartzeko eskumen hori, dagoeneko aipatu ditugun zehaztasunekin, euskal udalerrien eskumen propioa delako.

Memorian lehenago esandakora jotzen dugu, planteatutako gai guztiei erantzun baitiegu.

- ***Eranskin ekonomikoa, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legea onartu ondoren EAEko udalerrien finantza-nahikotasuna bermatuko duena.*** Azkenik, Tokiko Gobernuen Batzordearen ustez, arau-ekimena proposatu duen sailak egindako memoria ekonomikoa ez dator bat Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 18.3 eta 112. artikuluekin (ez eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.4 artikuluekin ere), ez bada egin gutxienezko zehaztasuna duen azterketarik edo zenbatespenik, eredu berri hori ezartzeak izan ditzakeen ondorioei buruz...

Memorian lehenago esandakora jotzen dugu, planteatutako gai guztiei erantzun baitiegu. Gogorarazi nahi dugu Tokiko Gobernuen Batzordeak berriro ekartzen duela ahotara, okerki, 17.3 artikulua, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren lege bidez edo foru-arau bidez zehazteari buruzkoa, gero, interesak tarteko, 18.3 artikuluekin lotzeko, zeinak, nagusiki, hau esaten duen: udalei eskumen propioak esleitu eta propiotzat izendatu zaizkien eskumenetatik eratorritako zerbitzu, jarduera edo prestazioen zehaztu ondoren, behar den baliabide-zuzkidura egin behar da, udalen finantza-nahikotasuna bermatzeko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren memoria ekonomikoan neurriak udaletan izango duen eragin ekonomiko neutroaz esandakora jotzen dugu, bai eta, hala badagokio, ondorengo organoek erabakiko dutenera ere, lege-aurreproiektuan ezarritakoari jarraikiz informatu beharko baitute.

## **2.5. Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren irizpena.**

2019ko otsailaren 22an, Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak 4/19 Irizpena eman zuen, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa.

Irizpenaren oharpide orokorretan, Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak oso egokitzen jotzen du ingurumen-arloko arau berria egiteko ekimena, orain indarrean dagoen Ingurumena babesteko Lege Orokorra ordezkatzeko, eta ongi eraikitako aurreproiektua dela eta horri buruzko iritzia ona dela dio, nahiz eta zenbait oharpen egin gai jakin batzuei buruz.

Honako hauek dira aipatutako oharpenak:

### **1. Aurreproiektuaren justifikazioko memoria ekonomikoari dagokionez**

*Irizpena egin zaion aurreproiektuaren justifikazioko memoria ekonomikoan, ahalegin handia egin da legea ezartzeak administrazio publiko eta pribatuentzat izango dituen gastuak eta kostuak zenbatesteko, baina diru-sarrerei, finantzaketari eta aurrekontuetan izango duen islari buruz zerga-kontzeptuak eta neurri fiskal orokorrak soilik aipatzen ditu.*

*Horregatik, uste dugu komeni dela memoria ekonomikoa osatzeko gastuen simulazioak eta zenbatespenak egitea, aurreproiektuan ezartzen baita sortuko diren tasek, zergek eta tresna fiskalek helburu jakin bat izango dutela eta aurrekontu-partida jakin bat osatuko dutela, ingurumen-administrazioko legea betetzeko xedez.*

Aurreproiektuarekin batera doan memoria ekonomikoaren apartatuetan azaldu den moduan, aurreproiektuan aukera ematen da neurri fiskalak eta finantzarioak hartzeko administrazioaren eta ingurumen-babesaren arloan, baina ez dira zehazten egon

daitezkeen diru-sarrera horien irizpideak eta zenbatekoak, arau-esparrua ezartzera mugatzen baita, gero lege bidez zehazteko.

Aurreproiektuan ez direnez zehazten egon daitezkeen diru-sarrerak, ezin da egin horien garrantziaren zenbatespenik edo simulaziorik, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan zehazten den arau-esparru orokor berria erabakiko duten arauzko garapenen esku uzten da zeregin hori.

Halaber, adierazi behar da eskumen fiskalak hiru Lurralde Historikoen artean banatuta daudela EAEn, haiek baitute zergapeko egitateak zehazteko gaitasun osoa, bai eta, hala badagokio, aplikatu beharreko zerga-hobariak eta salbuespenak ezartzekoa ere; horrek asko zailtzen du diru-sarrerak zenbatestea, beste administrazio batzuetan hartutako erabakien mende geratzen baita, kasu honetan, aldundietan erabakitakoaren mende.

## 2. Zioen azalpenari buruz

*1.- 11. orrialdeko laugarren paragrafoan adierazten denez, ingurumen-arloan esku hartzeko prozedurak arinago izapidetze aldera, jarduera bat egitean tokiko hurbileko auzotarrei horren berri emateko izapidea ezabatu da eta, horren orde, dagokion Aldizkarian eta egoitza elektronikoan eta legezko abisuetan argitaratuko da. Arreta erakarri nahi dugu izapide hori ezabatzeari buruz, ez badirudi modurik egokiena denik gardentasunaren printzipioak eta herritarren parte-hartzea sustatzeko, aurreproiektuaren zioen azalpenean printzipio horiek aldarrikatzen diren arren.*

Gure ustez, beharrezkoa izan da jakinarazteko ereduak aldatzea, XXI. mendean eta antzeko beste neurri batzuekin bat etorritik, lehengo ereduak arau zaharretatik baitatoz, 1961eko Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arauditik, adibidez. Udalek berek adierazi diote Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzari horrelako jakinarazpen pertsonaleko ereduak oso eragin txikia dutela, kontuan hartzen badira zenbat alegazio aurkezten dituzten auzotarrek, ingurumen-tituluak izapidetzeko espedienteetan jasotzen diren alegazio guztiekin alderatuta. Halaber, esan behar da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan ez zirela aurreikusi udaleko legezko abisuak, eta gero gehitu zirela, aurreproiektuan jasotako publizitateko neurrien osagarri modura, udal batzuek aurkeztu zituzten alegazioak zirela eta.

*2.- 12. orrialdearen hirugarren paragrafoan adierazten da (...); horren ondorioetarako, uste dugu egokia dela paragrafo horri klausula hau gehitzea: «**interesdunen erregistroa sortzean, ez da ezabatuko legitimoki interesdun den edonork informazioa atzitzeko eta jasotzeko duen eskubidea, aplikatu beharreko araudiaren arabera, nahiz eta ez egon erregistro honetan**».*

Horrelako erregistroak sistematikoki kokatuta daude eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan interesa duten pertsonentzako dira; uste dugu nahiko argi dagoela eta ez dela azaldu beharrik prozeduretan interesa dutenek ez dituztela informazioa atzitzeko eskubideak mugatuta izango, 39/2015 Legearen 4. artikuluan jasotako «interesdun» kontzeptuarekin bat etorritik.

## 3. Artikuluei dagokienez

### 1. artikulua.- Xedea

*Proposatzen dugu ingurumena kontserbatzea ere ezarri nahi den araudiaren helburuen parte dela; horregatik, xedea azaltzen duen xedapenean hori txertatzea iradokitzen dugu.*

Ekarpena onartzen da, eta honela geratuko da idatzita:

1. artikulua: Lege honen helburua da EAEn ingurumena babesteko, **kontserbatzeko** eta hobetzeko arau-esparru eguneratu bat ezartzea, eta pertsona fisiko zein juridikoen eskubideak eta betebeharrak zehaztea, besteak beste, honako helburu hauek lortzeko:

*Halaber, proposatzen dugu adieraztea enpresan eta lan-esparruan ere ingurumen-hezkuntza beharrezkoa dela eta, beraz, sustatu egin behar dela:*

Ezin daitezke banan-banan zehaztu artikulua aplikagarri zaien gizarte-eragile guztiak. Ulertzen da artikuluan hitzez hitz aipatutako gizarte-eragileen barruan daudela enpresak eta lan-esparruak.

## **2. artikulua.- Definizioak**

*Proposatzen dugu a) apartatuko Ingurumen Akordioaren definizioan sindikatuak gehitzea, ingurumen-akordioaren subjektu izan daitekeen aldetik:*

*2.a) artikulua: Ingurumen-akordioa: ingurumen-administrazio eskudunaren eta enpresa baten edo sektore, **sindikatu-erakunde**, kolektibo edo erakunde zehatz bateko ordezkarien artean izenpetutako akordioa, eta, akordio horren arabera, borondatezko eran lotesten dira ingurumena babesteko helburu batzuk betetzera.*

Arauak taldeei eta erakundeei buruz egiten duen aipamenak guztiak hartzen ditu barnean eta, beraz, ez dugu beharrezkotzat jotzen sindikatu-erakundeei berariazko aipamena egitea. Hain zuzen ere, 79. artikulua, ingurumen-akordioak arautzen dituenak, *gizarteko instantzia guztien* parte hartzea lortu nahi duela dio, eta barne hartzen ditu sindikatu-erakundeak ere.

*Proposatzen da «instalazioa» hitzaren definizioan unitate tekniko iraunkorrak eta aldi baterakoak ere sartzea:*

Ez dugu beharrezkotzat jotzen instalazioaren iraupenean (iraunkorra edo aldi baterakoa) oinarritutako definizioa egitea.

*Halaber, «ingurumen-aztarna» esamoldea definitzea proposatzen dugu, testua hobetu uler dadin, bereziki 82. artikuluaaren edukiari dagokionez, zeina kontzeptu horri buruzkoa den.*

82. artikuluan dagoeneko azaltzen da produktuen edo erakundeen ingurumen-aztarnarekin haien bizi-zikloan izandako portaera neurtu nahi dela, eta administrazio publikoek Europar Batasunak onetsitako metodologiak sustatu behar dituztela. Uste dugu egokiago dela gaiari buruzko arau sektorialek edo espezifikoek egindako definizioak hartzea, arau orokor honetan definizio bat ematea baino.

## **5. artikulua. Pertsonen eskubideak**

*Lege-aurreproiektuaren arabera pertsona guztiek izango dituzten eskubideen zerrendan, a) apartatua ezabatzea proposatzen dugu.*

*Zehazki, uste dugu egokia dela a) apartatuan azpimarratuta dagoen aipamena, zeinak dioen «hala emakumeak nola gizonak». Xedapenak adierazten du pertsona guztiek izango dutela eskubidea eta, beraz, horrek pertsona guztiak hartzen ditu barne, gizonak, emakumeak eta bestelakoak.*

Emakundek lege-aurreproiektuaren nahitaezko txosten loteslean berariaz hala eskatuta gehitu genuen zati hori. Beraz, ez dagokio Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak egindako proposamena onartzea.

#### **10. artikulua. Ingurumenerako Aholku Kontseilua**

*Ingurumenerako Aholku Kontseiluari dagokionez, uste dugu arauan jasota geratu beharko litzatekeela aholku-kontseilu hori goi-mailakoa dela ingurumenaren eta lankidetzaren arloan.*

10. artikulua: Ingurumenerako Aholku Kontseiluak, EAEko ingurumenaren eta lankidetzaren arloko **goi-mailako kontsulta-organo** den aldetik, xede du harremana sustatzea...

Ez dugu uste hori gehitzea beharrezkoa denik.

#### **11. artikulua.- Osaera**

*Aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz, «ordezkaritza handieneko» hitzak gehitzea proposatzen dugu, Ingurumenerako Aholku Batzordea osatzen duten enpresa- eta sindikatu-erakundeei dagokienez.*

11. artikulua: g) **Ordezkaritza handieneko enpresa-erakundeak.**

h) **Ordezkaritza handieneko sindikatu-erakundeak.**

Ez otsailaren 27ko 3/1998 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena) ez otsailaren 15eko 7/2008 Dekretuak (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikako Aholku Batzordeari buruzkoa) eta horren ondorengo aldaketek ez zuten bereizketarik egin enpresa- eta sindikatu-erakundeen artean, ordezkari handiagoko izateagatik.

Aholku Kontseiluaren helburua da gizarte-interesak ordezkatzeko dituzten taldeei ahotsa ematea, eta sindikatuak eta enpresa-erakundeak hala izan daitezke, ordezkari handiagoko izan ala ez, laneko arauen ondorioetarako.

#### **18. artikulua.- Ingurumen-arloan esku hartzeko araubideak**

*Hau gehitzea proposatzen dugu, eragina zehatz-mehatz jasota gera dadin.*

18.2. artikulua: Jarduerak eta instalazioak lege honek araututako ingurumen-arloan esku hartzeko dauden araubideen mende jartzeko, **jarduera horiek ingurumenean duten eragina** hartu da oinarrian, alderdi hauek kontuan hartuta:

Egindako alegazioa eskertzen da eta testu hau gehituko dugu: «(...) jarduera horiek ingurumenean eta jendearen osasunean».

#### **35. artikulua.- Jendaurreko informazioa**

*Jendaurreko informazioaldia gehiago luzatzea bermatzeko, proposatzen dugu instalazio edo jardueren proiektuak, ingurumen-baimen integratua edo ingurumen-baimen bakarra behar dutenak jendaurreko informazioaldian jartzeko EHAA-n egiten den iragarkia jarduera edo instalazioa egingo den tokiko udaleko iragarki-oholean ere jar dadila, hori zehazten duen bigarren paragrafo bat gehituta:*

*35.1. artikulua: Eskabidea aurkeztu eta emandako dokumentazioa osorik dagoela egiaztatu ondoren, instalazioa edo jarduera egiteko proiektua hilabeteko jendaurreko informazioaldian jarriko da, EHAA-n eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikokoan iragarri ondoren, alegazioak egiteko aukera egon dadin. **Era berean, iragarki horren kopia bat jarriko da jarduera edo instalazioa kokatuko den herriko udaleko iragarki-oholean.***

Alegazioa egokitzen jotzen da. Honela geratuko da idatzita amaierako testua:

«Hedapen handiagoa izan dezan, jarduera edo instalazioa kokatuko den herriko udalari jakinaraziko zaio iragarkia, toki-erakundeak bere iragarki-oholean jar dezan».

### **38. artikulua.- Beste txosten batzuk**

*Xedapen honetan, ez da zehazten zein agintari edo erakunderi eskatu beharko zaion aipatzen den osasun-arloko nahitaezko txostena. Horregatik, uste dugu gehiago zehaztea komeni dela, esaterako, txostena publikoa izan behar dela edo, bestela, arauz garatuko dela.*

Gure ikuspegitik, eta kontuan hartuta udalek gutxienez otsailaren 27ko 3/98 Legea indarrean sartu zenetik eskatzen dituztela osasun-arloko horrelako txostenak, uste dugu ez dela beharrezkoa osasun-arloko txostena administrazio publikoari eskatzeari buruz oharrik egitea.

Halaber, testuko «beren eskumenak direla-eta iritzia eman behar duten organo guztiei» aipamena ikusita, ulertzen da nahitaez publikoak izan behar direla.

Aurkeztutako alegazioa aztertu eta artikulua hitzez hitz diona berriz irakurri ondoren, erabaki dugu hobekuntza tekniko txiki bat egin behar zaiola aginduari, eta informazioa eman behar duten organoen eskumenei buruzko aipamen errepikakor bat ezabatu.

### **40. artikulua.- Ebazpena**

*Xedapen honek ezartzen du zer eduki eta epe bete behar dituzten ingurumen-baimen integratuko eta ingurumen-baimen bakarreko prozedurak amaitzeko ebazpenek; hala, 9 hilabeteko epea du lehenengoak, eta 6 hilabetekoa bigarrenak. Adierazi behar dugu epe horiek luzeegiak direla, eta arinago abiarazi behar direla proiektu eta jarduera ekonomikoak, aipatutako baimenak eskatzera bultzatzen dutenak. Horregatik, epe horiek nabarmen laburtzeko eskatzen dugu.*

Gure ikuspegitik, egokiena litzatekeen arren, ezinezkoa da epe horiek murriztea; izan ere, gaur egun, administrazio publikoek arazoak dituzte ingurumen-baimen integratuaren bederatzi hilabeteko epea betetzeko, adibidez.

Nolanahi ere, epe horiek gehieneko epeak dira, eta materialki murriztu daitezke prozedura izapidetzean, hori abiaraztean egon daitezkeen egoeren arabera.

### **43. artikulua.- Baimenen indarraldia eta berrikuspena**

*Gure ustez, xedapen batek ez ditu adierazpen kualitatibo eta orokorrak izan behar, 43.4 artikuluko b) letran gertatzen den moduan; horretan, ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-baimen bakarra ofizioz berrikusteko kasuak jasotzen dira, eta agintari eskudunen esku uzten du ofiziozko berrikuspena egitea, honi buruz duen iritzia arabera: «igorpenak nabarmen murriztu ahal diren», «aldaketa handiak egitearen ondoriozko» «gehiegizko kosturik gabe».*

*Horregatik, adierazpen horiek zehaztu daitezela proposatzen dugu, arauan aipamen bat txertatuz edo erregelamendu bidez garatuz.*

Ezin dugu onetsi alegazio hori. Klausula irekiak dira eta horrela aipatuta datoz ingurumen-araudi alderatuan, administrazioaren esku-hartzearen oinarritzko printzipio bati (aurrerapenaren klausula) eutsi nahi diotelako; horren arabera, administrazio publikoek tresnak izan behar dituzte data jakin batean igorri segidako traktua duten baimenak eguneratzeko.

Ez da inola ere agintari eskudunaren jardura arbitrarioa, diskrezionalitate teknikoan oinarritutako jardura baizik, interes orokorra lortzeko. Ezin da pentsatu data jakin batean emandako baimena ez denik berrikusi behar aurrerapen teknikoaren arabera; eta aurrerapen tekniko hori ezin denez aurretik ezagutu, eta ezin zaienez enpresei edozein aldaketara egokitzeko eskatu, murrizpen nabarmenen bidez eutsi eta justifikatu behar da hori, gehiegizko kostuak ezarri beharrean.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan hitzez hitz jasotakoa bat dator ingurumenaren arloko beste araudi batzuetan ezarritakoarekin eta, gainera, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuarena) 26.4.b) artikuluan oinarrian ezarritakoa errepikatzen du, hitzez hitz.

Nolanahi ere, aurrerapen teknikoak ez du legearen babesik behar kasuz kasu aplika daitekeela erabakitzeko, ingurumena babeste aldera.

## **59. artikulua.- Ingurumen-ebaluazioa**

*43. artikuluari buruz adierazi dugun moduan, ez zaigu egokia iruditzen xedapen batean adierazpen kualitatiboak eta orokorrak egitea eta agintari eskudunen iritzia esku uztea.*

*59.1. artikulua: Ingurumen-ebaluazioko dagokion prozedura egin beharko dute, nahitaez, ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen plan, programa eta proiektuek, **aplikatzekoa den araudiaren eta lege honetan ezarritako erregelamendu bidezko garapenaren arabera**, ingurumen-arloko babes-maila handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko, honako hauen bidez:*

Ezin dugu alegazioa onetsi; izan ere, «eragin nabarmena izan dezaketen» eta antzeko esaldiak daude ingurumen-ebaluazioari buruzko araudian, jatorrizko arauetatik eratorriak.

Hala oinarritzko legediak nola aurreproiektuak zehazten dute eragin nabarmenak direla:

2.h) artikulua, Ingurumenean eragin nabarmena: ingurumenaren kalitatearen edozein alderdik kalterako aldaketa edo aldaketa handia jasatea, bereziki iraunkorra edo epe luzekoa bada. Natura 2000 Sareko guneei dagokienez, eragin bat nabarmena dela esango da toki horretan kontserbatzen diren habitaten edo

espezieen kontserbazio-egoera edo, hala badagokio, berroneratzeko aukerak zehazten dituzten parametroek txarrera egitea eragin badezake.

Esandakoa ez errepikatzeko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren entzunaldian V. titulua (ingurumen-ebaluazioa) baino lehenagoko oharpenetan erantzundakora jotzen dugu; nolana ere, nabarmendu behar da ingurumen-eragin esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuei aplikatzen zaiela ingurumen-ebaluazioa, bai ondorio horiek gertatu behar diren ziurtasuna dagoenean (probabilitate altua), bai zalantza dagoenean (zehaztu gabeko probabilitatea). Aldiz, ez da aplikatu behar ondorio horiek gertatuko ez diren ageriko ziurtasuna dagoenean. Kontzeptuon zehaztapena II. eranskineko proiektuen zerrenda bikoitzean dago jasota (zuzenean edo zeharka).

## **62. artikulua.- Ebaluatu gabeko planen, programen eta proiektuen deuseztasuna**

*Uste dugu testuan zehaztu beharko litzatekeela ingurumen-inpaktuaren nahitaezko ebaluazioa egin gabe erabat edo partzialki gauzatutako proiektuei ebaluazio hori egingo zaiela, ezertan eragotzi gabe ebaluazioa ez egiteagatik izan ditzaketen zehapenak. Eta, horregatik, jokabide hori ezin da besterik gabe konpondu, egin gabeko izapidea ondoriorik gabe gauzatzuz; izan ere, arau-hauste oso larritzat jo da Bederatzigarren Tituluan, ingurumen-arloko diziplinari buruzkoan, 104.2.b) artikuluan.*

*62.2. artikulua: Ingurumen-inpaktuaren nahitaezko ebaluazioa egin gabe erabat edo partzialki gauzatutako proiektuei dagokienez, organo sustatzaileak dagokion ebaluazio-prozedura egingo die proiektu horiei, gabezia agerian jarri den unean, eta, hala badagokio, ondorengo ebaluazioaren berezko berezitasun teknikoak aplikatuko dira, **ezertan eragotzi gabe Lege honen 104.2.b) artikulua arabera izan ditzakeen zehapenak.***

Alegazioa onesten da eta, horrenbestez, testua aldatuko da.

## **65.- Ingurumen-ebaluaziotik salbuetsitako plan, programa eta proiektuak**

*Uste dugu **plan eta programa fiskalak** ingurumen-ebaluaziotik salbuetsitako plan, programa eta proiektuen zerrendan sartu behar direla.*

Ingurumen-ebaluaziotik salbuetsita daude finantza- eta aurrekontu-izaerako plan eta programak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa) 8.1 b) artikuluan hitzez hitz eta oinarrian ezarritakoaren arabera. Uste dugu ez dagokiola beste plan mota jakin batzuk berariaz salbuesterik, esaterako, fiskalak; izan ere, hala eginez gero, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak Estatuko oinarrizko legeriak orokorrean ezartzen duen ingurumen-babesaren araubidea murriztuko luke Euskadin.

*Bestalde, bigarren paragrafoan jasotako kasuari dagokionez, zeinaren arabera ingurumen-organoak ezarri beharko duen zein egoeratan ez diren izango nabarmenak plan edo programek ingurumenean izandako eraginak, uste dugu irizpide horiek ezartzea ez dela ahalmena izan behar, betebeharra baizik; horregatik, testuan horren ondorioetarako behar diren aldaketak ezartzea proposatzen dugu.*

Plan, programa edo proiektu zehatz bat ingurumen-ebaluazioaren aplikazio-eremutik kanpo geratzeko irizpide nagusia honako hau da: ingurumenaren gaineko ondorio esanguratsuak izateko aukerarik ez izatea agerikoa, hau da, zalantzarik gabea, izatea.

Are gehiago, plan, programa edo proiektu batek ingurumenaren gaineko ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo ez zalantzan badago, ingurumen-arloko oinarritzko legeriak ezarrita du dagoeneko ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren prozedura jarraitu behar dela, lege-aurreproiektuan bertan aurreikusi bezala. Eta hori guztia, gainera, azterketa sakonetan sartzeko asmorik gabe, kontuan izanik ingurumen-organoak Euskal Autonomia Erkidegoko lurretan izandako esperientziaz ateratakoak bezalako suposizio jakin batzuk eman daitezkeela, non ingurumenaren gaineko ondorio esanguratsuak izateko aukera ezaguna eta oso txikia den.

### **68. artikulua.- Publikotasuna**

*Ingurumen-ebaluazioko prozeduren ebazpenak ezagutzera emateko, uste dugu garrantzitsua dela bermatzea interesdunek ebazpenaren kopia jaso ahal dutela, eskatzen badute.*

*68. artikulua: Ingurumen-ebaluazioko prozedurei amaiera emateko ebazpenak dagokien Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, bai eta ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan ere. **Kopia bat emango zaie eskatzen duten erakunde edo pertsona interesdunei.***

Ez dugu uste hori zehaztea beharrezkoa denik. Aldizkari ofizialean edo egoitza elektronikoan argitaratutako ebazpenen kopia eskatzen duten erakunde edo pertsona interesdunak tratatzeko, oinarri hartuko dira Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren III. Tituluan (Ingurumen-arloko informazioa, parte-hartze publikoa eta justizia) eta ingurumen-arloko informazioko, parte-hartze publikoko eta justiziako eskabide horiei buruzko oinarritzko araudian ezarritako baldintzak.

### **83. artikulua.- Erosketa publiko berdea**

*Uste dugu erosketa publiko berdea mekanismo egokia izan daitekeela lege-aurreproiektuak 83. artikuluan jasotzen dituen ingurumen-arloko helburuak lortzeko.*

*Testuinguru horretan, 80. artikulua (Ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritzarako Europar Batasuneko sisteman [EMAS] parte hartzea sustatzeari buruzkoa) betetzeko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuak proposatzen du sistema hori erabiltzea kontratazio publikoko prozeduretan; hori ikusita, uste dugu garrantzitsua dela hau esatea: EMAS sistemak onarpen handia du, eskakizun-maila berezia duelako, baina badira beste ziurtatze-sistema batzuk ere, nazioarteko bermea dutenak, esaterako, ISO sistema, zeina euskal enpresetan zabalduta dagoen, gainera.*

*Bi errealitateak uztartzeko, 83.3 artikuluan klausula bat txertatzea proposatzen dugu, zeinetan jasoko den kontratazio publikoko prozeduretan ziurtatzeko eta ingurumen-kudeaketako sistema horiek sartu behar direla, EMAS sistema, adibidez, eta sistema horiek duten eskakizun-mailaren arabera ebaluatu behar direla prozeduran.*

EMAS sistema eta kontratazio publikoarekin duen lotura Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuaren 80.2 e) artikuluan dago jasota.

Hitzez hitz adierazten da administrazio publikoek neurriak hartu behar dituztela, xede honekin: kontratazio publikoko prozeduretan sistemara (EMAS) atxikitzeko irizpidea txertatzea, sektore publikoko kontratuen arloko araudiak ezarritakoaren arabera.

Halaber, gogorarazi nahi dugu Europako EMAS araudiak horrelako estandarrak lehentasunez sustatzera behartzen dituela administrazio publikoak, arau pribatueta

jasotako ingurumen-kudeaketako sistemak sustatu beharrean, zeinak, orain arte, ez diren EMAS sistemaren baliokideak.

Era berean, artikuluaaren xede den erosketa publiko berdea ez da zehazki erakunde barruan ingurumen-kudeaketako sistema egotea, baizik eta birziklatzetik, balioztatzetik eta berrerabiltzeko prestatzetik datozen hondakinak merkatuan sartzea, eta EMAS araudiko prozedurek ez dute hori ebaluatu behar; horregatik, egindako eskabidea ez da egokia artikulua honetarako.

*Bestalde, xedapen berean jasotzen da erabiliko diren azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien eta abarren ehunekoak adierazi behar direla kontratazio publikoko administrazio-klausulen eta klausula teknikoen orrietan, eta % 40 ezartzen da erabileraren gutxieneko ehunekotzat, bidezko arrazoi teknikoak egon ezean. Batzorde honek ez daki zergatik ezarri den % 40 izan behar dela kontratazio publikoko oinarrietan materialen erabilerari buruz adierazi beharreko ehunekoa, kontuan hartuta errealitatea askotarikoa dela, legean ehuneko finko bat ezartzea ez dela oso errealista eta erregelamenduz gara daitekeela dauden kasuetara eta aurrerapen teknologikoetara hobeto egokitzeko.*

Arautzeko teknika dela-eta, uste dugu erosketa publiko berdearen garapen zehatza ondorengo araudi bidez erregulatu behar dela. Hain zuzen ere, agindu edo erregelamendu horietan ehuneko hori egokitu ahalko da dauden kasuetara; alabaina, pentsatu dugu beharrezkoa dela lege % 40ko gutxienekoa ezartzea, zeina, askotariko kasuak egon daitezkeela onartuta, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik murriztu ahalko den.

### **87. artikulua.- Ingurumeneko boluntarioritza**

*Zehaztapen hau proposatzen dugu: administrazioak ingurumenaren arloan ingurumena babesteko eta hobetzeko sustatuko dituen interes orokorreko jarduerak figura horren araudi espezifikoan zehaztutakoak soilik izango dira.*

*87.1. artikulua: EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, herritarrek borondatezko ekintzetan parte hartzea sustatuko du, ingurumena babesteko eta hobetzeko interes orokorreko jardueretan, ekainaren 25eko 17/1998 Legean (Boluntarioritza buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera, **baldin eta ekintza horiek benetan borondatezkoak badira, horiei buruzko berariazko araudian ezarritako baldintzetan.** Horretarako, kontserbazio-jarduerak gauzatzeko programak diseinatuko dituzte, Lege honen arabera.*

Ezin dugu onetsi alegazioa, argi baitago benetan sustatzen dena borondatezko ekintzak direla, are gehiago, berariaz aipatzen baita ekintza horiek ekainaren 25eko 17/1998 Legean (Boluntarioritza buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera arautzen direla.

### **89. artikulua.- Ingurumen-arloko lankidetzak-erakundeak eta 92. artikulua.- Ingurumen-ikuskaritzako jardura gauzatzea**

*Uste dugu beharrezkoa dela:*

- Zioen azalpenean eta Zazpigarren Tituluan (Ingurumen Ikuskaritza) egiaztapen, baliozkotze, kontrol eta ikuskaritzako jarduketak gauzatzeari buruz erabilitako teknologien heterogeneotasuna konpontzea; horretarako, argi eta garbi ezartzea,

*batetik, Ingurumen-arloko Lankidetzako Erakundeen esku hartzeko eremua eta, bestetik, administrazio publikoetako funtzionarioena.*

Zioen azalpena aldatu dugu eta, Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak eskatu duen moduan, argitu dugu ingurumeneko zaintza eta ikuskaritza administrazio publikoaren zerbitzupeko langileek egin dezaketela zuzenean, bai eta, horiek eskatuta eta horien izenean, ingurumen-arloko lankidetzako erakundeek ere.

- *Argi eta garbi mugatzea zer zeregin dakartzan berekin ingurumen-arloan ahalmen publikoak gauzatzea edo, 92.1 artikulua arabera, «beste egoera batzuegatik» ez dakartzan berekin, eta ingurumen-arloko elkarlaneko erakundeek horiek egiteko salbuetsita dauden eta administrazio publikoen zerbitzupeko langileek zuzenean egin behar dituzten.*

89. artikulua 2. zenbakiak dagoeneko zehazten du zer funtzio bete ditzaketen ingurumen-arloko elkarlaneko erakundeek. Barne hartzen dira dokumentuak baliozkotzea, ingurumen-arloko baimen eta arauetan ezarritako betekizunak betetzen direla *in situ* egiaztatzea eta laginak hartzea. Jarduera horiek guztiak argi eta garbi mugatuta daude eta ingurumen-arloko lankidetzako erakundeek egin ditzakete.

Jasotako alegazioei emandako erantzunetan adierazi dugun moduan, beharrezkoa da mekanismo hori izatea, erakunde pribatuaren elkarlana ahalbidetzeko, nahitaez funtzionario publikoek egitekoak ez direnean, ahalmen publikoak gauzatzea dakartelako berekin, betiere administrazio publikoen babespean eta nahitaezko kontratazio-prozedura egin ondoren. Adibidez, erakunde egiaztatuek ezingo lituzkete otsailaren 20ko 2/1998 Legearen (Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa) 32. artikuluan jasotako kautelazko neurriak hartu.

- *Ingurumen-arloko lankidetzako erakundeen eta administrazio publikoko langileen jarduketak ez daitezela gainjarri bermatzea.*

Administrazio Publikoek eskatzen dituztenez ingurumen-arloko lankidetzako erakundeen jarduketak, beren kabuz jardun ezin dituztelako, oso zaila da bien jarduerak gainjartzea.

### **93. artikulua. Ingurumen-ikuskaritzako akta eta txostena**

*Jardueraren titularrari ikuskaritza-bisitaren txostenaren berri emateko ezarrita dagoen bi hilabeteko epea gehienekoa da, eta hala adierazi behar da arauan.*

**93.4. artikulua:** *Ikuskaritza-bisitaren txostenaren berri emango zaio jardueraren titularrari, bisita hori egin den egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean, **gehienez ere.***

Gure ustez, araua oso argia da zentzu horretan, eta argi geratzen da gehieneko epeaz ari dela, txostenaren berri emateko bi hilabeteko epea dagoela esaten duenean.

### **103. artikulua.- Arau-haustea eta zehapenak**

*Arau-hausteei eta zehapenei buruzko xedapen orokorrean, ez da aipatzen nor den arau-hauste horien egilea. Segurtasun juridikoko arrazoiak direla medio, uste dugu beharrezkoa del arauan arau-hausteen erantzulea nor den zehaztea; horregatik, aurreproiektuaren puntu horretan oinarritzako arauak horri buruz ezartzen duena jarri beharko litzateke.*

Gaiari buruzko estatuko oinarrizko araudiaz gain, EAEn Zehatzeko Ahalmenari buruzko Lege Orokorra dago, hots, otsailaren 20ko 2/1998 Legea, zeina EAEko lurraldean zehatzeko ahalmena duten erakunde guztiek aplikatu behar duten. Arau horretako 8. eta 10. artikuluetan, legez kontrako administrazio-egintzen erantzuleak, egiletasuna eta erantzuleak nor diren erabakitzeko prozedura arautzen dira; horregatik, uste dugu ez dela egokia ingurumeneko lege sektorial batean sartzea zehapenei buruzko lege zehatz batek dagoeneko arautu dituen alderdi horiek.

#### **104. artikulua.- Arau-hausteen tipifikazioa**

*Ikusi dugunez, nahitaezko ingurumen-baimena lortu gabe proiektu bat gauzatzen hastea arau-hauste oso astuntzat jotzen da aurreproiektuan. Alabaina, jarduera horren ondorioz ingurumenari kalte egin eta pertsonen segurtasuna, osasuna edo ondasunak arriskuan jarri direnean jarduera horrek duen astuntasun-plusa ez da berariaz idatzita geratu aurreproiektuan, ez eta dagokion erantzun juridikoa ere.*

Jendaurreko informazioaren fasean aurkeztutako zenbait alegaziori erantzunez, berriz idatzi da 102. artikulua (orain 104. artikulua). Artikulu horretan, arau-hausteak tipifikatu dira, izaera objektiboagoa emateko xedez, hiru kategoriatan (oso astunak, astunak eta arinak), eta zehapenak mailakatzeko esparrura (107. artikulua) bideratu dira Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak aipatutako alderdiak, esaterako, eragindako kalteak edo arriskuak.

Esan behar da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuan bi arau-hauste soilik jotzen direla oso astuntzat, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 55.2 artikuluan honela definitzen dela: «Arau-hauste oso astuna da ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa behar duen proiektu bat egikaritzen hastea, dagokion ingurumen-inpaktuaren adierazpena aldeztu aurretik lortu gabe»; horregatik, kategoria horretan sartu behar da. Beste arau-hauste oso astuna oinarrizko betebeharrak ageriki ez betetzea da (esaterako, IPPC instalazio bat eraikitzea edo ustiatzea, dagokion ingurumen-baimen integratua izan gabe), kutsatzeko ahalmen handia duten instalazioekin lotuta, IPPC instalazioekin, adibidez.

#### **2.6. Hurrengo izapideak.**

Lege-aurreproiektua izapidetzearen ondorengo mugarri gisa, adierazi behar da honako txosten eta irizpen hauek daudela oraindik eskatzeke:

- Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

Prozedurak irauten duen bitartean garrantzia juridikoko informazioa sortzen den heinean, horren argitalpen aktiboa egingo da Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzerako arloaren euskal araudiaren atarian (Legegunea), zehazki, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

Gasteizen, sinatutako datan

**Ingurumen Administrazioaren zuzendaria**  
**Director de Administración Ambiental**

**IVAN PEDREIRA LANCHAS**  
Elektronikoki sinatuta

## I. ERANSKINA. NAHITAEZKO TXOSTENETAN JASOTAKO OHARREI ETA IRADOKIZUNEI EMANDAKO ERANTZUNA.

| LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |               |
|--------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| ARTIKULUA<br>A                       | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                      | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | AUKERA        |
| 1. artikulua.<br>Xedea               | EMAKUNDE                                                                                         | Eskatzen du Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzea txertatzeko xede gisa.                                                                                                                                                                       | Iradokizuna hartzen da eta 1.k) atal bezala gehitzen da.<br><br>k) Ingurumenarekiko jasangarria den garapena bermatzea, Nazio Batuek onetsitako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburuak lortzen lagunduz.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | Onesten da    |
| 2. artikulua.<br>Definizioak         | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Definizioak aurreikustekotan, Estatuko oinarritzko legerian erabilitako termino berberetan jaso behar dira, nahiz eta babes-neurri gehigarriak ezartzen diren. Baliteke horiek Estatukoak baino zorrotzagoak izatea eta, gainera, ez dute eskumenak banatzeko konstituzio-sistema urratzen. | Alegazioan ez da zehazten zeintzuk diren oinarritzko legeriarekin bat ez datozen hasierako testuko definizioak.<br><br>Nolanahi ere, alegatzaileak adierazten duen bezala, definizioak oinarritzko legerian aurreikusitako definizioaren hitzez hitzeko zentzutik bereiz daitezke baldin eta horien irismena argitzen badute eta ingurumen-babeseko neurri zorrotzagoak ezartzen badituzte. Hori da lege-aurreproiektuaren asmoa definizioak oinarritzko legeria sektorial desberdinetan jasotako definizioengandik bereizten diren kasuetarako.<br><br>Halaber, adierazi beharra dago zenbait definizio eranskin espezifiko berri batera helarazi direla (II.G Eranskina), hain zuzen ere, Ingurumen-ebaluazioaren V tituluaren ondorioetarako. | Ez da onesten |

|               |                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |               |
|---------------|-----------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|               | LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA | <p>Aurreproiektuak bere funtsezko printzipioen artean jasotzen du herritarren parte-hartzea politika publikoen diseinuan eta egikaritzapenean. “Publiko interesdunaren” kontzeptua zehazterakoan, 2 q) artikulua Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari lotzen zaio eta hori hedatzen du honako betekizunak betetzen dituzten pertsona juridikoetara:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irabazteko asmorik gabeko pertsona juridikoa</li> <li>- Gutxienez bi urteko antzinatasunarekin eratutakoak</li> <li>- Estatutuetan ingurumena oro har edo horren elementuren bat zehazki babesteko helburuak</li> <li>- Helburuak jarduketako lurralde-eremuan hartutako erabakien menpekoak izateko aukera</li> </ul> <p>Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da aurreproiektuak funtsezko izaera esleitzen diola herritarrek ingurumenarekin lotutako politika publikoen diseinuan eta egikaritzapenean parte hartzeari; horrenbestez, proposamena egiten duen sailak aztertu eta balioztatu beharko du pertsona juridikoei interesduntzat hartuak izateko ezarritako betekizunak proportziokoak diren eta pertsona juridikoen arteko diskriminaziorik eragiten ez duten</p> | <p>Pertsona juridiko interesdunaren kontzeptua Ingurumen gaitan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiatar joateko eskubideak arautzen eta garatzen dituen oinarrizko legeria sektorialean dago oinarrituta, hau da, uztailaren 18ko 27/2006 Legean.</p> <p>Arau horrek 2. artikuluan definitzen ditu kontzeptu hauek:</p> <p>1. Publikoa: edozein pertsona fisiko edo juridiko, baita aplikagarria zaien araudiarekin bat etorritako antolakuntzak, erakundeak eta taldeak ere.</p> <p>2. Pertsona interesdunak:</p> <p>a) Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako edozein inguruabarrean dagoen pertsona fisiko edo juridiko oro.</p> <p>b) Lege honen 23. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten irabazteko asmorik gabeko pertsona juridiko guztiak.</p> <p>Hain zuzen ere, aurreproiektuak hitzez hitz jasotzen ditu arau horren 23. artikuluko betekizunak; hortaz, ez da bidezkoa alegazioa hartzea. Izan ere, diskriminazioa ez eragiteaz gain, erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko ingurumen-interesak dituen hirugarren sektore osoari irekitzen zaio.</p> | Ez da onesten |
| 3. artikulua. | LEHIAREN EUSKAL             | <p>Aurreproiektuak garrantzia handia ematen die jarduera ekonomikoan prozedurak sinplifikatzeari eta oztopoak kentzeari; beraz,</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | <p>Aurreproiektuaren zioen azalpenean adierazten den bezala, hori idazteko, oinarritzat hartu da Europar Batasunak sustatutako</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | Ez da         |

|              |             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |         |
|--------------|-------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| Printzipioak | AGINTARITZA | <p>gomendatzen da legea oinarritzen duten printzipioen artean ezartzeko (3.1 artikulua) arauketa ekonomiko eraginkorraren, beharraren, proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete behar direla.</p> <p>Horrela, printzipio horiek, 3.1 artikuluan jasotako gainerako printzipioek bezalaxe, administrazio publikoen jarduketa-jarraibideak eraikiko lituzkete, baita ingurumena babesteko araudia interpretatzeko irizpideak ere. Adibidez, ingurumen-ebaluazioaren menpeko planak eta proiektuak administrazio publikoetatik datozenean eta jarduera ekonomikoak mugatzen dituztenean, ez lukete soilik ebaluazio hori gainditu beharko, arauketa ekonomiko eraginkorraren printzipioetara ere egokitu beharko lirakeelako.</p> | <p>araudi adimendunaren kontzeptua.</p> <p>Illo horretatik, araua eratzerakoan, arauketa onaren printzipioak jarraitu dira (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua). Horiek xedatzen dute, legegintza-ekimena eta arautzeko ahalmena gauzatzekoan, administrazio publikoek behar, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta eraginkortasuneko printzipioekin bat etorritz jardungo dutela. Lege-aurreproiektuen edo arauketa-proiektuen, hurrenez hurren, kasuaren arabera dagokionari erreparatuta, zioen azalpenean edo sarreran, behar beste justifikatu egingo da printzipio horiekiko egokitzapena.</p> <p>Edonola ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak (3. artikulua. Printzipio orokorrak), ezartzen du administrazio publikoek objektibotasunez erantzuten dietela interes orokorrei eta eraginkortasun, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioko printzipioei jarraiki jarduten dutela, osorik betez Konstituzioa, Legea eta Zuzenbidea. Halaber, artikulua horrek xedatzen du, bere jarduketan eta harremanetan, printzipio hauek errespetatu beharko dituztela:</p> <p>a) Herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea.</p> <p>b) Sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna.</p> <p>c) Administrazio-jarduketan parte-hartzea, eta administrazio-jarduketa hori objektiboa eta gardena izatea.</p> <p>d) Administrazio-prozeduren eta kudeaketako jarduera materialen</p> | onesten |
|--------------|-------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|

|                                       |          |                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |            |
|---------------------------------------|----------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
|                                       |          |                                                                                                                                                                                                                                                | <p>arrazionalizazioa eta bizkortasuna.</p> <p>e) Fede ona, konfiantza legitimoa eta leialtasun instituzionala.</p> <p>h) Finkatutako helburuak efikaziaz betetzea.</p> <p>i) Ekonomia, nahikotasuna, eta baliabideak helburu instituzionaletara zorrotz egokitzea.</p> <p>j) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.</p> <p>k) Administrazio publikoen arteko lankidetzak, elkarlana eta koordinazioa.</p> <p>Azaldutakoagatik, ez da beharrezkotzat jotzen 3. artikuluan beren-beregi gehitzea administrazio publiko guztiek nahitaez bete behar dituzten printzipio hauek, alegatzaileak proposatzen duen bezala</p> |            |
| 5. artikulua.<br>Pertsonen eskubideak | EMAKUNDE | Eskatzen du aipamen hau gehitzeko: ingurumen egoki batez gozatzeko eskubideak, adierazpen-edukiaz harago, neurriak eskatzen ditu, hain zuzen ere, baldintza-berdintasunean gozatu ahal izateko ingurumenaz, bai gizonezkoek, bai emakumezkoek. | <p>Nahiz eta pertsonen kontzeptua guztiz ulerkorra den, Emakunderen proposamena onartzen da eta testua honela idatzita geratzen da:</p> <p>“Ingurumen egokiaz gozatzeko baldintza-berdintasunean, gizonezkoak edo emakumezkoak diren gorabehera”.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | Onesten da |

| BIGARREN TITULUA. INGURUMEN-POLITIKAREN ESKUMENAK ETA KOORDINAZIOA |                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                        |               |
|--------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| ARTIKULUA                                                          | ALEGATZAILEA                                                      | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                  | AUKERA        |
| 8. artikulua.<br>Administrazio publikoek eskumena gauzatzea        | EMAKUNDE                                                          | Gomendatzen da honako hau jasotzeko: administrazio publiko desberdinek, berezkoak dituzten eskumenak gauzatuz, beharrezko bitartekoak arbitratuko dituzte ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraio bideko politikek eta programek genero-ikuspegia txertatzen dutela bermatzeko. Besteak beste, kontuan hartuko dituzte pertsonen segurtasunarekin, etxeko lana egitea erraztearekin eta pertsonak zaintzearekin eta norberaren, familiaren eta laneko bizitza bateratzearekin lotutako gaiak, baita politika eta programa horien diseinuan eta egikaritzapenean emakumezkoen parte-hartze handiagoa sustatzera bideratutakoak ere. | Ez da beharrezkotzat jotzen ingurumeneko lege sektorial batean hori jasotzea; izan ere, bertan arautzen dena administrazio-prozedurak eta esku hartzeko teknikak dira, hain zuzen ere, ingurumenean eragina duten jardueren gainekoak. | Ez da onesten |
| 9. artikulua.<br>Ingurumeneko Esparru-programa                     | EMAKUNDE                                                          | Sailean berdintasun-politikak sustatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den administrazio-unitatearen aholkularitza aditua edukitzeko gomendatzen da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | Ekarpena positiboki balioztatzen da eta mekanismoak arbitratuko dira plangintzako dokumentuen idazketarako adierazitako administrazio-unitatearen aholkularitza edukitzeko.                                                            | Azalpenekoa   |
|                                                                    | INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN | Adierazi du, horren egungo arauketarekin ez bezala, Ingurumeneko Batzordeak horren inguruko informazioa eman beharko dion arren, azken horren lankidetzaz baztertzen dela dokumentua egiteko prozesutik.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | Edonola ere, ez da Ingurumeneko Batzordearen lankidetzaz baztertzen Ingurumen-planaren eraketatik; izan ere, hori lege-aurreproiektuaren 10.2 c) artikuluan jasotako txosten espezifikoaren bidez gauzatzen da.                        | Ez da onesten |
|                                                                    |                                                                   | Adierazi du, artikulua egungo idazketaren arabera, ematen duela                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | Ez da argi geratzen oharraren zentzua.                                                                                                                                                                                                 | Ez da         |

|                                                  |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |               |
|--------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|                                                  | ZUZENDARITZA                                                                                     | ingurumen-planaren xede bakarra dela ingurumenaren hobekuntza, baina, egia esan, hori tresna bat da helburuak eta lehentasunak ezartzeko; horregatik, idazketa hori berrikusteko iradokitzen da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | onesten       |
| 10. artikulua.<br>Ingurumene<br>ko<br>Kontseilua | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Sailaren asmoa da kide anitzeko organo bakar batean biltzea orain arte eremu hauetan eskumenak dituzten kide anitzeko 3 organoei agindutako eginkizunak –Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea, Ingurumen Aholku Batzordea eta Naturzaintza-; beraz, abian dauden araudi-aurreproiektuen idazketak koordinatu beharko dira (Ingurumen-administrazioaren Legea eta LPNE legea), zehazki, onespén-hurrenkeraren arabera aurreikuspenekin bat etorritik.</p> <p>Lehenengo onesten den aurreproiektua arduratu beharko da organoa sortzeaz eta horren funtsezko arauketa ezartzeaz. Horrez gain, geroko aurreproiektuak sortutako organoari erreferentzia egiten dion idazketa jaso beharko du eta, hala badagokio, eskumen zehatzak esleitu beharko dizkio bere eremu material zehatzaren barruan. Gainera, onesten den bi testu horietako lehenengoak horren inguruko berariazko xedapen iragankor bat jaso beharko du.</p> | <p>Aurreproiektuak otsailaren 27ko 3/1998 Legeak sortutako Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera eta eginkizunak aldatu nahi ditu, kontsultarako eta administrazio publikoen eta interes sozialak eta ekonomikoak ordeztzen dituzten sektoreen arteko lankidetzarako organo gisa eratuz, hain zuzen ere, ingurumen-politiken eraketan, kontsultan eta segimenduan. Hain zuzen ere, legeak Euskal Herriko Ingurumen Batzordea baztertzeko du, horren eginkizunak kontseiluaren berezko eginkizunetan integratuz.</p> <p>Argitasun gehiago emate aldera, zioen azalpena eta 10.1 artikulua hasiera aldatzen dira.</p> <p>Ez da bidezkoa lege-aurreproiektu honetan xedapen gehigarria egitea oharrean azaldutako terminoetan. Hala eta guztiz ere, aurreproiektuaren d) atala ezabatzen da legeria sektorial espezifikoan aratu beharreko espazio babestuekin lotutako proiektuak direlako.</p> | Ez da onesten |
|                                                  |                                                                                                  | Gomendatzen da kontseiluaren eginkizunen artean gehitzeko honako hau: “batzordean ordeztutako erakundeek ingurumenaren eremuan garatutako jarduketak guztien gaineko segimendu-ataza egokiak burutzea”.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | Artikuluaren testuak ez du aukera hori debekatzen beren-beregi aurreikusten ez duen arren, kontuan hartuta lankidetzako organo bat dela. Hala ere, ezerk ez du eragozten eskatutako gomendioa gehitzea kontseiluaren eginkizunetan. 10.2 e) atal bezala gehitzen da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | Onesten da    |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                               |
|--|--|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                               |
|  |  | <p>Ingurumeneko Kontseilua lankidetzako-argano bezala eratzen da; beraz, ez da ulertzen zergatik baztertu den beste administrazio publiko batzuek horri ingurumenarekin lotutako txostenak eta proposamenak igortzeko eskatu ahal izateko aukera, hain zuzen ere, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 13.b) artikuluan jasotzen den bezala, non egungo Ingurumeneko Aholku Batzordearen eginkizunak zerrendatzen diren.</p>                                                                                                                                                                                                                         | <p>Jotzen da ez dela inola ere baztertu aukera hori.</p> <p>Hala, 10.2 artikuluan jasotako “horren azterketaren menpekoea da” adierazpena oso idazketa irekia da, edozein administrazio publiko gaitzen duelako.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | <p>Ez da onesten</p>          |
|  |  | <p>Justifikazio-memorian ez denez organoaren sorrera garatzen ezta justifikatzen ere, ez da argi geratzen horren egokitasuna kontsulta-argano bezala. Hortaz, kalifikatzaile hori ezabatzeke edo araudi-aurreproiektuari erantsitako dokumentazioan behar bezala justifikatzeko iradokitzen da. (...)</p> <p>Bestalde, horren kide anitzeko organoaren izaera ondorioztatzen da horren eraketatik eta osaeratik. Kontu horri Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Aurretiatzeko Tituluaren II Kapituluaren hirugarren atalean ezarritako araubide espezifikoak aplikatu beharko litzaioke. (...)</p> | <p>Hain zuzen ere, 10. artikulua hitzez hitzeko edukiak, Ingurumeneko Kontseilua sortzen dela adieraztean, akats bat eragin dezake organo horri dagokionez.</p> <p>Organoa ez da <i>ex novo</i> sortutako organotzat hartzen; are gehiago, proposamena egin duen sailaren asmoa da egun existitzen den Ingurumeneko Aholku Batzordea finkatzea (otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 12. artikulua) eta bertan biltzea baztertu nahi diren eta beste organo batek gauzatzen zituen eginkizunak: Euskal Herriko Ingurumen Batzordea.</p> <p>Hortaz, testua hobetu da, adierazteko egungo Ingurumeneko Aholku Batzordeaz ari dela eta eginkizunei egindako zenbait erreferentzia ezabatzeke, hau da, gaia dela-eta, beste kontsulta-argano batzuek burutu ditzaketan eginkizunei egindakoak.</p> | <p>Partzialki onesten da.</p> |

|  |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                       |
|--|---------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|
|  |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | <p>Era berean, aipatu behar da kontseiluak ez diola kontsulta-organoa izateari uzten, horrela definitzen ez den arren. Izan ere, bere eginkizunen zerrendan ikusten den bezala, nagusiki, kontsultakoak eta txostenak eta proposamenak igortzekoak dira.</p> <p>Argi dago ez dela ebazteko eskumenak dituen organo bat.</p>                                    |                       |
|  | <p>HERRI<br/>ADMINISTRAZIOET<br/>AN HIZKUNTZA<br/>NORMALIZATZEKO<br/>ZUZENDARITZA</p> | <p>Aurreproiektuaren 10. eta 11. artikuluetan Ingurumen Kontseilua eta bere osaera arautzen dira.</p> <p>Kontseilukideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein Kontseiluko gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko efikazia eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea Legean bertan edo alor honi buruzko bere garapenean:</p> <p>Kontseiluko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialean nahikoa gaitasun edukitzea eta gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatuko da. Kontseiluko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialeko edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Kontseiluak horrela erabakitzen badu bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi</p> | <p>Nahiz eta alegazioaren azken helburuekin ados egon, Lege mailak duen arau-testu batean txertatzea ez da komenigarritzat jotzen. Ildo horretatik, izapidetzen ari den Lege-aurreproiektua indarrean jarri ondoren erregelamendu bidez garatzeko eman beharreko arauak aztertu eta, hala izanez gero, arau horietan txertatu beharko dira aspektu horiek.</p> | <p>Ez da onartzen</p> |

|                                                                   |                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |
|-------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|                                                                   |                                                         | hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |
| 11.<br>artikulua.<br>Ingurumene<br>ko<br>Batzordeare<br>n osaera. | EMAKUNDE                                                | Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gogorarazten da, Ingurumen Kontseiluaren osakeran, gaikuntza, eskumen eta trebakuntza egokiak dituzten emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua bermatu beharra dagoela.                                                                                                                                                                                                                          | Onesten da eta aurreproiektuaren 11. artikulua 2. atala aldatzen da alegazioaren zentzuan:<br><br>Araudiaren arabera zehaztuko da Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaketa, kideak izendatzeko prozedura, emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuz, eta horren oinarritzko antolakuntza- eta funtzionamendu-arauak. | Onesten da    |
|                                                                   | FUNTZIO<br>PUBLIKOKO<br>ZUZENDARITZA                    | Aurreproiektuaren 11.2 artikulua ezartzen du araudiaren arabera xehatuko direla Ingurumeneko Batzordearen osaketa, kideak izendatzeko prozedura eta horren oinarritzko antolakuntza- eta funtzionamendu-arauak. Araudi-garapena egin arte itxaron behar da aurreko alderdien berri emateko, baita, hala badagokio, batzordearen kideentzako konpentsazio ekonomikoen berri emateko ere. Zehazki, konpentsazioak Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitakoak izango dira. | Azalpenekoa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | Azalpenekoa.  |
| 12.<br>artikulua.<br>Ingurumen-<br>informazioa                    | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA | Definizio hau definizioen inguruko artikuluan hobeto kokatuta egongo litzateke sistematikoki.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | Jotzen da, tituluaren eta horren arauketaren argitasun gehiago emate aldera, ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidearen edukia aipatutako 12. artikuluan zehaztu behar dela.                                                                                                                                              | Ez da onesten |
|                                                                   | SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA                   | Bigarren paragrafoak oinarritzko uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 8. artikuluan aurreikusitako ingurumenaren egoeraren inguruko txostenak gehitzen ditu.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | Hori horrela izan arren, ezerk ez du eragozten hori erkidego-mailako lege batean aurreikustea.                                                                                                                                                                                                                                | Ez da onesten |

|                                                                       |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |               |
|-----------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|                                                                       |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |               |
| 13.<br>artikulua.<br><br>Ingurumen-<br>informazioar<br>en<br>hedapena | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Faltan botatzen da aurreproiektuaren 12.2 artikuluan aurreikusitako ingurumenaren egoeraren inguruko txostenak gehitzea, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 7. artikulua aurreikusten dituen.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | Aurreproiektuaren 13.1.a) artikulua idazketak horrelako txostenak hartzen ditu barne. Era berean, 12.2 artikulua beren-beregi ezartzen du txosten hori argitaratzeko betebeharra. Horrenbestez, argitaratzen bada, hedatutzat ematen da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | Ez da onesten |
| 14.<br>artikulua.<br><br>Ingurumen-<br>informazioar<br>en eskaera     | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Lege-aurreproiektuak ez du definitzen zer hartu behar den agintaritza publikotzat; horregatik, interpretazio-arazoak sor daitezke, artikulua horren bigarren paragrafoan, “informazioa duen Euskal Herriko edozein administrazio organo edo agintaritza eskuduna” aipatzen delako. Antza, termino horrek ez ditu barne hartzen zuzenbide publikoko korporazioak eta gainerako pertsona fisikoak edo juridikoak, indarreko legeriaren arabera, eginkizun publikoak betetzen dituztenean, besteak beste: notarioak eta jabetzako, merkataritzako eta ondasun higikorren erregistratzaileak. Hala ere, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak beren-beregi definitzen du kontzeptu hori (2.4.1.d artikulua). | Hain zuzen ere, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 2.4.1 artikulua xedatzen du nortzuk izango duten agintaritza publikoaren izaera arau horren ondorioetarako. Modu zabalean, xedatzen du honakoek izango dutela izaera hori: gobernuak; administrazio publikoak eta horien menpeko edo horiei lotutako zuzenbide publikoko erakundeak; kontsultako organo publikoak; zuzenbide publikoko korporazioak eta gainerako pertsona fisikoak edo juridikoak eginkizun publikoak egikaritzen dituztenean, notarioak eta jabetzako eta merkataritzako erregistratzaileak barne, eta, ondorio eta irismen mugatuekin, pertsona fisikoak edo juridikoak erantzukizun publikoak hartzen dituztenean bere gain, eginkizun publikoak gauzatzen dituztenean edo ingurumenarekin lotutako zerbitzu publikoak ematen dituztenean aurretik aipatutako edozein erakunde, organo edo antolakuntzaren agintaritzapean. Artikulua zentzu horretan aldatzen da. | Onesten da    |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                      |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | <p>Aurreproiektuaren 14.1 artikulua berak haxe xedatzen du: “Ingurumen informazioaren eskaerak ingurumen gaietako informaziorako sarbide eskubideei buruzko Zuzentarauan eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko bere transposizio arauan xedatutako bermeekin eta horiekin bat etorria izapidetuko dira”. Horrela, blokean jotzen da bertan xedatutakora; beraz, interpretazio-arazoak saiheste aldera, egingo diren erreferentziak agintaritza eskudunari egingo zaizkio, <i>estricto sensu</i> administrazio publiko bat izan daitekeena edo ez.</p> |                      |
|  |  | <p>14. artikulua hirugarren paragrafoak hilabeteko epea ezartzen du eskaera jasotzen denetik edo bi hilabeteko epea baldin eta eskatutako informazioa bolumen edo konplexutasun handikoa bada, hain zuzen ere, agintaritza publiko eskudunak eskatutako informazioa eman dezan edo hori uka dezan dagokion arrazoiak emanez. Horrela, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 legearen 18.4 artikuluan xedatutakoaz bereizten da, bi hilabeteko gehieneko epe bakarra ezartzen zuena.</p> | <p>Gogorarazi behar da oinarritzko 27/2006 Legeak hilabeteko epea ezartzen duela. Gainera, ezerk ez du eragozten autonomia-erkidego mailako lege berri batek egokiagotzat jotzeko autonomia-erkidegoko aurreko beste lege batean ezarritakoaren epe desberdin bat, batez ere kontuan hartuta azkenengoa onetsi zenetik igarotako denbora.</p>                                                                                                                                                                                                               | <p>Ez da onesten</p> |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                               |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
|  |  | <p>14. artikuluauren laugarren paragrafoak berriz ere jotzen du ingurumen gaietako informaziorako sarbide eskubideei buruzko Zuzentaraura eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko bere transposizio araudira, zehazki, informazioa ukatzeko arrazoiak zehazte aldera. Hain zuzen ere, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 13.3 artikulua xedatzen du artikulua horren 1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitako ingurumen-informazioa emateko betebeharraren salbuespenak aplikatu ahalko direla lege horren II Tituluaren II kapituluaren aurreikusitako hedatzeko betebeharre dagokienez.</p> <p>Komeni litzateke aurreproiektuaren 14. artikuluan antzeko aurreikuspen bat gehitzea, hau da, kasu horietan hedatzeko betebeharra baztertzen duena.</p> | <p>Administrazioak, aipatutako arrazoi horietako batengatik, informazioaren bat ez hedatzea erabakitzen badu, hala badagokio, bidezkoa izango da interesa duen pertsonak hori eskatzea eta, orduan, eskaera hori ukatzean, beren-beregi aurreikusitako ukatzeko arrazoi horietakoren bat eman liteke.</p> <p>Jotzen da informazioa hornitzeko aurreikusitako salbuespenak aplikatu ahalko direla titulu honen II kapituluaren aurreikusitako hedapen-betebeharre dagokienez. Horretarako, zuzendaritzak gomendatutako erreferentzia gehitzen da 13.2 artikuluan.</p> | <p>Partzialki onesten da.</p> |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|

|                                                   |                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                        |                               |
|---------------------------------------------------|-----------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| <p>15. artikulua.<br/>Ingurumen parte-hartzea</p> | <p>EMAKUNDE</p> | <p>Prozesu parte-hartzailea emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatuz burutu behar da, baita genero-ikuspegia eta kolektiboen eta egoeren aniztasuna kontuan hartuz ere.</p> <p>Zenbakizko orekaz harago, garrantzitsua da ingurumenean eragin dezaketen gaien inguruko erabakiak hartzeko eremu desberdinetan emakumeek eta gizonek dituzten parte hartzeko gaitasunarekin eta aukerarekin lotutako balizko desberdintasunak kontuan hartzen dituzten estrategiak garatzea ere bai.</p> <p>Halaber, gerora ebaluazioa eta segimendua egiteko asmoarekin, gomendatzen da zehazteko beharrezkoa dela parte-hartzearen inguruko datuak sexuaren arabera bereizita biltzea, baita egindako proposamen-tipologiaren arabera ere.</p> | <p>Egokitzen jotzen da alegazioa partzialki hartzea eta haxe gehitzea 15.2 artikuluan: “Prozesu parte-hartzailea genero-ikuspegia aintzat hartuz burutu behar da”.</p> | <p>Partzialki onesten da.</p> |
|---------------------------------------------------|-----------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|

| LAUGARREN TITULUA. INGURUMENEAN ERAGITEN DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA         |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |               |
|-------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK                                               |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |               |
| ARTIKULUA                                                                     | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | AUKERA        |
| 19. artikulua.<br>Baimenduta ko jarduerak hasteko epeak                       | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | 19. artikuluan ezarritako baimen-araubideen menpeko jarduerak hasteko aurreikusitako luzapenei dagokienez, adierazi behar da epeen luzapena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan araututa dagoela. Horren arabera, ezin dira inola ere luzatu iraungitako epeak eta luzapen horrek ezingo du inoiz gainditu horien erdia (hori adierazten du 19.4 artikulua). | Berez, ez da alegazioan aipatutakoak bezalako prozeduren legeko epeen luzapena. Izan ere, epe horiek <i>ex lege</i> ezarri dira baimendutako jarduerak abian jartzeko edo horien funtzionamendua hasteko; horrela, baimenaren klausulak edo txostenaren edukia indarrean mantentzen dira epe horretan zehar. Epea igarotakoan, baimena edo adierazpena iraungiko da. Arrazoizko epeak ezarri dira, nahiz eta eztabaidagarriak izan daitezkeen. Hala ere, aurreikuspen hori komuna da esku hartzeko teknika hauek arautzen dituen ingurumeneko legeria sektorialean. | Ez da onesten |
| 22. artikulua.<br>Ingurumen esku-hartzeko araubideen eta ingurumen-eraginaren | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioak baimen-araubide desberdinekin integratzeko dagokionez, neurri hori goraipatzekoa da herritarrek burutu beharreko izapideak sinplifikatzen dituelako. Hala ere, ez du behar bezala garatzen integrazio hori.                                                                                                                                                                                       | Testuaren artikuluetan bertan azaltzen da kasu bakoitzean nola egin behar den integrazioa.<br><br>Ez dugu uste integrazio hori ez denik behar bezala garatu. Edonola ere, ohar horrek ez ditu justifikatzen baieztapen horiek eta, horregatik, iritzi subjektibotzat hartu behar da.                                                                                                                                                                                                                                                                                | Ez da onesten |

|                                                     |                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                        |
|-----------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
| ebaluazioaren konkurrentzia                         |                                                                                | Adierazten da “ingurumen-eraginaren adierazpena loteslea izango dela tokiko agintaritzarentzat”; hala ere, arauaren 2.e artikulua ingurumen-eraginaren adierazpena definitzen du txosten lotesle bezala. Iradokitzen da aipatutako esaldia ezabatzeko errepikakorra delako.                                                                                                                                                                                         | Jotzen da argigarriagoa izango dela aurreproiektuaren 22. artikuluan ere jasotzea ingurumen-eraginaren adierazpenaren izaera loteslea.                                                                                                                                                                                                                         | Ez da onesten          |
| 23. artikulua. Administrazio Publikoen betebeharrak | INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA | Proiektuaren justifikazio-memorian ez denez beren-beregi aipatzen, ez da ulertzen 23. artikuluan islatutako beharra, hau da, administrazio publikoei gogorarazteko titulu honetan araututako ingurumen esku-hartzeko prozeduretan jardun dezaten, araudi-testuaren beste atal batzuetan edota beste lege batzuetan eta araudi aplikagarrietan islatutako kontuekin lotutako betebeharrak.                                                                           | Ezerk ez du eragozten, beste ingurumen-arau askok egiten duten bezala, sustatzaileei eta administrazio publikoei dagozkien betebeharrak gogoraraztea. 45 CE artikulutik eratorritako agindu bat da.                                                                                                                                                            | Ez da onesten          |
| 24. artikulua. Sustatzaileen betebeharrak           | INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA | Idazketak soilik aurreikusten du sustatzaileek betebeharra dutela l Eranskinaren A eta B ataletako jardueren eta instalazioen transmisioaren berri emateko baina ez C eta D ataletakoen transmisioaren berri emateko.                                                                                                                                                                                                                                               | Onesten da zehaztea, udalei dagokienez, A, B, C eta D ataletako jardueren transmisioaren berri emateko betebeharra.                                                                                                                                                                                                                                            | Partzialki onesten da. |
|                                                     |                                                                                | Transmisio horien berri emateko eginkizuna betebeharrak bat da transmisioa egiten duenarentzat baina hautazkoa da titular berriarentzat. Hortik iradoki daiteke 102.2.d) artikuluan aurreikusitako arau-hausle mota soilik dagokiola transmisioa egiten duenari. Hala ere, administrazio-zuzenbide zehatzailearen eremuan mugitzen garelarik, argitasuna eta segurtasun juridikoa sustatze aldera, iradokitzen dugu modu zehatzean ezartzeko hori aurreproiektuaren | Alegazio hau eta zehapen-araubideari buruzko beste batzuk kontuan hartuz, idazketa berria eman zaio aurreko 102 d) artikuluari; hain zuzen ere, gehitu da udalari transmisioa ez jakinaraztea zeha daitekeela, aurreproiektuan aurreikusitako komunikatzeko, jakinarazteko eta informatzeko betebeharrak lege kontrako orokor berri bat artikulatzen zaielako. | Partzialki onesten da. |

|                                                                |                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                               |
|----------------------------------------------------------------|------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
|                                                                |                                    | <p>102. artikulua 2. paragrafoaren d) letran.</p> <p>Azkenengo aurreikuspen horren edukia lotu behar da aurreproiektuaren 27.2 artikuluan xedatutakoarekin; izan ere, horren arabera, titular berriak ez badio dagokion titulua eman dion edo aurretiazko jakinarazpena jaso duen administrazio eskudunari jakinarazten baimena, lizentzia edo komunikazioa behar duten jardueren edo instalazioen transmisioa, solidarioki erantzungo du transmisioa egin duenarekin dagozkion betebeharren eta erantzukizunen gainean, hain zuzen ere, jakinarazpena egin arte. Horrela, bere ondorio juridikoei dagokienez, 24.e) artikuluan jasotako titular berriak komunikazioa egitearen ahalmenezko izaera erlatibizatu egiten da. Bestalde, artikulua horren 1. paragrafoan, begi bistakoa den bezala, 24 e) artikuluan xedatutakoa aurkatzen da eta aipatutako transmisioa jakinaraztea nahitaezkoa dela adierazten da, dirudienez, I Eranskinaren C eta D ataletako jarduerak gehituz eta jakinarazpenaren hartzailea aldatuz. Kasu honetan, ez dira izango EAEko ingurumen-argazki eta udala, baizik eta gaikuntza-titulua ematen duen edo aurretiazko jakinarazpena jasotzen duen administrazioa. Desadostasun horiek zuzendu behar dira.</p> | <p>Bestalde, jotzen da 27. artikulua argia dela transmisioa jakinarazteko betebeharrari dagokienez. Hala ere, 24.e) artikuluan atal hau gehitu da:</p> <p>(...) Betebehar hori transmisioa egiten duenari dagokio, titular berriak transmisioa komunikatzen duen edo ez gorabehera.</p>                                    |                               |
| <p>25. artikulua.</p> <p>Gaitasun tekniko eta erantzukizua</p> | <p>LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA</p> | <p>Gomendatzen da 25. eta 63. artikuluetan erreferentzia sinplea egitea ingurumen-ebaluazioaren dokumentazioa egiteko “teknikari eskudunari”; hala, alde batera utziko dira aurretiaz instalatutako operadoreek zerbitzu horien prestaziorako sarbidea mugatzeko erabili ahaliko lituzketen araututako tituluei edo lanbideei egindako</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | <p>Beste interesdun batzuek egindako alegazioei emandako erantzunen ildo beretik, alegazioa partzialki hartzen da eta aurreproiektuaren testua aldatzen da, trebakuntza profesionalen inguruko arauarekin bat etorriz, gaitasun tekniko nahikoa duten pertsonen soilik egiteko erreferentzia. Goi-mailako hezkuntzaren</p> | <p>Partzialki onesten da.</p> |

|                                                                 |                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                 |            |
|-----------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| na                                                              |                                                                                                   | <p>erreferentziak.</p> <p>Horrez gain, hori bat etorriko zen aurreproiektuak berak 47. eta 53. artikuluen idazketan erabilitako araudi-teknikarekin; zehazki, horiek soilik egiten diote erreferentzia teknikari eskudunari jardueraren hasierako komunikazioaren kasuetan. Era berean, bat etorriko litzateke ingurumen-ikuskapeneko langileei buruzko 89. artikulua eskaintzen duen idazketarekin; horrek gaitasun teknikoaren duten pertsonen edo erakundeen aitortzen dizkie, ahalmen publikoak gauzatu behar izanagatik edo bestelako egoerengatik, funtzionario publikoei soilik gordetzen ez zaizkien ikuskapeneko jarduketara materialetarako ahalmenak.</p> <p>Bestalde, ebaluazioaren dokumentazio teknikoaren egilea identifikatzeko beharra positiboki balioztatu behar da, beharrezkoa dena horien independentzia zehazteko, baita horiei legozkiekeen erantzukizunak zehazteko ere.</p> | erreferentzia kentzen da.                                                                                                                                                       |            |
| 28. artikulua.<br>Jarduera<br>uztea eta<br>instalazioa<br>ixtea | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA. | 28. artikulua 1. paragrafoan administrazio eskuduna aipatzen da eta 2. paragrafoan, aldiz, baimena ematen duen administrazioa. Beraz, ez da argitzen bi kasuetan administrazio bera ote den.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | Arauaren asmoa da administrazio bera aipatzea, bi kasuetan baita baimena ematen duen administrazioa. Proposatutako hobekuntza onesten da eta, horrenbestez, testua aldatzen da. | Onesten da |

**LAUGARREN TITULUA. INGURUMENEAN ERAGITEN DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA**

**II. KAPITULUA INGURUMEN-BAIMENAK**

**III. KAPITULUA INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUAREN ETA BAKARRAREN XEDAPEN KOMUNAK**

| ARTIKULUA                      | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | AUKERA     |
|--------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 34.<br>artikulua.<br>Zuzenketa | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Artikuluaren azken paragrafoak ez du aintzat hartzen Espainiako Konstituzioaren 149.1.18. <sup>a</sup> artikuluaren arabera egindako Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.3.b) artikuluan 22.1.a) artikuluari dagokionez xedatutakoa. Zehazki, horrek Estatuari esleitzen dio, beste alderdi batzuen artean, administrazio prozedura erkidea arautzeko eskumena. Horrela, bi prozedurak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea, hau da, sei hilabeteko epea eten ahalko da edozein interesduni errekerimendua egin behar zaionean akatsak zuzentzeko edo dokumentuak eta bestelako beharrezko judizio-elementuak aurkezteko. Hain zuzen ere, eten ahalko da errekerimenduaren jakinarazpena egiten denetik eta hartzaileak hori benetan bete arte edo, bestela, emandako epean zehar eten ahalko da. Hala ere, horrek ez du esan nahi eskaeraren aurkezpenaren datatzat har daitekeenik zuzenketa egiten den data. Horregatik, kontuan hartu beharko da eskaera administrazioaren edo izapidetzeko eskumena duen organismoaren erregistro elektronikoan sartu den data. | Aurkeztutako alegazioa onartzen da eta artikuluaren azkenengo esaldia kentzen da.<br><br>Artikulua termino horietan idatzi zen Ingurumen-ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean aurreikusitako eskemari jarraiki. Zehazki, horrek ahalbidetzen du ingurumen-organoak erantzuteko epeak edukitzea espediente osoa jasotzen denetik, hau da, zuzenketaren ostean, hala balegokio. Aukera hori estrapolatzearekin, osatu gabeko eskaeren aurkezpena saihestu nahi zen, horien azterketa denboran luza daitekeelako. Era berean, saihestu nahi zen pentsatzea sustatzaileak duela epe horien errua. | Onesten da |

|                                                                                                                     |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                      |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| <p>36. artikulua.</p> <p>Udal-txostena</p> <p>Ingurumen-baimen Integratuaren eta Bakarraren menpeko jardueretan</p> | <p>INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</p> | <p>Adierazi du zalantzak dituela honen inguruan: ordezkapen horrek bere izapide guztietan barne hartzen ote duen salbuespen hori udalak sailkatutako jardueraren lizentzia emateari dagokionez.</p> <p>Argi dago egokiagoa izango zatekeela oinarrizko legeak sailkatutako jardueren lizentzia behin betiko baztertu izana ingurumen-baimen integratuaren menpekoak ere diren jardueren kasuetan, betiere udalaren parte-hartzea bermatuko balitz hori emateko prozeduran. Izan ere, hori guztiz estaltzen da Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateraturako Legearen testu bateginaren 15. artikuluan aurreikusitako hirigintza-txostenarekin eta 18. artikuluan aurreikusitako txosten honekin: “aztertutako instalazioa bere eskumenekoak diren alderdi horietara guztietara egokitzeari buruzko txostena”.</p> <p>Ematen du hori dela lege-aurreproiektuaren asmoa sailkatutako jarduera-lizentziaren prozeduraren izapide guztiak aipatzerakoan, nahiz eta ez duen hori modu eztaba daezinean egiten. Horregatik, zalantza berriak argitze aldera eta etorkizunean sor daitezkeen bestelako zalantzak azaltze aldera, uste dugu hau aukera ona dela behin betiko argitzeko kontu hori. Zentzu horretan, iradokitzen dugu 36. artikuluan 1. paragrafoan gehitzeko erreferentzia bat udalak lizentzia ematearen izapideari, hori baztertzeko. Zehazki, honela jasoko da:</p> <p><i>“1. Ingurumen baimen integratuaren edo ingurumen baimen bakarraren prozedurak ordezkatu egingo du jarduera sailkatuaren lizentziaren prozedura izapide guztietan, hala badagokio, udal-</i></p> | <p>Oharraren parte handi bat azalpenekoa besterik ez da.</p> <p>Hain zuzen ere, ingurumen-baimen integratuaren edo bakarraren menpeko jardueretan, aurreproiektuak jo du ez dela beharrezkoa sailkatutako jardueraren udal-lizentzia. Hala ere, udalak esku hartu dezake baimen horiek emateko prozeduran, zehazki, bertan aurreikusten diren nahitaezko txostenen bitartez.</p> <p>Erabaki da instalazio horiei sailkatutako jarduera-lizentziarik ez eskatzea, ingurumen-alderdiei dagokienez, nahikoa delako ingurumen-baimen integratuarekin edo bakarrarekin. Mantendu izan balitz, udalen “egintza mekaniko” bat bikoiztuko zatekeen, beharrezko egintza batera.</p> <p>Aukera hori bat dator Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen azkenengo aldaketekin (84 bis 3 artikulua ikusi); horrek, beharrezkoak ez diren izapideak saiheste aldera, hauxe adierazten du: tokiko erakunde baten eta beste administrazio baten artean elkarturiko lizentziak edo baimenak egotekotan, tokiko erakundeak beren-beregi arrazoitu beharko du baimenaren edo lizentziaren beharraren justifikazioan babestu nahi den interes orokor zehatza eta, horrekin batera, arrazoitu behar du dagoeneko existitzen den beste baimen batek ez duela hori babesten.</p> <p>Aurreproiektuak erabaki du lizentzia hori ez ematea; hala ere, horrek ez du inola ere esan nahi udalak baimena emateko prozeduratik baztertuta geratzen direnik. Izan ere, baimena eman aurretik, espedientera bi udal-txosten gehitu beharra dago.</p> | <p>Ez da onesten</p> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p><i>agintaritzaren behin betiko ebazpena barne.”</i></p> <p>Nolanahi ere, uste dugu, udalei ingurumen-baimen integratuaren edo bakarraren menpeko jardueren kasuan sailkatutako jardueren lizentzia behin betiko ebazteko eskumena kentzeak ez lukeela tokiko autonomia urratuko. Lehenik eta behin, ez luke hori urratuko udalak lizentzia ukatzea ebazteko aukera izaten jarraituko duelako, baldin eta bere irizpena ingurumenekoak ez diren eta bere eskumenekoak diren bestelako arazoietan oinarritzen bada, adibidez, hirigintza-arazoietan. Bigarrenik, hori uste dugu, eremu honetan tokiko boterearen murrizketa soilik gertatuko litzatekeelako I.A eta I.B eranskinetan aurreikusitako jarduera eta instalazio desberdinetarako; hain zuzen ere, jarduera eta instalazio horiek ez dute nukleorik garrantzitsuena osatzen, ezta ugariena ere, zeinen gainean udalak bere iritzia adierazi beharko duen.</p> | <p>Lehenik eta behin, informazio publikoko izapidearen aurretik, hirigintza-bateragarritasuneko txostena igortzen da, eskatzaileak erantsi behar duena baimen-eskaerarekin batera eta, bigarrenik, udalak berak aurkeztu beharko du hori informazio publikoko entzunaldian.</p> <p>Gure aburuz, artikulua hitzez hitzeko zentzua argia da eta ez dago zalantza zentzudunik jarduera-lizentziaren prozeduraren izapide guztiak, ingurumen-organoaren behin betiko ebazpena igortzea barne, exijitzeko modukoak izateari utziko diotela lege-aurreproiektua indarrean sartzean.</p> |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

**LAUGARREN TITULUA. INGURUMENEAN ERAGITEN DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA.**

**IV. KAPITULUA. SAILKATUTAKO JARDUERARAKO LIZENTZIA**

| ARTIKULUA                                                             | ALEGATZAILEA                                                                                        | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | AUKERA                 |
|-----------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
| 51. artikulua.<br>Neurri<br>zuzentzaileen<br>ezarpenaren<br>txostena. | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Lege-aurreproiektu honen Lehenengo Azken Xedapenak ezartzen duen Lurralde Historikoen legearen berariazko aldagetaren ondorioz, neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena tokiko administrazioen eskumena izatera pasatzen da kasu guztietan eta araudi-proiektuaren 51.1 artikuluekin bat etorritik: <i>“10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena eskatu beharko diote dagokion Foru Aldundiko ingurumen eskumenak dituen organoari. Txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da; oztopatzailea bada, jarduera ingurunearekin bateragarria izateko eska daitezkeen ingurumeneko neurri zuzentzaileak jasoko ditu.”</i></p> <p>Artikuluaren idazketari dagokionez, berrikusteko iradokitzen da, bere idazketa ez delako argi geratzen. Izan ere, ez da alderdi hori justifikatzen proiektuaren justifikazio-memorian. Kontuan hartuta indarreko 3/98 Legeak ezartzen duela neurri zuzentzaileen txostena <i>“loteslea izango dela bai udal-agintaritzarentzat jarduera-lizentzia ematearen kontrakoa denean eta bai neurri zuzentzaileak ezartzeko premia dagoela erabakitzen duenean”</i>, ez da argi geratzen 51.1 artikulua txostenaren izaera loteslea ezartzen duen, oztopo bat izatekotan edo kasu guztietan. Bestalde, Espainiako Errege</p> | <p>Txostena kasu guztietan izan behar da loteslea, bai eragozpenak jartzen baditu, bai aldekoa bada eta neurri zuzentzaileak ezartzen baditu.</p> <p>Nahiz eta “obstativo” terminoa Espainiako Errege Akademian jasota dagoen (“obstar” aditzetik dator; horri gehitzen zaio “-ivo, -iva” atzizkia, “gaitasuna edo zerbaitetarako balio duela” adierazten duena. Formula hori adjektiboak eta substantiboak osatzeko erabiltzen da, aditzak sortzeko deribazio bidez). Hortaz, hori ezabatzea komeni da, okerrak eragin ahalko lituzkeelako.</p> | Partzialki onesten da. |

|                                                                                              |                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |               |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|                                                                                              |                                                                                                     | Akademiaren hiztegia kontsultatu da eta, bertan, ez da “obstativo” terminoa agertzen.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |               |
| 52. artikulua.<br>Jarduera-<br>lizentziaren<br>emakida.                                      | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Lege-aurreproiektuaren 52. artikulua ezartzen du udalak lizentzia ematea edo ukatzea ebatzi beharko duela eta hori jakinaraziko duela 4 hilabeteko gehieneko epean, zehazki, eskaera dokumentazio osoarekin aurkezten denetik.</p> <p>Aztertu behar da (...) urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoa.</p> <p>Hortaz, kontuan hartuta prozeduraren eremuan gaudela (Estatuko legegilearen eskumen eskusiboa), <i>dies a quo</i> deritzona dokumentazioa igortzea aurreikusten denean hasia ezartzea ez dator bat zuzenbidearekin.</p>                                                                                                                                      | <p>Bidezkoa da onestea, <i>dies a quo</i> dokumentazioa osorik dagoenean ez egiteko eskakizunari dagokionez.</p> <p>Erreferentzia hori ezabatzen da 52.1 atalek.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | Onesten da    |
| 53. artikulua.<br>Saikaturako<br>jardueraren<br>hasieraren edo<br>irakuraren<br>komunikazioa | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Jarduera-lizentzia emateari buruzko 52.3 artikuluan, administrazio-isiltasunaren izaera negatiboa ezartzen da saikaturako jardueren lizentzien eskaeraren kasurako, hain zuzen ere, oro har indarreko 3/1998 Legearen xedatutakoaren aurka: (<i>“Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak edo eskudun foru-organoak kontrako txostena jakinarazi eta delako udalak gauzatu gabe dagoen kasuan izan ezik”</i>).</p> <p>Aldaketa hori zuzenbidera egokituta dago, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.</p> <p>Horrek eskatzen du isiltasunaren izaera negatiboa ezartzeko lege-</p> | <p>Hain zuzen ere, isiltasun negatiboa ezartzen da saikaturako jarduerako udal-lizentziaren menpeko jardueretarako, ingurumenean eta herritarren osasunean izan dezaketen eraginagatik. Are gehiago, kontuan hartzen bada, zerbitzuen zuzentzarauaren transposizioaren ostean, ia-ia kaltegarriak ez diren edo eragin txikiagoko jarduerak asko aurretiazko komunikazioaren menpekoak izatera pasatu zirela. Beraz, lizentzia behar dute eragin handiagoa dutenak. Horrek baztertzeko du isiltasun positiboaren bitartez emateko aukera.</p> <p>Azalpen hau ez da alegazio bat.</p> <p>Dekretua, indarrean sartu zenetik igarotako urteak gorabehera,</p> | Ez da onesten |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                |  |
|--|--|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p>mailako arau batean.</p> <p>Azkenik, sailkatutako jardueren aplikazio-eremuari dagokionez, iradokitzen da aztertzeko bidezkoa ote den beren-beregi indargabetzea Bizilekutarako hiri lurrian ezartzekoak diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzeko arau tekniko orokorrak onartzen dituen 171/1985 Dekretua.</p> | <p>gaur egun erabiltzen jarraitzen da babes-tresna bezala neurri zuzentzaileen ezarpenean.</p> |  |
|--|--|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

| BOSGARREN TITULUA. INGURUMEN-EBALUAZIOA                                                                 |                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| I KAPITULUA. INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN ETA INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIOAREN XEDAPEN KOMUNAK |                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |
| ARTIKULUA                                                                                               | ALEGATZAILEA                                                                                        | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | AUKERA        |
| 59. artikulua.<br>Ingurumen-<br>ebaluazioa                                                              | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | 59. artikuluan ingurumen-ebaluazioaren helburuak jasotzen dira; bertan, 3. paragrafo bat gehitzen da, hauxe xedatzen duena: “Aldaketei aplikatu beharreko erregimena gorabehera, ez dira ingurumen ebaluazioaren menpe jarriko indarrean dagoen administrazio gaikuntzaren bat duten proiektuak”. Kontu hori araubide iragankor baten berezko kontua dela ematen du; beraz, nahiz eta ez den zalantzan jartzen, bere edukiak, koherentziaz, iradokitzen du beste artikulua edo xedapen bat jasotzeko. | Zehazki, 59. artikulua 3. atalean jasotako manua beharrezkoa da atzera eraginezko ondorioak ekiditeko ingurumen-ebaluazioa nahitaezkoa ez zenean baimena edo lizentzia jaso zuten instalazioei ingurumen-ebaluazioa eskatzerakoan. Era berean, ematen du ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazioa egin zitzaion instalazio bati berriz ere egitea ebaluazioa soilik baimen berri bat izapidetu behar izateagatik; adibidez, hori da ingurumen-baimen integratua lortu behar duten instalazioen kasua, arauaren aplikazio-eremua zabaldu delako, nahiz eta aldaketarik egin ez den. Ez da kontu iragankor bat; izan ere, edozein unetan gerta daiteke, baldin eta beste lege-testu baten aldaketagatik baimen-prozedura baten aplikazio-eremua zabaltzen bada. | Ez da onesten |
| 60. artikulua.<br>Ingurumen-<br>ebaluazioko<br>prozedurak                                               | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN                 | Plan, programa eta proiektu horiek ingurumenen ondorio nabarmenak izateko probabilitate-mailaren egokitzapena argi ikusten da a) eta b) letretan, baina ez da c) eta d) letretan garatzen.                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | Oharra hartuta, lege-proiektuaren testu berrian, erabaki da antzeko idazketa ematea planek, programek eta proiektuek ingurumenen ondorio nabarmenak izateko probabilitate-mailari dagokionez.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | Onesten da    |
|                                                                                                         |                                                                                                     | Ohiko prozeduraren menpeko plan, programa eta proiektuen ebaluazioaren irismena ezartzei buruzko e) eta f) letrei dagokionez, proiektuaren justifikazio-memoriak eta arauak berak ez dute argi uzten                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | Irismena prozedura autonomotzat ezartzei dagokionez, adierazi behar da artikulua berriz idatzi egin dela eta aukera hori                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | Onesten da    |

|                                                                                  |                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                              |            |
|----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
|                                                                                  | ZUZENDARITZA                                                                                        | <p>bereizitako prozedurak diren, ingurumen-ebaluazio estrategikoko eta ingurumen-eraginaren ebaluazioko prozeduren aurretiazko izapideak edo jarduketak izan beharrean, hain zuzen ere, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17.1.b) eta 34. artikuluetan jasotzen den bezala, hurrenez hurren.</p> <p>Bestalde, deigarria da prozedura independente bezala zerrendatutako bi prozedura horiek gero artikulua bakarrean garatzea, zehazki, 67. artikuluan.</p> | deuseztatu dela.                                                                                             |            |
| 62. artikulua.<br>Planen<br>deuseztasuna<br>eta ebaluatu<br>gabeko<br>proiektuak | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Hala eta guztiz ere, artikulua tituluar eta edukiari dagokienez, 62. artikulua edukiaren arabera aplikagarria izango bada, plan eta proiektuentzat eta programentzat ere bai, iradokitzen da titulua aldatzeko izendapenaren eta artikulua edukiaren arteko koherentzia mantentze aldera.                                                                                                                                                                 | Onesten da eta manualetan titulua aldatzen da, bere edukiarekin bat etorriz, "programak" terminoa gehitzeko. | Onesten da |
| 63. artikulua.<br>Gaitasun<br>teknikoa eta<br>erantzukizuna                      | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN                 | 63. artikulua Estatuko Ingurumen-ebaluazioaren Legearen 16. artikulua (oinarrizkoa) edukia erreproduzitzen ingurumen-ebaluazioa egiteko dokumentu tekniko egileen gaitasun teknikoari eta erantzukizunari egiten die erreferentzia eta ez du aipatzen beharrezkoa dela dokumentu horietan agertzea amaiera-data eta egilearen sinadura.                                                                                                                   | Oharra hartzen da eta artikulua adierazitako zentzuan aldatzen da.                                           | Onesten da |

|  |                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                        |
|--|-----------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
|  | ZUZENDARITZA                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                        |
|  | LEHIAREN<br>EUSKAL<br>AGINTARITZA | <p>Gomendatzen da 25. eta 63. artikuluetan erreferentzia sinplea egitea ingurumen-ebaluazioaren dokumentazioa egiteko “teknikari eskudunari”; hala, alde batera utziko dira aurretiaz instalatutako operadoreek zerbitzu horien prestaziorako sarbidea mugatzeko erabili ahaliko lituzketen araututako tituluei edo lanbideei egindako erreferentziak.</p> <p>Horrez gain, hori bat etorriko zen aurreproiektuak berak 47. eta 53. artikuluen idazketan erabilitako araudi-teknikarekin; zehazki, horiek soilik egiten diote erreferentzia teknikari eskudunari jardueraren hasierako komunikazioaren kasuetan. Era berean, bat etorriko litzateke horren 89. artikulua idazketarekin.</p> <p>Artikulu hori ingurumen-ikuskapeneko langileei buruzkoa da eta gaitasun teknikoak duten pertsonen edo erakundeen aitortzen dizkie ahalmen publikoak gauzatzeko eskatzeagatik edo bestelako egoerengatik funtzionario publikoen soilik gordetzen ez zaizkien ikuskapeneko jarduketara materialerako ahalmenak.</p> <p>Bestalde, ebaluazioaren dokumentazio teknikoaren egilea identifikatzeko beharra positiboki balioztatu behar da, beharrezkoa dena horien independentzia zehazteko, baita horiei legozkiekeen erantzukizunak zehazteko ere.</p> | <p>Beste interesdun batzuek egindako alegazioei emandako erantzunen ildo beretik, alegazioa partzialki hartzen da eta aurreproiektuaren testua aldatzen da, trebakuntza profesionalen inguruko arauarekin bat etorritik, gaitasun tekniko nahikoa duten pertsonen soilik egiteko erreferentzia. Goi-mailako hezkuntzaren erreferentzia kentzen da.</p> | Partzialki onesten da. |

|                                                                             |                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |               |
|-----------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| 64. artikulua.<br>Konfidentzialtasuna                                       | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Ingurumen-ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 15. artikulua edukia erreproduzitzen da. Bestalde, lege-aurreproiektuaren 26. artikuluan ezarritakoa errepikatzen du, ingurumen esku-hartzeko prozedura guztientzat. Ingurumen-ebaluazioa ingurumen esku-hartzeko prozedura bat denez, artikuluhoriek berrikusteko iradokitzen da, araudi-testuan beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko.                                                                                                                                                                                                                                                                                             | Lege-proiektuaren artikuluek laugarren tituluan jasotzen dute ingurumenean eragiten duten jardueren antolamendua eta, zehazki, 18. artikuluan jasotzen dituzte ingurumen esku-hartzeko araubideak, zeinen artean ez dagoen ingurumen-ebaluazioa.<br><br>Ingurumen-ebaluazioa ingurumena babesteko tresna bat da, aurretik aipatutako ingurumen esku-hartzeko araubideetatik bereizten dena; zehazki, lege-proiektuaren bosgarren tituluan dago araututa.<br><br>Hori guztia hala da nahiz eta beharrezkotzat jo den sustatzaileek emandako informazioen konfidentzialtasunari buruzko arauketa garatzea, antzeko moduan bi kasuetan. | Ez da onesten |
| 65. artikulua.<br>Ingurumen-ebaluaziotik baztertutako planak eta programak. | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA<br>ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Nabarmentzekoa da automatikoki baztertzen dituela legearen aplikaziotik xede bakar bezala babes zibila duten proiektuak eta hori ez da beren-beregi islatzen Estatuko oinarritzko legerian. Gauza bera gertatzen da 65. artikulutik plan eta programa hauek baztertzen direnean: <i>“Plan, programa eta proiektu edo horien aldaketetatik erator daitezkeen ekintzen tamaina eskasa dela eta, ingurumenean sortitzaketen efektuak ez direnean nabarmenak argi eta garbi”</i> .<br>(...)<br><br>Bi artikuluek, antzekoak izan arren, ez dute gauza bera esan nahi. Lehenik eta behin, lege-aurreproiektuan kontraesan bat dago, zehazki, artikulua tituluan eta edukian. Tituluan soilik aipatzen dira | Zuzendutako akats terminologikoak alde batera utziz, ohar honek jasotako beste alegazio batzuen eduki berbera dauka eta horiei termino hauetan erantzun zaie.<br><br>Atal honen hasieran azaldutako aurretiazko gogoetetan argudiatu den bezala, ingurumen-ebaluazioa ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen planei, programei eta proiektuei aplikatzen zaie, bai ziurra denean ondorio horiek eragingo direla (probabilitate-maila altua), bai ziurgabetasuna dagoenean (probabilitate-maila zehaztugabea). Aitzitik, ez da aplikatu beharke ziurra denean ondorio horiek ez direla eragingo (modu argian).               | Ez da onesten |

|  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |  |
|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  | <p>ingurumen-ebaluaziotik baztertutako planak eta programak eta artikuluan, aldiz, proiektuez hitz egiten da.</p> <p>Horrez gain, artikulua adierazten du ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar dela eta hori soilik da bidezkoa planen eta programen kasuan, hau da, ez zaie bestelako ingurumen-ebaluazioko prozedurak egin behar dituzten proiektuei egiten.</p> <p>Batetik, “<i>prozedura aplikatzeak defentsa nazionalako edo babes zibileko helburuen gainean ondorio negatiboak eragin ahal izatearen</i>” baldintza ezartzen du, hain zuzen ere, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremutik baztertzeko planak, programak eta proiektuak, horien helburu bakarra denean defentsa nazionala edo babes zibila larrialdi-kasuetan.</p> <p>Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-organoa gaitzen du hauxe egiteko: <i>irizpideak ezarri ahal izango ditu zehazteko plan edo programa batek edo plan edo programa baten aldaketa batek izan ditzakeen efektuak zer egoeratan har daitezkeen ez direla izango nabarmenak ingurumenean</i>. Estatuko legegileak, aldiz, soilik xedatzen du proiektuen gaineko bazterketa hori bakarrik egin ahalko dela salbuespenezko kasuetan eta arrazoitutako akordioaren bidez, zehazki, lege-aurreproiektuaren 66. artikuluan jasotzen den bezala.</p> <p>Aurretik esan dugun bezala, ingurumena babesteko oinarritzko legeria estatuaren eskumen eskusiboa denez, konstituzio-doktrinak soilik onartzen du autonomia-ahalmena “babeseke neurri gehigarriak ezartzeko”.</p> <p>Babeseke neurri gehigarri hauei dagokienez, Konstituzio Auzitegiak berriz ere nabarmendu du autonomia-erkidegoek soilik handitu</p> | <p>Kontzeptu horien zehaztapena jasota dago horiek II. Eranskinetako proiektuen zerrenda bikoitzarekin lotzean (zuzenean edo zeharka).</p> <p>Plan, programa edo proiektu zehatz bat ingurumen-ebaluazioaren aplikazio-eremuaren barne ez dagoela jotzeko funtsezko irizpidea hauxe da: modu ziurrean, hau da, zalantzarik gabe, ez dagoela inolako aukerarik ingurumenean ondorio nabarmenak eragiteko. Irizpide horren izaera dela-eta, ez da koherentea prozedura bat ezartzea kontu hori zehazteko; izan ere, prozedura substantiboa izapidetu behar duenaren organo desberdinen esku-hartzea dakarren beste izapiderekin bat beharrezkoa izango balitz, afektazio nabarmenik ezaren ustea ez litzateke ziurra izango.</p> <p>Aitzitik, zalantza bat badago planak, programak edo proiektuak ingurumenean ondorio nabarmenak izateko aukeraren inguruan, gai horren inguruko oinarritzko legeriak ezarri du ebaluazio sinplifikatuko prozedura jarraitu behar dela, lege-proiektuan jasotzen den bezala.</p> <p>Hori guztia gorabehera, sakontzeko asmorik gabe, gerta daiteke kasu zehatzen batean, hau da, ingurumen-organok Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan izandako esperientzian zehar, ingurumenean ondorio nabarmenak izateko probabilitatea ondo ezaguna izatea eta oso murrizta ere bai.</p> <p>Bestalde, lege-proiektuak erabaki du gutxiengora murriztea prozedura-xehetasunak, are gehiago ingurumen-ebaluazioa hirigintza-tresnen eremura soilik mugatuta ez dagoelako.</p> |  |
|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|                                                           |                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                  |
|-----------------------------------------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|
|                                                           |                                   | <p>dezaketela oinarrizko arauaren babes-maila; hau da, ezin dute inola ere maila hori murriztu (Konstituzio Auzitegiaren 156/95 Epaia, zehapenetan, Konstituzio Auzitegiaren 89/00 Epaia Ingurumen-eraginaren Ebaluazioaren formuletan, Konstituzio Auzitegiaren 109/2017 Epaia Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren salbuespenengatik edo Konstituzio Auzitegiaren 196/1996 16/1997 Epaia). Horrez gain, ezingo dute maila hori ezeztatu (Konstituzio Auzitegiaren 15/98 Epaia) edo oinarrizkoak debekatzen duen komertzializazio bat baimenduz (zehazki, Konstituzio Auzitegiaren 166/2002 Epaia).</p> <p>Aurretik azaldutako guztiagatik, eskatzen da 65. artikulua berrikusteko eta, hala badagokio, hori aldatzeko.</p> | <p>Bestalde, eta gai honetako oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera, zenbait proiektu salbuesteko aukera jaso da; hain zuzen ere, ingurumen-ebaluazioaren aplikazio-eremuan egon arren, hautazko prozedura egin ahal zaien proiektuak salbuesteko aukera jaso da (bestelako ebaluazio-formak). Horrenbestez, lege-proiektuan jasotzen den araudi-testuak argi bereizten ditu legeak berak “aplikazio-eremutik baztertutakotzat” jotzen dituen kasuak beste kasu batzuegandik, hau da, aplikazio-eremu horren barruan egon arren, ebaluazio-prozeduratik “bazter daitezkeen” kasuegandik. Azken bazterketa hori kasu bakoitzean adostu behar da eta proiektuen salbuespenezko kasuetarako soilik erreserbatzen da, hain zuzen ere, hasiera batean legearen aplikazio-eremuaren barne sartutakoak eta beste ebaluazio-formaren bat egin ahal zaizkienak.</p> <p>Laburbilduz, jotzen da lege-aurreproiektuak ez duela 21/2013 Legearen aplikazio-eremua mugatzen, baizik eta hori zehazten eta argitzen.</p> <p>Azkenik, “planak eta programak”, “proiektuak” eta “ingurumen-ebaluazio estrategikoa” terminoen erabileran antzemandako akatsak zuzendu egin dira.</p> |                  |
| 66. artikulua.<br>Ingurumen-<br>ebaluaziotik<br>salbuetsi | LEHIAREN<br>EUSKAL<br>AGINTARITZA | <p>Hala eta guztiz ere, aurreproiektuaren 66.1 artikulua hauxe ezartzen du: Salbuespenezko kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak salbuetsi egin ahal izango du, akordio arrazoitu bidez, lege honetan araututako ingurumen inpaktua ebaluatzeko</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | <p>Informazio publikoko fasean artikulua honi buruz jasotako zenbait alegazioen eduki bera dauka; beraz, zentzu berean erantzun behar zaio: ezetsi behar da.</p> <p>Nolanahi ere, egoera batzuetan, administrazio publikoek balizko</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | Ez da<br>onesten |

|                                                                |                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |               |
|----------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| daitezkeen proiektuak                                          |                                                                                | <p>prozedura aplikatzeko II. eranskinean jasotako proiekturen bat. Horrek esan nahi du administrazio publikoak hautazko erabakia hartu beharko duela eta, horrekin, gerta liteke operadore ekonomikoak desberdin tratatzea.</p> <p>Ondorio hori saiheste edo arintze aldera, gomendatzen da ebaluazioa egiteko betebeharretik salbuetsi daitezkeen proiektuen kategoriak (ez guztiak) zehazteko. Horrez gain, edonola ere, motibazioa interes orokorreko arrazoieta oinarritu behar da eta ezin da ingurumenaren babesa inoiz zalantzan jarri.</p>                                                                                             | <p>konponbide desberdinen artean aukera dezakete (hautaketak egiteko aukera) eta egitate hori legez onargarria da. Hala, jarduketa publikoan nahitaez saihestu behar dena arbitraltasuna da.</p> <p>Zentzu honetan, alegatutako operadore ekonomikoen arteko ustezko tratu-desberdintasun horretan, ez litzateke arbitraltasunik egongo. Izan ere, hori kasu zehatz bakoitzaren analisi espezifikoan oinarrituta egongo litzateke eta erabaki desberdinak hartzea eragingo luke, baina guztiak zuzenbidearen arabera.</p> |               |
| 69. artikulua. Desadostasun en ebazpena                        | INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA | Desadostasunak ebazteari buruzko 69. artikuluari dagokionez, lege-aurreproiektuaren 2. artikulua ezartzen du, bai ingurumen-adierazpen estrategikoa, bai ingurumen-eraginaren adierazpena, nahitaezko txosten lotesleak direla. Beraz, deigarria da ingurumen-organismoaren eta organo substantiboaren arteko desadostasun-kasuan, hain zuzen ere, ingurumen-eraginaren adierazpenaren edo txostenaren edukiaren inguruan, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak edo, hala badagokio, Foru Aldundiak ematea ebazpena. Iradokitzen da aztertzeko bidezkoa den manua mantentzea, kontuan hartuta adierazpenak eta txostenak lotesleak direla. | <p>Oharra hartzen da eta, horrenbestez, lege-aurreproiektuak bateraezintzat hartuko du ingurumen-erabakiaren izaera loteslea desadostasunen izapidetzearekin.</p> <p>Manua kentzea erabakitzen da.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | Onesten da    |
| 71. artikulua. Ingurumen-ebaluazioko prozeduran interesa duten | EMAKUNDE                                                                       | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, beharrezkoa izango da bertan sexuaren aldagaia gehitzea; horrela, gerora, sexuaren arabera bereizitako datuak bildu eta ustiari ahalik dira, hain zuzen ere, emakumeek eta gizonezkoek prozedura horietan parte                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | Beharrezkotzat jo da lege-proiektuak zehaztea interesdun guztiak ez direla erregistratu beharko, baizik eta soilik Ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 23.1 artikuluan adierazitako betekizunak betetzen                                                                                                                                                                                                    | Ez da onesten |

|                             |                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                        |                      |
|-----------------------------|-----------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| pertsonen erregistroa       |                             | hartzeari buruzkoak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | dituzten irabazteko asmorik gabeko pertsona juridikoak. Pertsona fisikoak ez direnez, alegazioa ezin da aintzat hartu.                                                                                                                                 |                      |
| Artikulu espezifikorik gabe | LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA | <p>Administrazio publikoa ingurumen-ebaluazioaren menpeko plan, programa eta proiektu desberdinen sustatzailea izan daiteke. Ebaluatu beharreko dokumentazioaren artean dago ingurumen-azterlana (estrategikoa edo ohikoa); bertan, plan edo proiektu bat aplikatzearen ondorioz sortzen diren edo sor daitezkeen balizko ondorio nabarmenak aztertu behar dira.</p> <p>Administrazio publiko eskudunak azterlan horren idazketa kontratatzen badu ukitutako merkatuko operadore ekonomikoekin, lehiakortasun askea sustatu beharko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearekin bat etorritik eta, ahal izatekotan, prozedura irekia baliatuz.</p> <p>Gogoeta berdina egin behar da ingurumen-administrazio eskudunak merkatuko operadore ekonomikoekin kontratatzen duenean ingurumen-eraginaren txostenaren idazketa.</p> | <p>Esposizio-alegazioa.</p> <p>Zalantzarik gabe, administrazio publikoek bere jarduketa antolatu beharko dute Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren arabera, zehazki, horren arabera eska daitezkeen kontratazio-prozedurak erabiliz.</p> | Esposizio-alegazioa. |

| BOSGARREN TITULUA. INGURUMEN-EBALUAZIOA                             |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |               |
|---------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| II. KAPITULUA PLANEN ETA PROGRAMEN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |               |
| ARTIKULUA                                                           | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | AUKERA        |
| 72. artikulua.<br>Ingurumen-ebaluazio estrategikoa ren eremua       | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | 72. artikulua ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremua zehazten du eta ezartzen du, edonola ere, plan edo programa bat idazteko eskaera lege-xedapen edo araudi-xedapen batek egin behar duela edo, bestela, Gobernu Kontseiluaren akordioaren bidez eska daitekeela. Zentzu horretan, gogorarazi behar da hirigintza-planeamendua lege- edo araudi-xedapenek babesten dutela, eskatu beharrean, eta inola ere Gobernu Kontseiluaren bidez. Hortaz, bidezkoa da artikulua horren idazketa berrikustea.<br><br>Paragrafo honetan, Ingurumen-ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Oinarrizko Legearen 10. artikulua aipatu beharra dago. Horrek hauxe ezartzen du: “Ingurumen-adierazpen estrategikoa, ingurumen-txosten estrategikoa, ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo ingurumen-inpaktuaren txostena lege ezarritako epeetan ez egitea ez da inolaz ere joko aldeko ingurumen-ebaluazioaren baliokidetzat”. | 21/2013 Legeak termino berberak jasotzen ditu ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremua ezartzeko. Lege-aurreproiektua idazteko, erabaki da interpretatzea “eskatuta” terminoak ez duela esan nahi lege- edo araudi-xedapen batek berez behartzen duenik plan edo programa bat egitera. Izan ere, horrek esan nahi du, plan edo programa bat egiteko erabakia hartutakoan, eskakizun bat egongo dela plana edo programa benetan burutzeko eta onesteko lege- edo araudi-xedapen bati jarraiki.<br><br>Ez da ulertzen, testuinguru honetan, zuzendaritzak 21/2013 Legearen 10. artikuluari egindako erreferentzia. | Ez da onesten |

|                                                                                      |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                      |
|--------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| <p>73. artikulua.</p> <p>Ingurumen-adierazpen Estrategiko aren izaera eta edukia</p> | <p>INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</p> | <p>Artikulu honen hirugarren paragrafoa ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldiari buruzkoa da eta indarraldia luzatzeko eskatzeko aukera aurreikusten du: “araudiak ezartzen dituen terminoetan”.</p> <p>Araudi-garapenera igortzearen kontua 74.3 artikuluan ere aurreikusten da, zehazki, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuko prozeduretako ingurumen-txosten estrategikoaren indarraldia luzatzeko eskaerari dagokionez. Halaber, hori aurreikusten da 75. eta 76. artikuluetan, ingurumen-eraginaren adierazpenen eta txostenen indarraldia luzatzeko eskaerei dagokienez.</p> <p>Zentzu horretan, gogorarazi behar da epeen luzapena oinarritzko izaerarekin araututa dagoela Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 32. artikuluan: “1. Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie.</p> <p>(...) 3. Epea igaro baino lehen egin behar du interesdunak epea luzatzeko eskaera, eta epearen barruan hartu behar da hari buruzko erabakia ere. Inoiz ez da luzatuko amaituta dagoen epe bat. Epeak luzatzeari edo hori ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.”</p> | <p>Manu honetan arautzen dira jadanik emandako ebazpenen iraungitzeko epeak eta ez prozedurak izapidetzeko epeak; beraz, ezin da Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 74. artikulura jo.</p> <p>Bestalde, 21/2013 Legearen eskumen-tituluarekin bat etorritik, 27. artikuluan ezarritako epeak ez dira oinarritzkoak.</p> <p>Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 32. artikuluan xedatutakoari dagokionez, adierazi behar da hori aplikagarria dela prozedura bat ebazteko ezarritako epeen luzapenarentzat. Kontuan hartuta ingurumen-adierazpen estrategikoa prozedurari amaiera ematen dion ebazpen bat dela, ezin da inola ere berdinu horren indarraldia izapidetzeko epeekin.</p> <p>Edonola ere, hausnarketa garrantzitsua egin da honen inguruan: oinarritzko legerian jasotako testuen edukietako zein erreproduzitu behar da nahitaez lege honen testuan. Aurretik adierazi den bezala, zentzu horretan, funtsezko hiru irizpide erabili dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurumena babesteko arau gehigarriak txertatzea.</li> <li>- Interpretazio okerrak eragin ditzaketan 21/2013 Legearen zenbait alderdi argitzea.</li> <li>- Autonomia-erkidegoko araua egunean ez egotea saihestea, baldin eta etorkizunean 21/2013 legea aldatzen bada.</li> </ul> <p>Hausnarketa horren ondorioz, zenbait artikulua gehitu dira:</p> | <p>Ez da onesten</p> |
|--------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                  |  |
|--|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p>Era berean, Ingurumen-ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen Zortzigarren Azken Xedapenaren arabera, oinarritzko izaera dute, bertan ezarritako epeei dagokienez izan ezik, lege beraren 27., 31., 43. eta 47. artikuluek, zehazki, ingurumen-adierazpen estrategikoari, ingurumen-txosten estrategikoari eta ingurumen-eraginaren adierazpen eta txostenei dagokienez.</p> <p>Aurreko guztiagatik, gomendatzen da V Titulua zehatz-mehatz berrikusteko, besteak beste, Ingurumen-ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean oinarritzko izaerarekin ezarritako erreproduzitu behar den kasuak xehatzeko eta ezartzeko ingurumen-ebaluazioarekin lotutako zein gai garatu behar den benetan araudian.</p> | <p>72. artikulua berria. Informazio publikoa eta kontsultak.</p> <p>Proiektuen ingurumen-ebaluazioari buruzko 75. eta 76. artikulua berriak.</p> |  |
|--|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

| SEIGARREN TITULUA. INGURUMEN-HOBEKUNTZA SUSTATZEKO TRESNAK                                                               |                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |               |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| ARTIKULUA                                                                                                                | ALEGATZAILEA                                                                                      | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | AUKERA        |
| 77.<br>artikulua.<br><br>Ingurumen-akordioak                                                                             | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA  | Eskatzen da akordioen definizioa gehitzeko 2. artikuluan eta definizio hori idazteko proposamen bat aurkezten du.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | Proposatutako definizioa onesten da eta administrazio publikoak gehitzen dira akordio baten bi aldeetan.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | Onesten da    |
| 78.<br>artikulua.<br><br>Parte-hartzea<br>sustatzea<br>ingurumen-auditoretzen eta kudeaketak o erkidego-sisteman (EMAS). | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA. | <p>Aurreproiektuak ez du aurreikusten sistema honek (EMAS) sortutako kontrol-betebeharren betetzea justifikazio bat izan daitekeen IV Tituluaren III Kapituluan aurreikusitako ingurumen-baimenen berezko kontrol-betebeharrek betetzearekiko. Hala ere, beste autonomia-erkidego batzuetako araudiek hori aurreikusten dute, adibidez, Aragoiko Ingurumen-babes eta Prebentzioko abenduaren 4ko 11/2014 Legeak.</p> <p>Gainera, ingurumen-baimen integratuaren eskaeraren edukian ez da aurreikusten, ezta ingurumen-baimen bakarraren eskaeraren edukian ere. Hala, aurreikuspen-gabezia hori ez dator bat aurreproiektuaren 3.2 artikuluan aurreikusitako administrazio kargen arintasun, prozedura sinplifikazio eta murrizketa printzipioekin.</p> | <p>Ez da beharrezkotzat jotzen lotura zorrotzagoa ezartzea baimenen kontrolaren eta EMAS sistemaren artean.</p> <p>Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sisteman ezarritako autokontrolak administrazioaren ikuskapena ordeztuko eskatzea gehiegi da, baita lege-betebeharren edo gaikuntza-tituluetan jasotako betebeharren betetzearen justifikazio osoa izan dadin eskatzea ere.</p> <p>EMAS sistemak administrazio-izapideak sinplifikatzeko balio du, baina hori onura bezala erabiltzea haztatu behar da eta ez orokorrean erabili. Edonola ere, alegatzen den aukera jasotzen da lege-aurreproiektuaren artikuluetan [aurreproiektuaren 78.2.d) artikulua ikusi].</p> | Ez da onesten |

|  |                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                               |               |
|--|------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|  |                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | Manu hori ez da guztiz zehatza eta zehaztugabetasun hori gauzatu egin da neurri zehatz desberdinetan, besteak beste, aurreproiektuaren 42.3 artikuluan aurreikusitakoan.                      |               |
|  | OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.<br>KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEA | <p>Kontuz ibili beharko da aipatutako Ingurumen-administrazioaren Legearen aurreproiektuaren 78. artikuluan adierazitako derrigortasunarekin; izan ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legetik ondorioztatzen den bezala, EMAS aipatzea hautazkoa da eta kaudimen teknikoko betekizunak eskatu ahalko dira, hain zuzen, ingurumen-kudeaketako beste arau batzuekin bat etorritz. Halaber, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen baldintzen pean, ziurtagiriak eta baliokide diren bestelako neurketa-frogak aitortu ahalko dira.</p> <p>Ingurumen-kudeaketako bestelako sistema batzuetara zabaltzen da eta hori lehiakortasun askeko printzipioan oinarritzen da. Hau da, kontratazio-prozeduretan parte hartzeko aukera ezin dute mugatu lege honen edo beste baten arabera guztiz nahitaezkoak eta eskusiboak ez diren eskakizunek. Printzipio hau Europar Batasuneko Zuzenbidearen kontratazioaren eremuko printzipiorik oinarritzkoenatarikoa denez, batzorde honek uste du ezin dela hori urritu kaudimena egiaztatzeke sistema bakar bat eskatzearen alde. Hortaz, iradokitzen du aurreproiektuaren 78. artikulua 1. atalaren e) letraren testua modulatzeko, honako proposamena jasoz, hitzez hitz:</p> <p>“e) Kontratazio publikoko araudiak kaudimen teknika edo profesionala Europar Batasuneko kudeaketako erkidego-sistemei eta ingurumen-auditoretzako sistemei edo bestelako froga-</p> | <p>Ukertzen dugu, jatorrizko idazketak (78.2.e artikulua) alegazioaren zentzua edo xedea jasotzen duela; izan ere, sektore publikoko kontratuen araudian ezarritakora jotzen du zuzenean.</p> | Ez da onesten |

|                                                                   |                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |
|-------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|                                                                   |                                                                                | bitarteko baliokideei erreferentzia egiten dieten ziurtagirien aurkezpenarekin egiaztatzea ahalbidetzeko aukera kontuan hartzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |
| 79. artikulua.<br>EBko etiketa ekologikoaren erabilera sustatzea. | OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.<br>KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEA         | Alegatzaileak etiketei buruzko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 127. artikulua aipatzen du. Gero, hauxe adierazten du: “Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aukera ematen du (berriz ere, aukera da eta ez betebeharra) etiketak eskatzeko -besteak beste, berariaz nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin lotutakoak- kontratazio-prozeduretan, hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legeak berak ezartzen dituen betekizun espezifikoari jarraiki. Hau da, etiketa ekologikoak ezin dira horren arabera eskatu, baina kontratazio-organoaren aukera izango da hori egin nahi duen edo ez esatea. Hortaz, aurreproiektuaren 79. artikulua 2. atalaren c) letraren idazketa proposatzen da, honela:<br><br>“c) Kontratazio publikoko prozeduretan etiketa ekologikoaren erabilera txertatzeko, betiere sektore publikoaren kontratuei buruzko araudiak gai honen inguruan finkatzen duenari jarraiki.” | Gure ikuspegitik, aurreproiektuan aurreikusitako hasierako idazketa guztiz bateragarria da sektore publikoko kontratuen inguruko araudian adierazitakoarekin. Izan ere, hitzez hitz, aipatzen duena da kontratuen inguruko araudi horrek ezarritakoaren arabera sustatu beharko dela etiketa ekologikoaren erabilera.                                                                                                                                                         | Ez da onesten |
|                                                                   | INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA | Aurreproiektuaren 79. artikulua Europar Batasunaren etiketa ekologikoaren erabilera sustatzeari buruzkoa da. Horrela, 2. paragrafoan zenbait neurri ezartzen dira, ingurumena errespetatzen duten produktuak eta zerbitzuak sustatzeko tresna boluntario honen erabilera bultzatze aldera. Horien artean, ez dira aipatzen zerga-pizgarriak, adibidez, hau: EBko etiketa ekologikoa emateko, luzatzeko eta berritzeko eskaera izapidetzeagatikotasaren kuota murriztea,                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | Erabaki da, artikulua honetan, ekoetiketa sustatzeko neurrien idazketa zabala egitea, baina hori ez da inola ere <i>numerus clausulus</i> bat. Horrez gain, aurreproiektuan manu espezifiko bat jaso da ingurumen-fiskalitatearen inguruan (egungo 83. artikulua).<br><br>Artikulu horrek (4. c atalean) zerga-eremuko hobarien, murrizketen eta salbuespenen aurreikuspena jasotzen du eta jo daiteke horiek ekoetiketei aplikatu ahal zaizkiela. Edonola ere, proposatutako | Ez da onesten |

|                                        |                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |               |
|----------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|                                        |                                                                     | irailaren 11ko 172007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako EAEko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginaren 188. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa. Zehazki, hori ezarri zen enpresa txiki eta ertainentzat, baita mikro enpresentzat ere, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendioaren arabera definitutakoak. Eta aurreko hori bat dator aurreproiektuaren 83.4.c) artikuluan xedatutakoarekin.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | neurri horiek ezar litezke lege-aurreproiektuaren dagozkion araudi-garapenen bidez edo ingurumeneko zerga-politikarekin bat etorritz.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |               |
| 81. artikulua. Erosketa publiko berdea | EMAKUNDE                                                            | Adierazi behar da interesgarria izango litzatekeela bertan berdintasun-klausulak ere txertatzeko aukera aztertzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | Lege-aurreproiektuaren xedea ingurumen-izaerakoa da eta artikulua zehatza erosketa publiko berdeari buruzkoa da. Ulertzen dugu kontratuen legeria orokorrak aurreikusi beharko dituela horrelako neurriak, sektore publikoko kontratu guztietara hedatuko direnak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | Ez da onesten |
|                                        | OGASUN ETA EKONOMIA SAILA. KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEA | Artikulu horri dagokionez, gogorarazi behar da, ingurumen-klausulak, Sektore Publikoko Kontratuen Legean modu zabalean jasotakoak eta berriki Batzorde honen 2/2018 Gomendioan aztertu direnak, baimendu egin direla eta, horrez gain, sustatu egin direla azkenaldiko araudian eta gomendio horretan. Hala ere, legeak horiek gehitzeko aukera aitortzen du, gizarte- eta berdintasun-klausulekin egiten duen bezala eta, zentzu horretan, gure pleguak harago doaz eta hizkuntza-klausulak ere jasotzen dituzte. Eta beti zenbait oinarriren pean; horien artean, beti ezartzen da kontratuaren xedearekiko lotura, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. artikuluan zentzuan, besteak beste. Horregatik, hori eskatzean, kautelaz jardun behar da, ulertzen baita espazioa eta aukera partekatu behar dituztela aipatutako | Artikulu honen helburua ez da mimetikoki erreproduzitzea kontratu publikoen legeriak jadanik aurreikusten duena; izan ere, harago joan nahi du, aurreproiektua osorik eta bereziki atal hauek ingurumen-lege oso handizalea osatzen dutelako.<br><br>Nolanahi ere, manuak neurriaren derrigortasuna ezartzen du baina oso termino zabaletan; horri esker, kasu bakoitzean erabaki ahalko da arrazoi teknikoengatik hori eskatzea bidezkoa den.<br><br>Kontrolaren eraginkortasunik ezaren balizko <i>ex post</i> arazoak egon daitezkeenaren aurreikuspena ezin da argudiotzat erabili lege honetan aurreikusitako ingurumen-helburuak lortzeko aukera hasiera-hasieratik mugatzeko. | Ez da onesten |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |  |  |
|--|--|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p>gainerako alderdiekin.</p> <p>Gainera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 202. artikulua, lehenengo atalean, adierazten du administrazio-klausula zehatzen pleguek gutxienez egikaritzeko baldintza berezi bat jaso beharko dutela, soziala, etikoa, ingurumenekoa edo bestelakoa. Gainera, plegu horietan sar litezkeen guztien adibideak ematen ditu eta, esan bezala, nahitaezkoa izango da gutxienez bat jasotzea.</p> <p>Hala ere, arazo bat egon daiteke; hain zuzen ere, ezinezkoa izan daiteke kontrataziotik aipatutako politika horiei guztiei erantzutea -ez dago inolako zalantzarik estrategikoki garrantzitsuak direla eta beharrezkoa dela horiek sustatzea-; izan ere, batzuetan, praktikan, zaila da lizitatzailerik askorentzat horiek betetzea eta, horregatik, horien kontratazioa eragozten du edo lizitazio-prozesuetara aurkeztea oztopatzen du. Orduan, aurretik aipatutako lehiakortasun askearen printzipioa arriskuan jartzen da. Baina, hortik harago, pleguetan klausula horietakoren bat ezartzen denean, aurretiaz argi eta ondo egituratuta eduki behar da kontrol-sistema. Izan ere, sistema horrek ahalbidetuko du egiaztatzea eskatutakoa eta eskainitakoa benetan osorik betetzen den edo ez eta, edonola ere, hori ez betetzeak edo gaizki betetzeak edukiko lukeen eragin zehatza egiaztatzea ahalbidetuko du, kontuan hartuta horiek kontratuaren betebeharrak direla.</p> <p>Gauzak horrela, 81. artikuluen 2. atalean jasotako eskakizuna moderatu behar da aurreko ataletan proposatu dugun bezala. Gogorarazi behar da aukera bat dela, eskakizuna izan beharrean.</p> |  |  |
|--|--|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|  |                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                            |
|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------|
|  |                                                                                                               | <p>Halaber, 3. atalean ezarritako aginduari erreparatuz, obren eta horniduren pleguetarako, behin betiko kendu behar da “adieraziko dira” adierazpena “adierazi ahalko dira” adierazpenarekin ordeztuz. Gainera, aurreproiektuan bertan beti eskaini beharko dira metodo eta arduradun zehatzak, hau da, ehuneko horiek eskatzen dituzten kontratu guztien egikaritzapenean benetan egiaztatzen direla ziurtatuko dutenak. Bestela, paperean soilik geratuko liratekeen eskakizunak bihurtuko lirateke, hau da, ezingo litzateke betetzen diren edo ez kontrolatu eta, gainera, ezingo litzateke horien ez-betetzea egikaritzapenean erakutsi. Horrela, lehia oso modu zorrotzean mugatuko zatekeen eta kontratistak ez-betetzeak egin ahalko lituzke inolako ondoriorik gabe eta kontratuaren erantzulearentzako kontrol-tresnen gabeziako arazo serio batekin. Hori ez da edonola ere baimendu behar.</p> |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                            |
|  | <p>INGURUMEN,<br/>LURRALDE<br/>PLANGINTZA ETA<br/>ETXEBIZITZA<br/>SAILEKO<br/>ZERBITZUEN<br/>ZUZENDARITZA</p> | <p>81.3 artikulua. Ekimen honek araudi-garapen egokia izan behar du. Ondorio horietarako, aipatutako materialek ziurtapen edo homologazio bat izatearen alde egin behar da. Horrek ahalbidetuko du proiektuen idazleek eta horien zuzendariak bere gain hartzen dituzten erantzukizunetan berme bat izatea.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | <p>Alegazioan aipatutako araudi-garapen horiek jadanik egin dira EAEn (Eraikuntza- eta Eraipen-hondakinen Dekretua eta Aridoen agindu teknikoak), zehazki, artikuluan aurreikusitako materia horietako batzuentzat. Geroko araudi-garapenak egingo dira, beharrezkoa izatekotan, aipatutako gainerako materialentzat.</p> | <p>Esposizio-alegazioa</p> |
|  | <p>LEHIAREN EUSKAL<br/>AGINTARITZA</p>                                                                        | <p>Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1.3 artikulua ezartzen du kontratazio publiko guztietan txertatuko direla zeharka eta nahitaez gizarte- eta ingurumen-irizpideak, betiere kontratuaren xedearekiko</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | <p>Esposizio-alegazioa.</p> <p>Adierazi beharra dago, aurretik esan bezala, artikulua honen helburua ez dela mimetikoki erreproduzitzea kontratu publikoen</p>                                                                                                                                                            | <p>Esposizio-alegazioa</p> |

|                                          |                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                       |
|------------------------------------------|------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|
|                                          |                                    | <p>lotura badute. Hala, uste da horiek gehitzeak kalitate-prezio harreman hobea sustatzen duela kontratua ematerakoan, baita eraginkortasun handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran.</p> <p>LEA/AVC honek positibotzat jotzen du kontratazio publikoan ingurumenarentzat onuragarriak diren alderdiak kontuan hartu ahal izatea; hori gorabehera, adierazi behar da, kontratuaren xedea bera ez den bestelako elementuak aintzat hartzen dituzten neurriak hartzean, horiek eskaintzaileen arteko eraginkortasun, lehiakortasun eta diskriminaziorik ezako printzipioekin bateratuz hartu beharko liratekeela.</p>                                                                                                                                                                                             | <p>legeriak jadanik aurreikusten duena; izan ere, harago joan nahi du, aurreproiektua osorik eta bereziki atal hauek ingurumen-lege oso handizalea osatzen dutelako.</p> <p>Nolanahi ere, idazketa berria eman zaio aipatutako artikuluari, lege-aurreproiektuaren informazio publikoko fasean jasotako alegazioei erreparatuz.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                       |
| 83. artikulua.<br>Ingurumen-fiskalitatea | ZERGA-ADMINISTRATIOKO ZUZENDARITZA | <p>1. Eskatzen da 83.1 artikuluan Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren aipamena ezabatzeke. Hala ere, horrek ez du eragotziko zerga-tresnen sustapenari erreferentzia egitea, ezta administrazio publiko eskudunen bestelako ingurumen-politikak aipatzea ere. Gainera, adieraziko da beharrezkoa dela ingurumenaren alorrean eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailak parte hartzea.</p> <p>2. Eskatzen da ingurumen-zergek lortutako bilketaren izaera finalistari buruzko 83. artikulua 2. eta 3. atalen idazketa zuzentzeko, dagokion muga gainditzen duelako eta lurralde historikoetako foru erakundeek berezko zerga-eskumenak inbaditzen dituelako.</p> <p>3. Bigarren Azken Xedapena osatzea, uraren kanonaren arauketa berri oso bat sustatuz (eta ez bakarrik horren zerga-egitatearena).</p> | <p>1. Oharra aintzat hartzen da eta Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren aipamena kentzen da.</p> <p>Testua honela idatzita geratuko litzateke, hitzez hitz:</p> <p>“85.1. Zergen esparruan eskudunak diren euskal administrazio publikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren ingurumen-eskumenak dituen sailari aurretiaz kontsultatu ostean, fiskalitate ekologikoaren eta ingurumen-politika ekonomikoaren beste tresna batzuen erabilera sustatuko dute, zehazki, lege honen helburuak lortzen laguntze aldera.”</p> <p>2. EAEko administrazio publiko guztientzako lortutako bilketen izaera finalista kontuan hartzeko eskaera hartzen da. Izaera finalista hori zabaldu ahalko da arau honen arabera eta</p> | Partzialki onesten da |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |  |
|--|--|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p>Horretarako, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen VIII Kapituluaren jasotako araubide ekonomiko-finantzarioaren idazketa berria egingo da.</p> <p>4. 83.4 artikuluan EAEko administrazio publikoak animatzen ditu (“ahalko dute”) tasak eta zergak sortzera, baita horietan salbuespenak eta hobariak ezartzera ere, zehazki, bere eskumenen eremuan eta ingurumen-ikuspegitik. Kontu hori egokia dela jotzen da, baita erakunde bakoitzaren zerga-eskumenak errespetatzen dituela ere.</p> <p>5. Adierazten da tasak ordaintzearen menpekoak izan daitezkeen zerbitzuen eta jardueren errepasoa egin ahalko dela eta, hala badagokio, hori aurreproiektuan txertatu.</p> | <p>soilik EAEko administrazio orokorarentzat; hau da, foru aldundiek erabaki bera har dezakete zergen eremuan dituzten eskumenen arabera.</p> <p>Testua honela idatzita geratuko litzateke:</p> <p>“83.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lortutako bilketek izaera finalista izango dute eta eskusiboki bideratuko dira lege honetan aurreikusitako helburuak lortzera. Foru aldundiek, zergen eremuan dituzten eskumenak gauzatu, zentzu berean ezarri ahalko dute lortutako bilketen izaera finalista, baita horiek ingurumena babestearekin lotutako helburuetara zuzentzea ere.”</p> <p>83.3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bildutako diru-sarreraren barruan sartuko da aurrekontu-partida bat, zehazki, datorren urteko aurrekontu orokorretan, ingurumen-eremuan eskumena duen organoak ezarritako helburuekin bereziki lotutakoak. Foru aldundiek zentzu berean ezarri ahalko dute lortutako bilketek urteko aurrekontuetan partida bat osatzea, bereziki zuzendutakoa ingurumena babestearekin lotutako jarduketak kudeatzera.”</p> <p>3. Gomendioaren funtsa positiboki hartzen da, hau da, uraren kanonaren arauketa oso berri bat egiteko beharra dagoela. Hala ere, hori etorkizunean egin beharko da, VIII Kapituluaren aldaketa sakonago batekin batera. Aurreproiektuaren testuak hauxe</p> |  |
|--|--|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|                                           |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |               |
|-------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|                                           |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | <p>adieraziko du hitzez hitz:</p> <p>“45. artikulua. Zerga-egitatea</p> <p>1. Euskal Autonomia Erkidego osoan zergapean egongo da uraren erabilera, lege honetan zehazturik dagoen bezala, uraren erabilerak eragina izan dezakeelako bere ingurunean.»</p> <p>4 eta 5. Esposizio-aipamenak eta proposamenak dira eta horiek aztertuko dira EAEko ingurumen-organoaren geroko araudi-garapenetan eta jarduketetan islatze aldera.</p> |               |
| 85. artikulua.<br>Ingurumen-boluntariotza | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>85. artikuluan ezartzen da herritarren parte-hartzearen sustapena boluntariotza-ekintzetan interes orokorreko jarduerak egiteko, hori guztia ingurumena babesteko eta hobetzeko eta Boluntariotzaren uztailaren 25eko 1771998 Legean xedatutakoaren arabera.</p> <p>Bestalde, 2. paragrafoak 17/1998 Legearen 12. artikuluan aurreikusitako jarduketa horietako asko zerrendatzen ditu eta, aurreproiektuaren ondorioetarako, bereziki interesgarria da horiek bultzatzea. Hala ere, b) letran aurreikusitako jarduketa hau da: “Boluntarioen erakundeak iraunarazteko eta horien prestakuntza eta ekimenak bultzatzeko laguntzak emango dituzte eta hitzarmenak sinatuko dituzte”. Horri dagokionez, adierazi behar da, laguntza-lerroen deialdiarekin bultzatzen dela boluntariotza-jarduketen sustapena eta ez horiek ematearekin. Hortaz, 17/1998 Legean jasotako idazketa lehenesten dugu ekimenaren sustatzaileak</p> | <p>Ez da partekatzen proposatutako oharra; izan ere, soilik deialdiarekin bultzatzen da boluntariotza-jarduketen sustapena.</p> <p>Gure aburuz, zuzendaritzak nahasten ditu laguntzak emateko administrazio-prozeduraren fase desberdinak eta horien azken xedea, hau da, boluntariotza sustatzea.</p>                                                                                                                                | Ez da onesten |

|  |                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |               |
|--|-------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
|  |                                           | egindakoaren aurrean.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |               |
|  | ZERGA-<br>ADMINISTRAZIOKO<br>ZUZENDARITZA | <p>Ingurumen-boluntariotzari buruzko 85.2.f) artikuluan, beste neurri batzuen artean, administrazio publiko eskudunek zerga-eremuan ezarri ahalko lituzketenak proposatzen dira, horiek sustatzeko eta burutuak izan daitezen errazteko.</p> <p>Hala eta guztiz ere, ezin da ulertu zein den azken helburua, ezta zerga-tratamendu horien xede diren kolektiboak edo eragileak ere.</p> | <p>Hala, 85. artikuluko horren 2. atala administrazio publikoek ingurumen-boluntariotzako ekintza sustatzera eta erraztera dago zuzenduta, zehazki, Boluntariotzaren ekainaren 25eko 17/1998 Legea xedatutakoarekin bat etorriz.</p> <p>Artikuluek aurreikusten dute prestakuntzaren eta informazio-bilketaren arloan boluntarioak dituzten antolakuntza desberdinen artean baliabideak eta bitartekoak komunean jartzea. Gainera, haxe aurreikusten dute: boluntarioen antolakuntzen mantentzerako, prestakuntzarako eta ekintzarako laguntzak ematea eta hitzarmenak sinatzea; ingurumen-boluntariotzaren gaineko informazio-kanpainak antolatzea; antolakuntzei aholkularitza, informazio eta babes teknikoko zerbitzuak ematea, etab.</p> <p>Zentzu horretan, lege- eta zerga-araudiaren esparruan neurriak ezartzearen helburua gainerako neurri guztien helburu bera da, hau da, EAEn ingurumen-izaerako boluntariotza sustatzea.</p> | Ez da onesten |

## ZAZPIGARREN TITULUA. INGURUMEN-IKUSKAPENA ETA KONTROLA

### I. KAPITULUA. INGURUMEN-LANKIDETZAKO ERAKUNDEAK

| ARTIKULUA                                              | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                              | AUKERA      |
|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|
| 87.<br>artikulua.<br>Ingurumen-lankidetzako erakundeak | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Aipatu behar da Ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012 Dekretua. Dekretu honek, bere garaian, aurreikusi zuen EAEko ingurumen lankidetzako erakundearen administrazio-erregistro bat sortzea; bertan, publikitate-ondorioetarako, entitatearen datuak, maila eta jarduketaren irismena jasoko ziren.</p> <p>Kontuan hartuta memoria ekonomikoak ez diola manu honi erreferentzia egiten; ez dakigu zergatik sailak berriro arautzen duen kontu hau, Ingurumen-lankidetzako Erakundearen erregistroaren lege-maila emateaz gain.</p> <p>Era berean, gogorarazi behar da aipatutako Ingurumen-lankidetzako Erakundearen dekretua partzialki etenik dagoela, hain zuzen ere, Ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012 Dekretua aldi baterako eteten duen irailaren 10eko 407/2013 Dekretuarekin bat etorritik. Hori guztia pertsona pribatuek ingurumen-lankidetzako erakundeak erabiltzearen derrigortasunari dagokionean.</p> | <p>Azaldutako egitate horiek ondo ezagutzen dituzte, bai testua sustatu duen zuzendaritzak, bai alegazioa egin duen zuzendaritzak.</p> <p>Egitate-egoera horretatik abiatuta, hain zuzen ere, lortu nahi dena da lege-esparrua hobetzea, erakunde horien geroko nahitaezko araudi-garapena optimizatze aldera.</p> | Azalpenekoa |

|  |                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                        |
|--|-----------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
|  | LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA | <p>Ingurumen-lankidetzako jarduera horiek garatzeko, beharrezko gaitasun teknikoa behar da eta aztertutako manuak ez du hori berariaz jasotzen. Hortaz, gomendatzen da bertan gehitzea beharrezkoa dela Ingurumen-lankidetzako erakundeek gaitasun tekniko egokia izatea administrazio publikoarekin ingurumen-lankidetzako atazak burutzeko.</p> <p>Gainera, gomendatzen da ezartzeko, Ingurumen-lankidetzako Erakundeek ingurumen-arloko administrazio publikoarekin lankidetzak-jarduerak burutzerakoan (dokumentuen balioztapena, ziurtapena eta laginketa), Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen-arloko eskumenak esleituta dituen sailari aurretiazko jakinarazpena egiteko araubidea bete beharko dela. Horrela, aurretiazko komunikazioa aurkezteari esker, jarduera hori burutu ahalko da ingurumen-lankidetzako erakunde gisa.</p> <p>Ingurumen-lankidetzako erakundeek administrazio-erregistro batean izena eman behar dute, nahiz eta aurreproiektuak ez duen horren izaera ezartzen. Hortaz, betebeharrak horren esku-hartze maila ahalik eta txikiena izan dadin, gomendatzen da manuan aurreikusteko izen-emate hori, publizitate-ondorioetarako soilik.</p> | <p>Alegazioa hartzen da, hau da, ingurumen-lankidetzako erakundeei beharrezko gaitasun teknikoaren irizpidea eskatuko zaiela berariaz jasotzea 87.3 artikuluan. Hori honela idatzita geratuko da:</p> <p>“Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoak eskaera egiten duten entitateak erregistratuko ditu, arauz finkatzen diren ezinbesteko baldintzen eta prozeduraren arabera, <i>horien gaitasun teknikoa bermatze aldera</i>, eta beren independentzia eta inpartzialtasuna bermatzen dituzten neurrien arabera. (...)”.</p> <p>Ingurumen-lankidetzako Erakundeek EAEko erregistroan izena eman beharko dute eta erregistrorako sarbidea araudiak ezartzen du aurretiazko komunikazio-prozedura baten bidez. Hala, behin izena emanda, gaituta daude ingurumen-lankidetzako erakunde bezala jarduteko legez eta arauz aurreikusitako jarduketaren eremuetan eta irismenarekin.</p> <p>Aldi berean, adierazi behar da Ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012 Dekretuak 15. artikuluan arautzen duela izen-ematea publizitate-ondorioetarako besterik ez dela egiten. Hortaz, ez da beharrezkotzat jotzen hori aurreproiektuaren testuan gehitzea.</p> | Partzialki onesten da. |
|--|-----------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|

|  |  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |  |
|--|--|--|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  |  | <p>15. artikulua. — Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroan izen ematea.</p> <p>Jakinarazpena agiriekin jaso eta beharrezko egiaztapenak eginda, ingurumen-eskumenak dituen sailak EAEko ILEen Erregistroan inskribatuko du erakunde eskatzailea, argitara ematea beste helbururik gabe.</p> |  |
|--|--|--|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

| ZAZPIGARREN TITULUA. INGURUMEN-IKUSKAPENA ETA KONTROLA |                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                        |
|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
| II. KAPITULUA. INGURUMEN-IKUSKAPENA                    |                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                        |
| ARTIKULUA                                              | ALEGATZAILEA                                                                   | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | AUKERA                 |
| 89. artikulua.<br>Ingurumen-ikuskapene ko langileak    | INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA | <p>89.1 artikulua idazketan, 87. artikuluekin lotuz, zalantza bat sortzen da, zehazki, pertsona fisikoak edo juridikoak ingurumen-lankidetzako erakundeak izan daitezkeen. Beraz, egungo idazketak ez du argi uzten, ingurumen-lankidetzako erakundeez gain, beste pertsona batzuek ahalmen publikoak gauzatzeko eskatzeagatik edo beste egoera batzuegatik funtzionario publikoei soilik gordetzen ez zaizkien ikuskapeneko jarduketak materialak burutu ahal dituzten. Horregatik iradokitzen da artikulua honen idazketa berrikusteko eta “edo pertsonak” konjuntzioa ezabatzea, baldin eta 89.1 artikulua helburua da bakarrik ingurumen-lankidetzako erakundeak gaitzea ataza zehatz batzuk burutzeko.</p> <p>Horrez gain, artikulua ingurumen-ikuskapeneko jardura burutzeko ofizialki izendatutako administrazio publikoetako funtzionarioak aipatzen ditu eta horiei agintaritza-agente izaera ematen die, berezkoak zaizkien eginkizunak burutzeko.</p> <p>Baieztapen horrez gain, 89. artikulua hirugarren paragrafoan, haxe adierazten da: <i>“Ikuskatzaileek ahalmena dute Lege honen mendeko subjektuen esku dagoen ingurumenaren alorreko edozein dokumentazio biltzeko, baita Lege honen aplikazio esparruaren baitan</i></p> | <p>Oharra partzialki hartzen da eta, artikulua horri egindako alegazioen emaitza gisa, idazketa berria eman zaio.</p> <p>Gaur egun, Euskadin, badago Ingurumen-lankidetzako Erakunde inguruko indarreko xehetasun-arauketa, hau da, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakunde Erregistroa sortzen duen urriaren 16ko 212/2012 Dekretua, aztertu behar dena. Hortaz, ez da ulertzen zer esan nahi duen alegatzaileak adierazten duenean beharrezkoa dela horren araudi-artikulazio azkarra egitea.</p> <p>Lege-testuak ez du jotzen ingurumen-lankidetzako erakundeetako langileei agintaritza-agenteko izaera eman behar zaienik. Horregatik, 89.2 artikuluan egindako erreferentzia administrazio publikoen zerbitzura dauden langileetara mugatzen da.</p> <p>89.3 artikuluan, ikuskapen-langileei egindako erreferentzia aldatuko da eta ikuskapen-jarduketak burutzen dituzten langile guztiak hartuko dira barne, administrazio publikoekin lotura duten edo ingurumen-lankidetzako erakunde batekoak diren gorabehera. Izan ere, lortu nahi dena da horiek guztiek edukitzea atal honetan</p> | Partzialki onesten da. |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                               |  |
|--|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p><i>garatzen diren jardueren leku egiten dieten instalazioetan eta beste lekuetan aldez aurretik identifikatu eta jakinarazi gabe sartzeko eta egoteko ere</i>”. Hala, kasu honetan ez da argi geratzen ikuskatzaileak soilik funtzionarioak diren edo Ingurumen-lankidetzako Erakundeak barne hartzen diren. Beraz, asmoa funtzionarioak eta Ingurumen-lankidetzako Erakundeak ahalduntzea bada, ikuskatzaileen terminoa aldatzeko iradokitzen da eta ingurumen-ikuskapeneko langileak terminoarekin ordeztzeko, artikuluaaren tituluaekin eta 91. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz: “<i>Lege honen aplikazio esparruko jardueren titularrek nahitaez lagunduko diete 89. artikuluan adierazitako ingurumen ikuskatzaileei behar duten guztietan, ikuskatzaile horiek beren eginkizuna egiteko beharrezkoak dituzten azterketak, kontrolak, lagin hartzeak eta informazio bilketak behar bezala egin ahal izan ditzaten</i>”</p> | <p>deskribatutako jarduketa-ahalmenak.</p> <p>Aurreko alegazioaren zentzu berean, argitu behar da aldatutako testuak egiaztatutako erakundeei soilik egingo diela erreferentzia.</p> <p>Egokitzen hartzen da artikuluaaren titulua eta 3. atala aldatzea.</p> |  |
|--|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|                                                                             |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                      |
|-----------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| <p>91. artikulua.</p> <p>Ikuskapen jarduerari men egiteko betebeharra .</p> | <p>INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</p> | <p>Deigarria da, aipatutako txostenak bi hilabeteko epean igortzeko betebeharra ezarrita egonda, horiek 4 hilabete igaro arte ezin argitaratzea. Gai hori ez da justifikazio- eta ekonomia-memorian jasotzen.</p> <p>Txostenei dagokienez, aipatu behar da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 80.1 artikularekin bat etorritz, “aurkako berariazko xedapena egon ezean, txostenak hautazkoak izango direla eta ez lotesleak”.</p> | <p>Zentzua dauka, kronologikoki, ikuskatutako jardueraren titularrak izatea ikuskapen-bisitaren txostena lehendabizi jasotzen duena eta, horren ostean, administrazioak jarduketa horiei publizitate aktiboa ematea.</p> <p>Horrela, jardueraren titularrak epe zehatz bat dauka alegatzeko, bere eskubidearen arabera, ikuskapen-txosten horretan azaldutakoa. Beraz, publizitate aktiboa emandako informazioaren gaineko aurretiazko egiaztapen bat egingo du ukitutako pertsona nagusiak.</p> <p>Alegazioaren bigarren parteari erreparatuz, adierazi behar da txosten-mota horiek ez direla nahitaezko txostenak alegatzaileak aipatutako administrazio-prozedura batean. Txosten horiek ingurumen-organoaren jarduerari gardentasuna eta publizitate aktiboa ematera daude zuzenduta.</p> | <p>Ez da onesten</p> |
|-----------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|

|                                                                  |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                      |
|------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| <p>92. artikulua.</p> <p>Ingurumen-ikuskapenaren plangintza.</p> | <p>INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</p> | <p>92. artikulua lege-aginduaren maila esleitzen die ikuskapenaren arloko plangintzari eta programazioari, ez betetzekotan sor litezkeen ondorioekin.</p> <p>Gainera, programak egiterakoan kontuan hartu beharreko ingurumen-arriskuen ebaluazio sistematikoaren inguruko gutxiengo irizpide batzuk ezartzen dira, baina ez da zehazten nola balioztatu behar diren horiek. Hortaz, artikulua idazketa berrikusteko gomendatzen da.</p> | <p>Ez da ulertzen zergatik zuzendaritzak zalantzak dituen ikuskapenaren plangintza lege-agindu baten bidez artikulatzearen inguruan. Izan ere, Europako araudien eta transposizio-legeriaren joera aurkakoa da eta berariaz gehitzen du ikuskapenaren plangintza araudi-xedapen orokorretan (hondakinen araudia ikusi, IPPC....).</p> <p>Arlo honetan, arauaren asmoa da ikuskarpen-jarduera antolatzea eta horren funtsezko aurretiazko urratsa da plangintza egokia egitea.</p> <p>Bestalde, adierazi behar da, gure ikuspuntutik, arriskutsua dela suposatzea, oharrean egiten den bezala, lege-agindu hori ez dela beteko.</p> <p>Lege-maila duen arau batek ezin du sakondu arriskuen balioztapen sistematikoaren xehetasun teknikoan; hala, 92. artikulua berak geroko araudi-garapen baterako uzten du alderdi horien eta beste batzuen xehetasuna.</p> | <p>Ez da onesten</p> |
|------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|

| ZORTZIGARREN TITULUA. INGURUMEN-LEGEZKOTASUNA LEHENGORATZEA ETA INGURUMEN-KALTEENGATIKO ERANTZUKIZUNA |                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |               |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| I. KAPITULUA. INGURUMEN-LEGEZKOTASUNA LEHENGORATZEA                                                   |                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |               |
| ARTIKULUA                                                                                             | ALEGATZAILEA                                                                   | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | AUKERA        |
| 94. artikulua.<br>Jarduerak aurretiazko komunikaziorik, baimenik edo lizentziarik gabe legeztatzea    | INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA | <p>Titulu honek, 94. artikuluan, funtzionamenduan dauden jarduerak legeztatzeko hartu beharreko neurriak jasotzen ditu, horiek baimenik edo lizentziarik ez dutenean edo aurretiazko komunikazioko prozeduraren izapideak oinarritu ez direnean edo, horiek izan arren, urritasunak antzematen direnean funtzionamenduan. Halaber, berariaz aurreikusten du behin betiko itxiera jardura legeztatu ezin den kasuetarako.</p> <p>Lege-aurreproiektuak antzemandako funtzionamendu-urritasunak zuzentzeko neurri zuzentzaileak eskatzeko aukera aurreikusten du, zehazki, ingurumen-baimeneko araubide desberdinen eta legezkotasuna lehengoratzeko prozeduraren esparruan. Justifikazio-memorian ez da azaltzen zergatik gehitu diren neurri horiek; horregatik, zalantza bat sortzen da: nahita soilik gaitzen ote dituen horiek funtzionamendu-urritasun kasuetarako edo, aitzitik, horiek eskatu ahalko liratekeen instalazioen egoerari dagokionez.</p> <p>Bestalde, araudi-proiektuak neurri horientzako denbora-muga bat ezartzen du, baina denbora-muga hori gainditzearen ondorioak zehaztu gabe. Horrez gain, justifikazio-memorian ez da azaltzen nola funtzionatzen duen ingurumen-legezkotasuna lehengoratzeko</p> | <p>Lehenik eta behin, adierazi beharra dago iradokizuna nahiko nahasia dela eta ez dela argi geratzen zein manuri edo manuei egiten dien erreferentzia. Aurreko ataletan bezalaxe, zuzendaritzak etengabe aipatzen du proiektuaren justifikazio-memorian ustezko informazio-gabezia dagoela. Baina, gure ikuspegitik, dokumentu hori ez dago eratuta gida bezala, non izaera orokorreko araudi-xedapeneko proiektu baten testuaren artikulua eta atal guztiak aztertzen diren geroko txostenak errazte aldera.</p> <p>Oharrari erantzuteko asmoz, batetik, adierazi behar da lege-aurreproiektuaren 94. artikulua jardueraren legeztatze formalari egiten diola erreferentzia. Manu berak (bigarren atala) asaldaturako egoeraren gainean neurri zuzentzaileak hartzeko edo lehengoratzeko aukera ezartzen du.</p> <p>Neurri horiek ezartzeko emandako epeak gainditzearen ondorioa hau da: administrazio publikoek duten berezko egintzen benetako autotutoretza gauzatzeko aukera. Ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ezartzen dituen ebazpena administrazio-egintza bat izango da eta, hori ez betetzekotan, ebazpenak betetzen ez diren</p> | Ez da onesten |

|                                                                               |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                               |
|-------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
|                                                                               |                                                                                       | <p>prozedura ebazteko hiru hilabeteko epeak. Hortaz, kontu hori berrikusteko iradokitzen da.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | <p>gainerako kasuetan bezalaxe, nahitaez betearazi ahalko da, zehazki, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 97. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako bitartekoak baliatuz. Era berean, neurri horiek ez betetzea administrazio-izaerako egintza bidegabe autonomo bat izango da, aurreproiektuaren arau-hausteen multzoaren barruan.</p> <p>Bestalde, adierazi behar da legezkotasuna lehengoratzeko prozedura ebazteko hiru hilabeteko epea gainditzearen ondorioa aurreikusten dela, hau da, iraungipena (97.3 artikulua). Begi bistakoak direnez, alderdi horiek ez dira justifikazio-memorian azaldu behar, alegatzaileak eskatzen duen bezala.</p>                                                                                                                                         |                               |
| <p>97. artikulua.</p> <p>Ingurumen-legezkotasuna lehengoratzeko prozedura</p> | <p>INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</p> | <p>97. artikuluaaren laugarren paragrafoak hauxe ezartzen du: “<i>Larrialdi kasuetan, prozedura administratiboa izapidetu behar izan gabe esku hartu ahal izango du agintaritza eskumendunak kalteak prebenitzeko eta saihesteko neurriak finkatzeko edo neurri horiek aplikatu daitezela exijitzeko.</i>”</p> <p>Larrialdietan adierazpena ez da guztiz zehatza eta, horregatik, berrikusteko gomendatzen da. Gai horri dagokionez, kontuan hartu behar da Babes Zibileko Sistema Nazionalaren uztailaren 9ko 17/2015 Legeak Babes Zibileko Larrialdiaren definizio bat aurreikusten duela (...).</p> <p>Artikulu beraren 6. paragrafoak adierazten du honako hau: “<i>Hartu litezkeen behin-behineko neurriak dira, jarduerak eteteaz eta aurreko artikuluek adierazitako neurri zuzentzaileez gain, lege honetan</i></p> | <p>Egindako proposamena onesten da eta “premia” terminoa erabiliko da behin-behineko izaera nabarmena duten neurrientzat, hain zuzen ere, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 56. artikuluaekin bat etorritik.</p> <p>Gainerako iradokizunak ez dira onesten. Premia nahitaez izan behar da zehaztu gabeko kontzeptu juridiko bat, kasu bakoitzean administrazioak berak antzeman beharko duena.</p> <p>Gainerako gogoetak ez dira argi eta garbi alegazio bat; izan ere, administrazio publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko euskal legerian aurreikusitako araudi-erreferentziak helarazten dira azalpen-forman. Gogorarazi beharra dago titulu honetan legezkotasuna lehengoratzeko araubidea eta prozedura arautzen direla eta behin-behineko neurriak hartzea egingarria dela edozein</p> | <p>Partzialki onesten da.</p> |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |  |
|--|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p><i>ezarritako zigortzeko prozedurarako aurreikusitakoak</i>”.</p> <p>Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak kautelazko neurriak arautzen ditu 31. artikuluan: “<i>egokitu daitezkeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko edo jardunbideari eragozpenak ipintzea ekiditeko, edota baita juzgatutako gertakariak edo antzeko esangura dutenak jarraitzea edo berriro gertatzea ekiditeko edo gertakariak sortarazitako kalteak jarraitzea edo kalteak arindu nahi izatea ekiditeko ere. Kautelazko neurriak hartu aurretik entzunaldia eskainiko zaie interesatuei bost eguneko epean</i>”. Halaber, 32. artikuluan funtzionario ikuskatzaileek salbuespen moduan kautelazko neurriak hartzeko aukera aurreikusten du eta haxe adierazten du: “<i>Ikuskaritza-lanak betetzen ari diren funtzionarioek ez-zilegiak izan daitezkeen gertakariak egiaztatzen badituzte, ezarri ahal izango dituzte kautelazko neurriak salbuespenez, interesatuei aurreko entzunaldirik egin gabe, honako baldintza hau izanez gero: 31.1 atalean adierazten diren helburuak lortu ahal izateko, lehenengo eta bigarren azaldutakoak izan ezik, kautelazko neurriak berehala hartu beharra derrigorrezkoa izatea.</i>”</p> <p>Adierazi behar da, salbuespenezko kasu hauetan, Zigortzeko Ahalmenaren legeak haxe aurreikusten duela: “<i>Atal honek arautzen dituen kautelazko neurriak ezarri diren kasuetan, dagokion zigor-jardunbidea irekiko da ahalik eta lasterren, eta irekitze-egintzan zigortzeko eskumena duen organo titularrak zehaztuko du, arrazoituta, neurri horiek amaitu, jarraitu edo aldatu egin behar diren. Horren</i></p> | <p>prozedura-motan, ez baitira zigortzeko prozeduraren eskusiboak.</p> <p>Lege-aurreproiektuan nobedade gisa aurreikusitako ingurumen-legezketasuna lehengoratzeko prozedura proposatutako terminoetan oinarrituko da. Hala ere, aldi berean edo gerora, bidezkoa bada, dagokion zigortzeko prozedura bideratuko da, aurreproiektuaren beste manu batzuetan arautzen dena.</p> <p>Sektore elektrikoaren legeari buruzko alegazioa ezesten da; izan ere, ulertzen da, aurreko alegazioan azaldu den bezala, hornidura elektrikoa mozteko horrelako neurriak egingarriak direla. Zehazki, lato sensu, jotzen da EAEko lurralde-eremuan ingurumena babesteko neurri gehigarriak direla.</p> |  |
|--|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p>ondoren, 31.2 atalean aurreikusten diren kautelazko neurrien ondorengo alegazioen tramiteari ekingo zaio.” Era berean, ezartzen du kautelazko neurri horiek iraungiko direla ezartzen direnetik lau egun igarotakoan, betiere dagokion zigortzeko prozedura abiarazi ez bada.</p> <p>Harrigarria da 97.7 artikuluan jasotako manua, hauxe xedatzen duena: “Era berean, ur edo argindar hornidura eten ahal izango da behin-behineko neurri gisa ixteko edo jarduera bertan behera uzteko agindua jaso duten jardueretan, instalazioetan eta obretan. Horretarako, ur edo argindar enpresa hornitzaileei dagokion erabaki administratiboaren berri emango zaie, eta gehienez ere bost eguneko epean beteko dute agindu hori. Jardueraren debekua kentzen denean eta Administrazio jarduleak enpresa hornitzaileei horren berri ematen dienean baizik ez dira hornidura horiek berriz ere eskainiko.”</p> <p>Horrelako garrantzia duen kontu batek legegilearen zilegitasuna aztertzeke eskatzen du, hain zuzen ere, printzipioz aplikazio-eremutik kanpo egongo liratekeen hirugarrenak derrigortzeko. Oraingoan ere, gai hori ez da proiektuaren justifikazio-memorian garatzen.</p> <p>Aurrekoaren inguruan, adierazi behar da, Sektore Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 52. artikuluan ezarritakoari jarraiki, ezingo zaiela inola ere eten energia elektrikoaren hornidura funtsezkotzat aitortu diren zerbitzuak ematen dituzten instalazioei dagozkien ordainketak ez egiteagatik. Kontuan hartuta neurri hau indarreko oinarritzko araudi elektrikoan ezarritakoaren aurka joan litekeela, iradokitzen da hori berrikusteko.</p> |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|                                                                                                                            |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                         |            |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 98.<br>artikulua.<br>Ingurumen-<br>legezkotasu<br>na<br>lehengoratz<br>eko<br>neurrien<br>nahitaezko<br>egikaritzape<br>na | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | Aurreproiektuaren 98. artikuluan, deigarria da isun hertsatzaileen ezarpenak ez eskatzea, zehapen-prozeduraren esparruan aurreproiektuaren 111.2 artikulua aurreikusten duen bezala, betetzeko errekerimenduan adierazteko jardueraren edo instalazioaren sustatzaileak edo titularrak duen epea neurrien betetze boluntariorako (nahikoa izan behar da 111.2 artikulua kasuan), ezta ezar daitekeen isunaren zenbatekoa ere, zehapen-prozeduran baino berme gutxiago eskainiz. | Iradokizuna hartzen da eta egokitzen jotzen da artikulua osatzea, zehazki, lege-aurreproiektuaren 111.2 artikulua idazketaren antzeko idazketa batekin. | Onesten da |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|

| BEDERATZIGARREN TITULUA. INGURUMEN-DIZIPLINA |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |               |
|----------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| ARTIKULUA                                    | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | AUKERA        |
| 101. artikulua.<br>Arau-haustea eta zigorrak | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>101.2 artikulua haxe ezartzen du: “<i>Lege honetan finkatutako arau hauste administratiboek ez diete kalterik eragingo egileen erantzukizun zibilei, penalei edo izan ditzaketen beste maila bateko erantzukizunei</i>”.</p> <p>Bigarren paragrafoaren idazketa aztertu da eta “gorabehera” adierazpena honela interpreta daiteke: hasiera batean administrazio-izaerako arau-hauste gisa ezartzen den jokabide bat bidegabe penala izatera pasa daiteke. Horrez gain, ondorioztatu daiteke administrazio-bidean zeha daitekeela, egitate horren jazarpen kriminala urritu gabe.</p> <p>Zentzu horretan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 31.1 artikuluan debekatutako <i>bis in idem</i> bat eragingo luketen epaitze paraleloen edozein tentazio saiheste aldera, komeni litzateke haxe gehitzea: arau-hausteei delitua eragin dezaketen kasuetan, administrazioak hori jakinaraziko dio Ministerio Fiskalari eta zehapen-prozedura burutzeaz abstenitu egingo da agintaritzak judizialak epai edo largespen-auto irmoa eman arte. Hala, soilik deliturik ez dagoela jotzen den kasuan, administrazioak zehapen-espeditentari emango dio jarraipena, oinarritzat hartuz auzitegiek egiaztatutakotzat jo dituzten egitateak, hori guztia <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenaren otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 25.</i></p> | <p>Ezin da aurkeztutako iradokizuna hartu, ezagutza orokorrekoa baita non bis in ídem printzipioaren konstituzio-maila eta bere arauketa urriaren 1eko 40/2015 Legean. Horregatik, ez da beharrezkoa hori aurreproiektuan erreproduzitzea.</p> <p>Are gehiago, adierazi behar da, alegazioak berak esaten duen bezala, EAEko administrazio publikoen Zigortzeko Ahalmenaren otsailaren 20ko 2/1998 Legeak baduela artikulua espezifiko bat non bis in ídem printzipioari buruz (18. artikulua) eta beste bat auzibitate penalari buruzkoa (25. artikulua). Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen alderdi horien xehetasunean sartzea ingurumen-lege orokor batean, zuzendaritzak nahi duen bezala. Izan ere, bere arauketa-eremu naturala 2/1998 Legean dago, gaia dela-eta (zigortzeko ahalmena) EAE berezia dena.</p> | Ez da onesten |

|                                                      |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                        |
|------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
|                                                      |                                                                                                  | <i>artikuluan xedatutakoaren arabera.</i>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                        |
| 102.<br>artikulu.<br>Arau-<br>hausteen<br>sailkapena | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>1.- Aurreproiektuaren 102. artikuluan jasotako arau-hausteen sailkapenari dagokionez eta 101.1 artikuluan preskribatutakoa kontuan hartuz (“...<i>Euskal Autonomia Erkidegoan gai horiek arloka arautzen duten, aplikagarri diren eta Lege maila duten arauetan tipifikatutako arau hausteei kalterik eragin gabe</i>”), begi bistakoa ematen du 2. paragrafoaren a) eta b) letretan aurreikusitako arau-hausle motek, ingurumen-baimen bakarra ez lortzeari edo horren baldintzak ez betetzeari dagokionez, ezingo luketela xurgatu edo ulertu obrak, proiektuak eta jarduketak ingurumen-baimen bakarra lortu gabe burutzearen arduradunak edo bertan ezarritako baldintzak ez betetzearen arduradunak egin zitzakeen balizko arau-hausteen balio-galera osoa, hain zuzen ere, hori egin zezaketelako baimen horretan jasotako gai bakoitzarekin lotutako araudi sektorialari dagokionez.</p> <p>Hala eta guztiz ere, aurreproiektuaren 31.2 artikuluan aurreikusitako ingurumen-baimen bakarren bidez integratu behar dira honako baimen hauek: produkzio eta hondakinen kudeaketakoak; kolektorerako isurketakoak, jabari publiko hidraulikorakoak eta itsas-lurreko jabari publikorakoak eta atmosferarako igorpenenak. Horiek guztiak egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak igorritako aurretiazko administrazio-prozedura bakar batean integratuko dira. Hori kontuan hartuta, galdetu beharra dago aurreproiektuaren 102.2 artikuluen a) eta b) letretan aurreikusitako arau-hausteen arduradunari arau-hauste desberdinei dagozkien zehapen guztiak ezarri ote behar zaizkion, zehazki,</p> | <p>1.- Aurreko oharren ildotik, adierazi behar da aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea dagoela eta hori aplikatu behar dutela Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan zigortzeko ahalmena gauzatzen duten erakunde guztiek. Bertan, zigortzeko ahalmena gauzatzeko funtsezko arau orokorrak arautzen dira (II Kapitulua), besteak beste, hauek: non bis in idem, arauen lehiaketa, arau-hausteen lehiaketa, etab. Beraz, ez da bidezkoa ingurumeneko lege sektorial batean gehitzea oro har zigortzeko gai hori arautzen dun lege espezifiko batek araututako alderdi guztiak.</p> <p>Ez da antzematen aipatutako ziurgabetasun juridikoa eta ez du ematen beharrezkoa denik abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 34. artikulua bezalako artikulua bat errepikatzea. Izan ere, aurreikuspen hori (zehapenen konkurrentzia) beren-beregi araututa dago otsailaren 20ko 2/1998 Legean (17-18 artikulua), baita Zehapen-printzipioen urriaren 1eko 39/2015 Legean ere.</p> <p>2. Partzialki onesten dira egindako iradokizunak. Alegazio hau eta informazio publikoko fasean aurkeztutako beste batzuk hartuz, idazketa berria eman zaio 102. artikuluari eta arau-hauste gisa sailkatu beharreko zenbait jokabide gehitu dira. Hala, kaltearen eta</p> | Partzialki onesten da. |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p>otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 17.1 artikulua agintzen duen bezala, edo, aitzitik, 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, arau-hauste desberdinak egitate bakar batetik datozen edo egoera berbera baliatuz —ez xedatzearena edo ingurumen-baimen bakarrean ezarritako baldintzak ez betetzearena—, arduradunari arau-hauste bakoitzarentzat ezarritako zehapenik arinenak ezarri behar zaizkion.</p> <p>Azkenik, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 18.3 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko aukera azter liteke, kasu hau aurreikusten duena: babestutako ondasun juridikoen edo aztertutako arriskuen artean komuneko punturik balego, aurretiaz ezarritako zehapenak partzialki balioko du zehatuko den arau-haustearen babesteko xederako eta kontuan hartua izan dadin geroko zehapena mailakatzeko, hori bai zentzu aringarrian. Kasu horretan eta proportzionaltasun-printzipioak hori eskatzekotan, larritasun txikiagoko arau-hausteei edo arau-hausteen kategoriei dagozkien zehapenak ezarriko lirateke eta, salbuespen gisa, aurreko zehapena bereziki larria izandako kasuetan, geroko zehapena konpentsa liteke, arau-haustea egin dela adierazten den gorabehera.</p> <p>Eta ziurgabetasun hori eta, hortaz, ziurgabetasun juridikoa sortzen da abenduaren 16ko Legegintzako 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 34. artikulua aurreikusten duenaren antzeko aurreikuspenik jasotzen ez delako aurreproiektuan. Horren arabera, egitate eta oinarri juridiko berberengatik, arau-hauslea zehatu ahal bada lege horri eta aplikagarriak zaizkion beste batzuen arabera,</p> | <p>arriskuaren kontsiderazioa aldatu da motako elementu horietako bat bezala, zehazki, gerora ezarri beharreko zehapenaren irismena mailakatzeko elementu gisa barne hartuak izan ahal izateko.</p> <p>Horrek guztiak eragin du araudi-testuaren zuzendaritza sustatzailea hausnarketako eta artikulua hau sakonki aldatzeko prozesu batean murgiltzea; horren emaitza gisa idatzi da proposatutako testu berria.</p> <p>104. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.</p> <p>1. Lege honetan araututako administrazio-izaerako arau-haustek honela sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak.</p> <p>2. Honako egitate hauek dira arau-hauste oso larriak:</p> <p>a. Jarduerak eta instalazioak eraikitzea, muntatzea, ustiatzea edo lekuz aldatzea nahitaezko ingurumen-baimen integraturik gabe.</p> <p>b. Ohiko ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpeko proiektu bat egikaritzen hastea aurretiaz dagokion ingurumen-eraginaren adierazpena eskuratu gabe.</p> <p>3. Honako egitate hauek dira arau-hauste larriak:</p> <p>a) Jarduerak eta instalazioak eraikitzea, muntatzea, ustiatzea edo lekuz aldatzea nahitaezko ingurumen-baimen integraturik edo sailkatutako jarduera-lizentziarik gabe edo sailkatutako jardueraren aurretiazko komunikazio egokia egin gabe.</p> <p>b) Jarduera edo instalazio baten gainean funtsezko aldaketa bat</p> |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p>dauden balizko zehapenen artean, larritasun handienekoa ezarriko zaio. Horrenbestez, komeni litzateke zehapen-araubidearen hain alderdi garrantzitsua argitzea antzeko aurreikuspen batekin.</p> <p>2.- Bestalde, nabarmendu behar da aurreproiektuak ez duela arau-haustetzat hartzen, I.B eranskinean (ingurumen-baimen bakarraren menpekoak) aurreikusitako jardueren edo instalazioen eremuan, Kutsaduraren prebentziorako eta kontrol bateraturako legearen testu bateginak arau-hauste larritzat eta oso larritzat hartzen duena, hain zuzen ere, 1. Eranskinean jasotako jardura industrial horietakoren bat garatzen den instalazioei dagokienez (ingurumen-baimen integratuaren menpekoak).</p> <p>Alegatzaileak adierazi du atipikoak izango liratekeela, nahiz eta aurreproiektuaren 24., 28. eta 29. artikuluetan jardueren eta instalazioen sustatzaileen betebeharrak bezala aurreikusten diren, honako jokabide hauek: autonomia-erkidegoko organo eskudunari ez jakinaraztea jardueretan eta instalazioetan egindako aldaketak, betiere funtsezkoak ez badira, aurreproiektuaren I.B Eranskinean aurreikusitako jardueren eta instalazioei dagokienez; autonomia-erkidegoko organo eskudunari berehala ez jakinaraztea ingurumen-baimen bakarraren baldintzen edozein ez-betetze, ezta ingurumenean nabarmen eragiten duten gorabeherak edo istripuak; I.B Eranskinean aurreikusitako instalazio baten behin betiko itxiera egitea (edo jardura bat behin betiko uztea), ingurumen-baimen bakarrean lurzorua eta lurpeko uren kutsaduraren inguruan ezarritako baldintzak urratuz, eta, horrez gain, jardura edo instalazio baten funtsezko aldaketa bat</p> | <p>egitea, administrazio eskudunak baimen-titulua aldatu gabe.</p> <p>c) Ingurumen-eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren menpeko proiektu bat egikaritzen hastea aurretiaz dagokion ingurumen-eraginaren txostena eskuratu gabe.</p> <p>d) Ingurumen-legezkotasuna lehengoratzeko ezarritako edo zehapen-prozedura baten hasieraren arabera agindutako behin-behineko eta kautelazko neurriak ez betetzea.</p> <p>e) Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren menpeko planak edo programak onestea horiei dagokien ingurumen-adierazpen estrategikoa lortu gabe.</p> <p>f) Ingurumen-baimen integratua, ingurumen-baimen bakarrean edo jardura-lizentzian ezarritako ingurumen-baldintzak edo sailkatutako jardueraren aurretiazko jakinarazpenean jasotako baldintzak ez betetzea.</p> <p>g) Ingurumen-adierazpen estrategikoan, ingurumen-eraginaren adierazpenean eta ingurumen-eraginaren txostenean ezarritako ingurumen-baldintzak ez betetzea.</p> <p>h) Ingurumen-legezkotasuna lehengoratzeko prozeduretan eta ingurumen-kalteengatiko erantzukizuneko prozeduretan ezarritako neurriak ez betetzea.</p> <p>i) Sailkatutako jardueraren aurretiazko komunikazioarekin, funtzionamendu-hasieraren edo irekieraren komunikazioarekin, ingurumen-baimen integratu edo bakarraren eskaerekin edo</p> |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |  |
|--|--|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p>burutzea nahitaezko ingurumen-baimen bakarra lortu gabe. Hala ere, jo daiteke jokabide hori aurreproiektuaren 102.2 artikuluaen a) letran aurreikusitako motan sartzen dela. Estatuko arauan, jokabide horiek, instalazioekin lotuta guztiak -baimenaren baldintzen edozein ez-betetzere berehalako jakinarazpena ez egitearekin lotutakoari dagokionez izan ezik, jardueri ere aplikatu ahal zaiolako- ingurumen-baimen integratuaren araubidearen menpekoak dira eta guztiak dira arau-hauste larriak (lehenengo hirurak) eta oso larriak (horietako azkena).</p> | <p>sailkatutako jarduera-lizentziaren eskaerarekin aurkezten den dokumentazioan jasotako funtsezko datuen zehaztugabetasuna, faltsutasuna edo omisioa.</p> <p>j) Ingurumen-ebaluazioko prozeduren esparruan, nahitaezko dokumentazioan eskatutako funtsezko datuen zehaztugabetasuna, faltsutasuna edo omisioa.</p> <p>k) Lege honetan, administrazio publikoek emandako gaikuntza-tituluetan eta ingurumen-ebaluazioko prozeduren esparruko adierazpenetan ezarritako komunikatzeko, jakinarazteko eta informatzeko betebeharrak ez betetzea.</p> <p>l) Administrazio eskudunaren ikuskapen-lana oztopatzea, aktiboki edo pasiboki, edo jardueren edo instalazioen titularrei eskatutako datuak ematea ukatzea. Lankidetzak-erakundeei eskatutako baldintzak ez betetzea edo horiek aplikagarria zaien araudian xedatutakoaren aurkako jarduerak burutzea.</p> <p>m) Ingurumenean isurtzea, uretan, atmosferan edo lurzoruan, produktu edo substantzia batzuk, egoera solidoan, likidoan edo gasean, edo energia-formetan, baita soinu-forman ere, baldin eta horiek ingurumen-baldintzak narriatzen badituzte edo oro har oreka ekologikoari eragiten badiote eta antolamendu juridikoa urratuz isurtzen badira.</p> <p>n) Aurreko atalean oso larri bezala sailkatutakoak, baldin eta ingurumenean edo pertsonengan izandako eraginagatik ez direnean ematen horrela sailkatzeko kasuak.</p> |  |
|--|--|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|                                                         |                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                        |
|---------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
|                                                         |                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 4. Arau-hauste arinak dira aurreko atalean larri bezala sailkatutakoak, baldin eta ingurumenean edo pertsonengan izandako eragin txikiagatik ez direnean ematen horrela sailkatzeko kasuak.                                                                                                                                                                                                                                                                |                        |
| 103.<br>artikulua.<br>Arau-<br>hausteen<br>preskripzioa | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA. | Aurreproiektuaren 103. artikulua arau-hausteen preskripzioari buruzkoa da eta, 3. paragrafoan, argitzen da, jarraitutako arau-hausteen kasuan, preskripzio-epea jardura bukatzen denetik edo arau-haustea benetako bihurtzen den azkenengo egintza bukatzen denetik zenbatuko dela. Etengabeko arau-hausteen kasuan, aldiz, epe hori jokabide arau-hauslea bukatzen denetik zenbatuko da. Alegatzaileak adierazi du dies a quo ezartzea egokiagoa iruditzen zaiola Kode Penalak ezartzen duen preskripzio-epea zenbatzeko. Izan ere, horren 132.1 artikulua nabarmentzen du, jarraitutako delitu baten kasuan, preskripzio-epea azkenengo arau-haustea egiten denetik zenbatzen dela eta, etengabeko preskripzioaren kasuan, aldiz, egoera bidegabera deuseztatzen den egunetik zenbatzen dela. | Zuzendaritzak egindako hobetzeko proposamena osorik hartzen da.<br><br>Proposatutako testua gehitzea: “egoera bidegabera deuseztatzen den egunetik”.                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | Onesten da             |
| 104.<br>artikulua.<br>Zehapenak                         | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA. | 1. Aurreproiektuaren 104. artikuluan, kontuan hartuta arau-haustea egiteagatik lortutako onura irizpide bat dela zehapena mailakatzeko (aurreproiektuaren 105.e artikulua), eraginkorragoa izan daiteke beste aurreikuspen bat jasotzea, zehazki, kasu hau aurreikusten duena: isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako onura baino txikiagoa denean. Helburua da, kasu horretan, zehapena, gehienez ere, arau-hausleak lortutako zenbatekoaren bikoitzera edo hirukoitzera arte igotzea, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 11.1 artikuluan                                                                                                                                                                                                                                         | Iradokizuna partzialki hartzen da, idazketa berria ematen da eta zehapenen inguruko egungo artikuluari 2. atala gehitzen zaio:<br><br>Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako onura baino txikiagoa denean, zehapena areagotuko da, gehienez ere, arau-hausleak lortutako onuraren zenbatekoaren bikoitzera arte.<br><br>Instalazioentzako itxiera terminoa eta jarduerentzako etetea terminoa erabiltzearen inguruko alegazioa onesten da. | Partzialki onesten da. |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |  |
|--|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
|  |  | <p>xedatutakoari jarraiki eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integraturako Legearen testu bateginaren 32.2 artikulua aurreikusten duen bezala.</p> <p>2. Bestalde, ez da ulertzen uztea eta ixtea adierazpenen arteko bereizketa; izan ere, bi adierazpenek egiten diete erreferentzia jardueri eta instalazioei. Horrez gain, ez da ulertzen arau-hauste oso larrientzako zehapena, hau da, jardueraren behin betiko etetea, bi urte eta bost urte bitarteko epe batean aldi baterako etetearekin parekatzea.</p> <p>Beste zehapen batzuek haxe eragiten dute: baimena indargabetzea edo etetea; jarduera egikaritzeko desgaitzea; aldi baterako galtzea lankidetzak-erakundearen izaera, baita jarduerak edo instalazioak aldi baterako ixtea eta etetea ere. Zehazki, horien iraupenaren arabera, arau-hauste larriak edo oso larriak ezarriko dira eta, uste dugu, horiek zigortzeko maila batean edo bestean kokatzeko modurik egokiena dela aldi baterako itxierarako erabilitakoa, hau da, indargabetzea edo etetea eta desgaitzea, hau da, aldi baterako itxieraren kasua oso arau-hauste larrientzat “bi urte eta bost urte bitarteko epean” eta oso larrientzat “gehienez ere, bi urtez”.</p> <p>3. Azkenik, artikulua honen 2. paragrafoak xedatzen du isunak bateragarriak izango direla ohartarazpeneko eta aldi baterako eteteko eta itxierako zehapenekin, horiek guztizkoak edo partzialak izan. Hori desberdina da Estatuko oinarritzko legeriarekin alderatuta; izan ere, horrek aurreikusten du arau-hauste oso larriek eragingo dutela zehapenen katalogoan aurreikusitako guztiak edo batzuk ezartzea,</p> | <p>Zehapen-maila horiek aukeratu dira deskribatutako arau-hausteei proportziokoak direlako jo delako.</p> <p>Alegazioa hartzen da eta aurreikuspen hau gehitzen da: “Larriek zehapenen katalogoan aurreikusitako guztiak edo horietako batzuek ezartzea eragin dezakete”. Hori gehituko da 104. artikuluen 1. paragrafoan eta 2. atala ezabatuko da.</p> |  |
|--|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p>behin betiko itxiera barne. Horrek xedatzen du nabarmen murriztuko dela Estatuko oinarritzko legeriak ezarritako zehapenen larritasuna. Horrela, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 31.2.c) artikulua, lege honen 35. artikuluan aurreikusitako behin-behineko neurrietatik eratorritako betebeharrak betetzen ez direnerako eta ondorioz pertsonen osasuna edo ingurumena arrisku larrian jartzen denerako, aurreikusten du, isunaz gain, instalazioen behin betiko itxiera ezarri ahal izatea, baita jarduera egikaritzeko desgaitasuna ere, urtebete eta bi urte bitarteko epean. Aitzitik, aurreproiektuaren 104.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, neurri horiek urratzen dituenari (102.2.h artikulua), isunaz gain, aldi baterako etetea edo itxiera soilik ezarri ahalko zaio, gehienez ere, bost urtez.</p> |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|                                                |                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                               |
|------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| <p>105. artikulua.<br/>Zehapenen mailaketa</p> | <p>INGURUMEN,<br/>LURRALDE<br/>PLANGINTZA ETA<br/>ETXEBIZITZA<br/>SAILEKO<br/>ZERBITZUEN<br/>ZUZENDARITZA</p> | <p>105. artikulua ezarri beharreko zehapenen mailaketa arautzen du. Kontuan hartuta zehapena arau-haustea sortzen duen egitatearen larritasunera egokitu behar dela, zenbait irizpide ezartzen dira zehapena mailakatzeko. Besteak beste, haxe ezartzen da: “<i>Epai irmoak hala finkatu duenean, arau hauste bat baino gehiago egiteagatik errepikatu izana</i>”. Puntu honetan, adierazi behar dugu, errepikapena egotea, urte batean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik berrerortzearekin batera, ebazpen irmoak hori adierazi duenean, indargabetutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 131. artikuluan aurreikusitako irizpideetako bi izan direla. Izan ere, horiek zalantza asko eragin zituzten horien aplikazio praktikoaren inguruan, figura bataren eta bestearen arteko begi bistako analogiak kontuan hartuta.</p> <p>Horrela, berrerortzeak zehapenaren egokitzapenaren gainean eragiten du eta, kasu batzuetan, arau-haustearen larritasuna areagotzen du, izaera bereko arau-hausteen errepikapenean oinarrituta, hau da, ebazpen irmoan antzemandako manu beraren edo antzeko baten arau-hausleak. Bestalde, errepikatzea izaera desberdineko arau-hausteak errepikatzearen ideian oinarritzen da, ezarriko den zehapena mailakatzeko haztatu beharreko irizpide gisa, nahiz eta hori, printzipioz, kasu bakoitzeko arau-hauste zehatzerako adierazitako mugen barruan egiten den.</p> <p>Horrez gain, eztabaidatu egin da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 131. artikuluan aipatutako irmotasunak administrazio-irmotasunari edo</p> | <p>Ohar horri eta beste batzuei jarraiki, hasierako zirriborroaren 105. artikuluari idazketa berria eman zaio; orain 107. artikulua da hori.</p> <p>107. artikulua. Zehapenen mailaketa.</p> <p>Zehapenen ezarpenean behar besteko egokitzapena mantendu beharko da arau-haustearen larritasunaren eta aplikatutako zehapenaren artean, bereziki aintzat hartuz irizpide hauek zehapena mailakatzerakoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Nahita egin ote den.</li> <li>b) Epai irmoak hala finkatu duenean, arau hauste bat baino gehiago egiteagatik errepikatu izana.</li> <li>c) Epai irmoak hala finkatu duenean, Lege honetan sailkatutako izaera bereko arau hauste bat baino gehiago egiteagatik errepikatu izana epai irmoa jakinarazi den egunetik kontatzen hasita hurrengo lau urteetan.</li> <li>d) Ingurumenean edo pertsonen osasunean eragindako kalteak edo arriskuak.</li> <li>e) Arau-hauste hori egiteagatik lortutako onura.</li> <li>f) Arau-hauslearen gaitasun ekonomikoa.</li> <li>g) Aringarri gisa, zehapen espedientearen abian jarri baino lehen, arau hauste gisa sailkatutako jarduerak jakin batek ingurumenari eragindako ondorio kaltegarriak konpontzen edo gutxienera eramaten dituzten neurri zuzentzaileak aplikatu ote diren.</li> </ul> | <p>Partzialki onesten da.</p> |
|------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|

|                                        |                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                  |
|----------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|
| 106.<br>artikulua.<br>Konfiskazio<br>a | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA. | 106.2 artikulua salbuespen hau ezartzen du: Ezin konfiskatu ahal izango da objektuak edo tresnak asmo oneko hirugarren batenak direnean, arau haustearen erantzulea ez denean eta lege eskuratu dituenean, ez badago ingurumenari edo pertsonen osasunari kalte egiteko berehalako arriskurik. Aurreikuspen hori legezkotasun zalantzarikoa da, hain zuzen ere, idatzita dagoen terminoetan. | Zuzendaritzak ez du argitu bere ustez zer den manuan zalantzako legezkotasuneko dena; hortaz, ezin izan da behar bezala aztertu analisi zuzena bideratzeko eta, hala badagokio, kontuan hartua izan dadin.<br><br>Hala eta guztiz ere, alde honek mantentzen du, gure ikuspuntutik, artikulua idazketa guztiz bateragarria dela indarreko legeriarekin. | Ez da<br>onesten |
|----------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|

|                                                    |                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                               |
|----------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| <p>109. artikulua.<br/>Behin-behineko neurriak</p> | <p>INGURUMEN,<br/>LURRALDE<br/>PLANGINTZA ETA<br/>ETXEBIZITZA<br/>SAILEKO<br/>ZERBITZUEN<br/>ZUZENDARITZA</p> | <p>109. artikulua arautzen du zehapen-prozeduraren esparruan behin-behineko neurriak hartzea (97. artikuluan aurreikusten dira ingurumen-legezketasuna lehengoratzeko prozeduraren esparruan hartu beharreko behin-behineko neurriak). (...)</p> <p>Horrenbestez, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 56. artikuluan xedapenak besterik gabe aplikatu ahal zaizkio zigortzeko administrazio-prozeduretan behin-behineko neurriak hartzeari. Horrela, prozedura horietan horrelako neurriak ezartzeko aukera ez dago mugatuta jadanik arauetan hori aurreikusitako kasuetara, ezta dagozkien arau espezifikoetan zehatzago aurreikusitako neurrietara ere (Zigortzeko ahalmena gauzatzeko Prozeduraren Arautegiaren 15.2 artikulua). Izan ere, oro har, beharrezkotzat hartzen den edozein neurri ezarri ahalko da, eman litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatze aldera.</p> <p>Gauzak horrela, kasu honetan zehapen-prozeduraren esparruan aurreikusi denez, aplikagarria izango zaio Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 63. artikuluan xedatutakoa. Horren arabera, zigortzeko prozedurak beti hasi behar dira ofizioz eta organo eskudunak hori erabakita.</p> <p>Bestalde, artikulua honen 1. paragrafoan, hasteko, “prozedura abiarazita” adierazpena erabiltzen da eta hori ez dator bat aurrerago adierazitako “edozein unetan” denbora-lokuzioarekin. Baliteke hori ekarri izana indargabetutako (Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak indargabetuta) Zigortzeko Ahalmena Gauzatzeko prozeduraren Arautegiaren 15. artikuluan idazketatik. Izan ere,</p> | <p>Oharraren lehenengo partea azalpenekoa besterik ez da.</p> <p>Aipatzen da Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 63. artikuluan xedatutakoa izango zaiola aplikagarri eta ez da erreferentzia hori ulertzen. Izan ere, horren arabera, zehapen-izaerako prozedurak beti hasi behar dira ofizioz eta organo eskudunak erabakita. Lehenik eta behin, adierazi behar da behin-behineko neurriak hartzeko prozedura bat hastea ez dela berez zehapen-prozedura bat edo zigortzeko prozedura gehigarri bat, arriskuan dauden eskubideak edo interesak kautelaz babesteko beharri erantzuten baitio. Bigarrenik, adierazi behar da, Euskadin, berezitasuna dagoela zehapen-arloan, hain zuzen ere, otsailaren 20ko 2/1998 Legea existitzen delako. Horregatik, onargarria da aldeak eskatuta zehapen-espeditenteak hastea (ikus 2/1998 Legearen 35. artikulua); horrek legez posiblea den desadostasun bat eragiten du alegatzaileak aipatutako Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 63. artikuluan xedatutakoari dagokionez.</p> <p>Egindako proposamena aztertuta, jotzen da idazketa argia dela eta ez duela zalantzarik sortzen, nahiz eta ez duen hitzez hitz jarraitzen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa.</p> <p>Ez da uste kontraesankorra denik aurreproiektuan ohartaraztea (109.1 artikulua) edozein unetan (behin prozedura hasita) hartu ahalko direla behin-behineko neurriak. Lehenengo atal honetan arautzen dira hasitako zehapen-prozeduraren barruan har daitezkeen kautelazko neurriak; hala, jakina den bezala, horrek</p> | <p>Partzialki onesten da.</p> |
|----------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|

|                                                                                   |                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                           |
|-----------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|
| 110.<br>artikulua.<br>Ordezkatze<br>ko eta<br>kalteak<br>ordaintzeko<br>betebarra | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA. | 2. paragrafoari dagokionez, iruzkin hau egin behar dugu (...); ezin da ulertu konponketako bi kasu desberdin aurreikustea —batean 26/2007 Legean aurreikusitako konponketa-metodologia aplikatu ahalko da eta, bestean, nahitaez aplikatu beharko da—, kontuan hartuta aipatutako legeak soilik aurreikusten duela baliabide naturalengan ondorio kaltegarri nabarmenak eragiten dituzten ingurumen-kalteak konpontzea —hori bateragarria da asaldatutako egoera lehengoratzearekin eta administrazioari kalteak ordaintzearekin—. Hala, gainerako kalteetarako, horien konponketa lege sektorialetan aurreikusten da. Hortaz, 2. paragrafoaren lehenengo bi tituluetan aurreikusitako nabarmenak ez diren ingurumen-kalteen kasuan, hori 1. paragrafoaren aurreikuspenean babestuta egongo litzateke. Izan ere, ezin da bestelako konponketarik ondorioztatu kalte horietatik, asaldatutako egoera lehengoratzearena eta administrazioari eragindako kalteak ordaintzearena izan ezik. | Berez, ez da iradokizun bat, baizik eta iruzkin baten azalpena, alegatzaileak berak esandakoaren arabera.<br><br>Aurreproiektuak ingurumen-kalte nabarmenengatik erantzukizunak eskatzeko aukera aurreikusten du eta hori bereizten du 99. eta 100. artikuluen zehapen-prozedura bat artikulatzeko premiarengandik. Hori guztia Estatuko oinarritzko legerian xedatutakoaren arabera (26/2007 Legea).<br><br>Aztertzen ari den artikuluan aurreikusten den kasua hau da: ingurumen-kalteak existitzea eta horien konponketa eskatzea zehapen-espediente baten barruan. Ondorio horietarako, aurreikusten da, nabarmenak ez diren ingurumen-kalteen aurrean bagaude, 26/2007 Legean hautazko bezala ezarritako metodologia erabiltzea. Izan ere, alegatzaileak adierazitakoaren aurka, araudi sektorialak ez du inolako metodologia zehatzik ezartzen narriatutako egoera nola konpondu behar den xedatze aldera.<br><br>Kalte horiek nabarmenak izan daitezkeenerako, ingurumen-erantzukizuneko araudian aurreikusitako metodologia erabiliko da, hau da, 26/2007 Legean aurreikusitakoa. | Esposizio-<br>alegazioa   |
| 111.<br>artikulua.<br>Isun<br>hertsatzaile<br>ak eta<br>beteazte                  | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN                  | 111. artikuluan arautzen da isun hertsatzaileak ezartzeko aukera, baita betearazte subsidiarioa ezartzeko aukera ere arau-hauslearen kostura, betiere horrek ez baditu kalteak lehengoratzen eta konpontzen edo ez badu eragindako kalte eta galerengatik ezarritako kalte-ordaina asetzen. Neurri horiek hautazko izaerarekin ezartzen dira eta ez dute inolako baldintzarik edo inguruabarrik bete behar. Zehazki, hori egiten                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | Iradokizuna partzialki hartzen da eta idazketa berria ematen zaio 111. artikuluari (egungo 113. artikulua).<br><br>113. artikulua. Isun hertsatzaileak eta egikaritzapen subsidiarioa.<br><br>1. Arau hausleek eragindako kalteak lehengoratzen eta konpontzen ez badituzte, edo eragindako kalteak eta galerak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | Partzialki<br>onesten da. |

|              |              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|--------------|--------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| subsidiarioa | ZUZENDARITZA | <p>du aurreproiektuaren 98. artikulua neurri zuzentzaileen kasurako, hau da, isun hertsatzaileen ezarpena baztertzeko du kasu zehatz hauetara: kalteen berehalako mehatxurik ez dagoenean edo neurrien ezarpenean gerta daitezkeen azterpenak arriskuan jartzen ez duenean ingurumena edo pertsonen osasuna. Xedapen horri jarraiki, narriatutako egoera zigor-hertsaduraren bidez edo zuzenean betearazte subsidiarioaren bidez lehengoratzeari dagokionez, agian egokia izango litzateke hemen antzeko aurreikuspen bat ezartzea, lehentasuna ematen diona bigarren neurri honi ingurumenarentzako edo pertsonen osasunerako berehalako mehatxua dagoenean, hain zuzen ere, lehengoratzeko betebeharra ez betetzeak eragindakoa. Gainera, horrek segurtasun juridiko handiagoa emango luke.</p> <p>Isunen zenbatekoari dagokionez, artikulua honen 1. paragrafoak ezartzen du horiek ez dutela gaudutako egindako arau-hausteagatik ezarritako isunaren % 10a; aurreproiektuaren 98.2 artikulua, aldiz, ehuneko hori aplikatzen dio egikaritzen diren neurri guztien zenbatetsitako kostuari. Gauzak horrela, isun hertsatzaile horiek ez dute zehapen-izaerarik zentzu zorrotzean —hain zuzen ere, horregatik dira bateragarriak egitate horiengatik ezarritako zehapenekin (Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 103.2 artikulua)—; horregatik, uste dugu egokiagoa dela, aurreproiektuaren 98.2 artikulua egiten duen bezala, horiek egikaritutako diren neurri guztien zenbatetsitako kostuen menpekoak izatea. Horrela, neurri zuzentzaileak ezartzeko esparruan eta zehapenen esparruan ezar daitezkeen isun hertsatzaileek proportzio bera izango dute.</p> | <p>ordaintzen ez badituzte aurreko artikuluan finkatutakoaren arabera, aldizkako isun hertsatzaileak jarri ahal izango dira dagokion aginduan finkatutako epea igarotakoan, edo arau haulearen kontura eta berak ordainduta agindu ahal izango da egikaritze subsidiarioa</p> <p>2. Isun hertsatzaileak jartzen badira, agindua betetzeko orrian nahitaez zehaztuko dira ezarri daitezkeen isunen zenbatekoak eta isun horiek ordaintzeko epeak. Nolanahi ere, obligazioa bete ahal izateko bezain luzeak izango dira epe horiek. Behin isun hertsatzailea ezarri ondoren isun hori eragin duen errekerimendua betetzen ez bada, aldizkako isun hertsatzaile gehiago jarri ahal izango dira agindutako betetzeko moduko epeetan. Isun hertsatzaileak independenteak dira eta bateragarriak zehapen gisa ezar daitezkeen isunekin.</p> <p>3. Isun hertsatzaile bakoitzaren zenbatekoak ez du egindako arau haustearen ondorioz finkatutako isunaren ehuneko hamarra gaudutako. Isun hori egikaritu beharreko berreskuratze-neurri guztien zenbatetsitako kostua baino apur bat txikiagoa izatekotan, isun hertsatzailea kalkulatzeko aplikatu beharreko ehuneko hamarra berreskuratze-kostu horrekin lotuta egongo da.</p> <p>4. Ingurumenaren alorreko erantzukizunari buruzko araudian finkatutakoaren arabera bideratuko da ingurumenaren alorreko kalte adierazgarriak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak aplikatzera behartzen duten ebazpenen derrigorrezko egikaritzea</p> |
|--------------|--------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

|                                          |                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                        |
|------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
| 112. artikulua.<br>Kontratatzeko debekua | OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.<br>KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEA | <p>Artikulu horiek guztiak dira oinarritzakoak eta, horregatik, ezin ditu beste autonomia-erkidegoko araudi batek ordeztu. Beraz, jotzen da zorrotasunez errespetatu behar direla kontratatze debekua kausa izan daitezkeen ez-betetzeak edo arau-haustea, baita Sektore Publikoko Kontratuen Legeak horiei esleitzen dizkien ondorioak eta salbuespenak ere.</p> <p>Horrela, aurreproiektuaren 112. artikularen idazketa berria proposatzen da:</p> <p>“Ez-betetze batengatik edo kontratu baten funtsezko klausulak ez betetzeagatik epai edo zehapen irmo bat ezarri zaien enpresek, hori guztia ingurumenaren alorrean eta kontratu publikoen araudian ezarritako betekizunei jarraiki, ezingo dute araudi horretan zehaztutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan kontratatu, bertan xedatzen diren salbuespenetan izan ezik.</p> <p>Antzeko terminoetan, diru-laguntza publikoen araudia bete beharko da.”</p> | <p>Kasu honetan, adierazi behar da lege-aurreproiektuaren xedea ez dela kontratuen legeria erreproduzitzea, baizik eta kontratatze debeku berri bat gehitzea. Hori EAEko lurralde-eremuan ingurumena babesteko neurri gehigarri gisa ulertu behar da.</p> <p>Iradokizuna hartzen da, hau da, zehapena irmoa izan behar dela administrazio-bidean eta egungo 114. artikularen testu berrira gehitzen da.</p> <p>Era berean, erreferentzia bat gehitzen da diruzko zehapena zatikatuta ordaintzen ari den kasuen inguruan.</p> | Partzialki onesten da. |
|                                          | LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA                                            | <p>Harik eta zehaztutako enpresak dagozkion neurri zuzentzaileak egikaritzen ez dituen arte eta zehapena ordaindu arte, aurreproiektuaren 112. artikulua neurri ez zehatzaile bezala aurreikusten du kontratatze debekua eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko diru-laguntzak eskuratzeko debekua, hain zuzen ere, arau-hauste larri eta oso larriengatik zehaztutako enpresentzat. Debekua mantenduko litzateke zehapena irmoa ez izan arren.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | <p>Kasu honetan, adierazi behar da, aurretik egin den bezala, lege-aurreproiektuaren xedea ez dela kontratuen legeria erreproduzitzea, baizik eta kontratatze debeku berri bat gehitzea. Hori EAEko lurralde-eremuan ingurumena babesteko neurri gehigarri gisa ulertu behar da.</p> <p>Aurreproiektuaren testua aldatuko da adierazteko zehapena irmoa izan beharko dela administrazio-bidean. Era berean, erreferentzia bat gehitzen</p>                                                                                   | Onesten da             |

|                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                           |  |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|--|
|                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | <p>Hala eta guztiz ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 71.2 artikuluan ezartzen du, funtsean, ezingo dituztela 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratuak egin ingurumenaren arloan egindako arau-hauste oso larri batengatik irmoki zehatutako pertsonak. Hori guztia indarreko araudian ezarritakoa betez.</p> <p>Kontuan hartu behar da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak oinarritzko izaerarekin ezarri duela kontratatzeko debekua soilik xedatzen dela arau-haustea dagoenean.</p>                                                                                                                                                                                        | <p>da diruzko zehapena zatikatuta ordaintzen ari den kasuen inguruan.</p> |  |
| INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>112. artikulua, arau-hauste larriengatik edo oso larriengatik zehatutako enpresentzako zehapen osagarri gisa, kontratatzeko debekua aurreikusten du. Horrez gain, ezingo dituzte EAEko sektore publikoko diru-laguntzak jaso dagozkien neurri zuzentzaileak egikaritu eta zehapena ase arte. Kontu horren inguruan mintzatu da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, zehazki, zentzu honetan:</p> <p>268. Aipatutako desgaikuntza zehapen autonomo, desberdin eta bereziki kasu bat da balizko beste zehapen batekiko: “legean aurreikusitako jarduerak egikaritzeko desgaikuntza hurrengo bost urteetan zehar eta, hala badagokio, administrazio-baimena indargabetuko eta, hala badagokio, homologazioa ere bai” [89.4a) artikulua].</p> <p>269. Teknikoki, “kontratatzeko debeku” baten aurrean gaude, eduki hori duen administrazio-zehapen baten arabera ezarritakoa. Hau da, ez gaude ex lege eta oro har kontratatzea eragozten duen egoera baten aurrean —Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49.1</p> | <p>Berez ez da iradokizun bat, baizik eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak erabilitako argudioen helarazpena, azkenik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen desberdina den araudi sektorial batek ezarritako kontratatzeko debekuaren antzeko kasu baten legezkotasuna onesteko. Adierazi behar da alegatzaileak partekatutako zalantza horiek aukerakoak soilik direla eta ez izaera juridikokoak.</p> <p>Gure ikuspuntutik, zehapen osagarri hau pizgarri argia izango da zehapena eta neurri zuzentzaileak egikaritzeko.</p> <p>Era berean, ingurumen-babeseko elementu gehigarritzat hartu behar da, indarreko ingurumen-legerian aurreikusitako tresnen multzoari gehituko zaiona.</p> | <p>Ez da onesten</p>                                                      |  |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p>c) artikulua aurreikusitakoa bezalakoa, baizik eta lege sektorial batek ezarritako kontratatzeko debeku espezifiko baten aurrean, administrazio-zehapen forman, hain zuzen —Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49.2 c) artikulua hartzen duena bezalakoa, besteak beste—.</p> <p>270. Lehenik eta behin, adierazi behar da manu hori —Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49.2 c) artikulua— ez dela oinarritzkoa; beraz, ez zaie oro har aplikatu behar administrazio publiko guztiei. Batzordeak uste du horrekin legegile sektorialaren eskumena inplizituki aitortzen dela; legegile hori autonomia-erkidegokoa izan daiteke eta eskumena aitortzen zaio horrelako zehapen bat gehitzeko zehapenen balizko multzoan, betiere kontratatzeko debeku hori bere eskumen-arloan sartzen denean.</p> <p>271. Hala eta guztiz ere, nahiz eta onartzen den nahikoa eskumen-oinarriarekin aurkez daitekeela, horrek ez du esan nahi hori txertatzea segurua denik. Arau-hauslearen ondare juridikoan eragin nabarmena duen zehapen-neurri bat da eta ezartzen den sektoretik harago doa —ez baita gizarte-zerbitzuen eremura mugatzen—; gainera, izaera berritzailearekin ezartzen da —ez da Gizarte-zerbitzuen Legean agertzen—. Beraz, orain arte ez da sektorearen berezitasun eta xedeekin lotuta egon eta, horrez gain, ez dauka baliokiderik ondasun juridiko bera eta arauak hausteko antzeko arriskua parteka ditzaketen bestelako legeetan —Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea—.</p> <p>272. Halaber, zalan-tza horiek diseinatuta dagoen modura</p> |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|                                             |          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                          |                      |
|---------------------------------------------|----------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
|                                             |          | <p>hedatzen dira —proportzionaltasun-printzipioaren errespetuan—; izan ere, gizarte-zerbitzuen eremuan jarduerak egikaritzeko desgaiakuntza-zehapena baino denbora-epe luzeago batean heda daiteke —eremu horretan eragin du jokabide arau-hausleak eta zehapenak bertan beteko du bere prebentzio- eta konponketa-xedea—.</p> <p>Hala, zalantza horiek hedatzen ditugu xedapen honetara ere bai.</p> |                                                                                                                                                                                                          |                      |
| <p>114.<br/>artikulua.<br/>Publizitatea</p> | EMAKUNDE | <p>Sexuaren aldagaia gehitzea; horrela, zehatutako gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua ezagutu ahalko dugu, baita egindako arau-haustea ere.</p>                                                                                                                                                                                                                                                     | <p>Arau-hauste gehienak pertsona juridikoek egiten dituzte; hala ere, egindako proposamena nahitaezko araudi-garapenean gehitzeko aukera aztertuko da generoaren arabera bereizitako datuak izateko.</p> | <p>Ez da onesten</p> |

|  |                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                      |
|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
|  | <p>INGURUMEN,<br/>LURRALDE<br/>PLANGINTZA ETA<br/>ETXEBIZITZA<br/>SAILEKO<br/>ZERBITZUEN<br/>ZUZENDARITZA</p> | <p>114. artikuluari erreparatuz, ohartarazi behar dugu gerta daitekeela zehapen larrien eta oso larrien publizitatearen arteko eskubide-aurkaketa, hauxe barne hartuta: arduradunen identitatea; artikuluhonen laugarren paragrafoan aurreikusitako arau-hausleen erregistroa eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa.</p> <p>Aipatutako ekimenera joz, lehenik eta behin, adierazi behar da zioen azalpenean ez dela lerro bat ere erabiltzen neurri horien xedek oinarritzeko —besteak beste, horiek aipatzen ditu neurri osagarri gisa, “arau-hausleak egitea sustatzen ez dutenak”—. Hala ere, horregatik ondorioztatzen da prebentzio- edo disuasio-xedeei erantzuten dietela, baina ez batere makala bere osagarri errepresioegilea edo ordainsari-izaerakoa berez, publizitate horrek eragiten duen ukitutako en ohorerako eskubidearen urritasuna dela-eta. Azkenik, neurri horien zigortzeko izaera, ingurumen-diziplinara zuzendutako tituluan duen kokapena gorabehera, egitate honetatik eratoritzen da: arau-hausleen identitatearen argitalpenak, baita hori publikoarentzako eskuragarri dagoen erregistro batean inskribatzeak ere, funtsezko eskubide bat gauzatzea mugatzen du, hau da, pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteko eskubidea.</p> <p>114. artikulua hirugarren paragrafoak xedatzen du publizitate horrek barne hartuko dituela datu hauek: arau-hauste larrien edo oso larrien arduradunaren identitatea —izen-abizenak pertsona fisikoen kasuan eta gizarte-izendapena edo izen soziala pertsona juridikoen kasuan eta, hala badagokio, bien IFZ- egindako arau-haustea;</p> | <p>Justifikazio luze eta arrazoitu horrek ez gaitu eramaten manua ezabatu behar denaren ziurtasunera; izan ere, horrek prebentzio-izaera argia dauka. Zehapen-araubidea indartzen duen neurri osagarri bat da eta larritasun handieneko kasuetara mugatuta dago. Hala balegokio, arauzko araudiak aipatutako zuhurtzia batzuk gehituko lituzke, baina ulertzen dugu manua mantendu behar dela.</p> <p>Nabarmendu behar da, zuzendaritzak berak azaldu duen bezala, berriki beste eremu batzuetan egondako araudi-garapenetan, besteak beste, zerga-eremuan edo, adibidez, Hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko uztailaren 22ko 22/2011 Legea bezalako oinarritzko ingurumen-arauetan, arau-hausleen publizitate-neurriak ere txertatzen direla, hau da, lege-aurreproiektuan ezarri nahi dena bezalakoa. Arau horiek analisi guztiak eta beharrezko zuhurtzia juridikoak gainditu dituzte onetsiak izateko eta aplikatu ahal izateko; hala, kasu honetan ere gainditzea espero dugu, zehazki, xedapen orokorrak aplikatzeko jarraibideak izapidetzen diren bitartean.</p> | <p>Ez da onesten</p> |
|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p>ezarritako zigorra eta eskatutako lehengoratzeko eta kalteak ordaintzeko betebeharren laburpena, hala badagokio.</p> <p>Arau-hausleen erregistroari dagokionez, nabarmendu behar da laugarren paragrafoan aurreikusitako erregistroa publikoarentzako eskuragarri egongo denaren erreferentzia bakarra errealitatean zioen azalpenean dagoela. Izan ere, bertan, epai irmoa jaso duten arau-hausle publikoak eta pribatuak inskribatzeko arau-hausleen erregistro bat sortzeko aurreikuspenaren ondoren, hauxe adierazten da: <i>“Ildo beretik, arau-hauste horiek egiteagatik ezarritako zehapenei publizitatea ematea aurreikusten da, baita horien erantzuleen identitateari ere”</i>.</p> <p>Laburbilduz, datu pertsonalek, identifika daitezkeen eta ezin daitezkeen pertsonen buruzkoak, 18 CE artikularen eskubideen babesetik eratorritako mugak dituzte eta, gainera, Datuak Babesteko Lege Organikoaren preskripzioen menpe daude. Horrez gain, zigor-edo diziiplina-prozedura batean daudenak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikularen menpekoak dira, hori guztia Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 15. artikuluari dagokionez. Zehazki, horrek horrelako informazioa eskuratzeko eskubidea mugatzen du, behintzat hasiera batean, legeak hori egitea babesten duenean izan ezik. Hori gorabehera, publiko egin nahi den informazioaren izaera bereziak xedatzen du, legegileak, lortu nahi den xedea ikusita, kasu honetan ez dagoena oso definituta, jokoan dauden interesak haztatu beharko</p> |  |  |
|--|--|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |  |  |
|--|--|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p>dituela, horretarako proportzionaltasun-printzipioa betetzen den aztertuz.</p> <p>Illo beretik, kontuan hartuta aurreproiektuan ez direla neurriak hartzen datuen babeserako eskubidearekiko eragina arintzeko edo ahazte digitalerako eskubidea bermatzeko, adibidez, hauek: aldizkari ofizial batean argitaratzea saihestea —hori publikoarentzako iturri eskuragarri bat da Datuak Babesteko Lege Organikoaren arabera—; informazio hori bilatzaileen arabera jarraitu ahal izatea saihesten duen formatu batean argitaratzea (desindexazioa); zerrenda eskuragarri dagoen epea mugatzea, etab. Horrez gain, kontuan hartu behar da argitalpenak jurisdikzio-bidean irmoak ez diren zehapenei eragin diezaiekeela eta, hortaz, geroko ebazpen judizial batek aldatu ahal dituela. Hala, ez du ematen neurri honek aipatutako proportzionaltasun-judizioa gainditzen duenik.</p> <p>Beraz, arau-hauste larri edo oso larri baten erantzulea den pertsona fisikoaren identitatea argitaratzea ez da egokia eta, horregatik, jotzen da hori kendu beharra dagoela.</p> <p>Nolanahi ere, artikuluko honen laugarren paragrafoan aurreikusitako erregistroaren sorreraren aurreikuspena mantentzekotan, pertsona fisiko arau-hausleen datu pertsonalak alde batera utziz, erantzukizuna eta zehapenen preskripzioa aldatzeko kausak antzemateko ondorioetarako, gomendagarria izango litzateke inskripzio horiek deuseztatzeko epe bat aurreikustea.</p> |  |  |
|--|--|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|                                                            |                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                      |
|------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| <p>115. artikulua.</p> <p>Ordezko ingurumen-prestazioa</p> | <p>INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILEKO ZERBITZUEN ZUZENDARITZA</p> | <p>115. artikulua arautzen du ordezk ingurumen-prestazioa. Prestazio hori aukera bat da norbanako arau-hauslearentzat eta aukera hori honela gauzatzen da: diruzko isuna lehengoratzeko, kontserbatzeko edo ingurumenarentzako onurak eragiten dituen hobetzeko prestazio batekin ordezteko aukera eman ahal dion prozedura bat hasteko eskatzen da.</p> <p>Aurrekoa gorabehera, legezkotasun-printzipioa betetze aldera, gehiago zehaztu beharko litzateke prestazioaren eduki materiala, baita hori ezartzeko prozedura ezarri ere, nahiz eta arauzko bidearen bitartez den, eta, horrela, ekimenak zehapen-organoari bi zentzuetan esleitzen dion gehiegizko hautatzeko aukera mugatu.</p> <p>Zentzu horretan, hori arautzen duen arautegiak balizko prestazioen zerrenda-gida bat jaso lezake eta zehapena irmo bihurtzen denetik eskaera egiteko dagoen epea zehaztu lezake; horrez gain, ebaluazio-mekanismoen baliokidetasunak, egikaritzapena eta arauketa ezartzeko metodoa ezar lezake, baita ez betetzekotan egon daitezkeen ondorio juridikoak ere.</p> | <p>Manuaren idazketa mantendu behar da; hala ere, gerta daiteke etorkizuneko araudi-garapenean ordezk ingurumen-prestazioaren alderdiren bat xehatu behar izatea.</p> <p>Nolanahi ere, zuzendaritzak proposatzen duen prestazioaren eduki materiala xehatzea zaila da, kontuan hartuta gerta daitezkeen kasuak anitzak direla.</p> | <p>Ez da onesten</p> |
|------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|

| XEDAPEN GEHIGARRIA |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |               |
|--------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| XG                 | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | AUKERA        |
|                    | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Dirudienez, aurreikusitako xedapen gehigarriaren edukia bertan xedapen bat gehitzeko helburuarekin dago lotuta, non testuan jasotako eginkizun eta tresna berrien finantziazioa aurreikusi eta bermatu egiten den, EAEko administrazio publikoei baliabide material, ekonomiko eta pertsonal nahikoak hornitze aldera horiek egikartzeko, arauak egindako eskumen-banaketaren ondorioz.</p> <p>Hala eta guztiz ere, ez dira zehatz-mehatz xedatzen finantza-nahikotasuna berma dezaketen mekanismoak, hain zuzen ere, zerbitzu berri horiek kudeatzeko. Zentzu horretan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa mintzatu egin da horren inguruan (192/2011 Irizpena) eta hauxe adierazi du:</p> <p><i>“Ohartarazteko modukoa da 27.5 artikulua sartutako aurreikuspenak ez duela berez bermatzen finantza-nahikotasuna ondorio horietarako, hauxe baitio “Toki- eta foru-administrazioek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra lege honetan jasota dauden partaidetza-prozesuak errazteko beharrezkoak diren baliabidez hornituko dira”; eta 9. artikulua ere ildo berekoa da, horren arabera toki-erakundeei “laguntza teknika emango die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eta dagokien finantza-nahikotasuna izango dute”. Legeak, egin-eginean ere, ez baitu zerbitzu berrien finantziazioa bermatzeko mekanismorik ezarri.”</i></p> | <p>Aurreproiektuari erantsitako justifikazio- eta ekonomia-memorian, xehetasunez aztertu egin dira giza bitartekoen beharrak eta horiek eragingo lituzketen kostuak ere bai. Hala ere, hori soilik egin da EAEko administrazio orokorarentzat; beraz, gainerako administrazio publikoek, eginkizun eta eskumen berriak bere gain hartzerakoan, bitarteko gehiago behar dituzten heinean, antzeko ariketa bat egin beharko dute.</p> <p>Ezin da lege honen xedea izan zehaztasunez ezartzea “finantza-nahikotasuna berma dezaketen mekanismoak”, uste baitugu administrazio publiko bakoitzaren barnean artikulatuko direla dagozkien mekanismoak.</p> | Ez da onesten |

|  |                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                            |            |
|--|--------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
|  | FUNTZIO<br>PUBLIKOKO<br>ZUZENDARITZA | <p>Zuzendaritza honek adierazten du, behin Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Legea onetsita, Gobernu Kontseiluak lanpostuen zuzkidura berrien sorrera baimendu beharko duela, betiere beharrezko aurrekontu-kontsignatzea badago eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza honek aldeko txostena igorri ostean. Txosten honetan, legeak sortutako premia berriak aztertuko dira eta horiek, hasiera batean, administrazio honen zerbitzura lan egiten duten langileekin asetzeko aukera ere bai, ahal den neurrian, alegia. Horretarako, lanpostuak berriz atxikitze figurak erabiliko dira; giza baliabideak arrazionalizatzeko programak; mugikortasuna lanpostuen atxikipen-aldaketagatik edo zerbitzu-eginkizunetan estaltzeagatik eta langileak berriz esleitzeagatik. Hori guztia egingo da Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 18.2, 22., 54. eta 54 bis artikulua eta Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko den urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren VII eta VIII kapituluak aplikatuz.</p> | <p>Berez, ez da alegazio bat <i>estricto sensu</i>, baizik eta xedapen gehigarriak ezarritakoa betetzeko egin beharreko geroako izapideen azalpen bat.</p> | Onesten da |
|--|--------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|

| LEHENENGO ETA BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                       |            |
|---------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| XI                                          | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                 | AUKERA     |
| 1.XI                                        | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Lehenengoan, aurreproiektu hau indarrean sartzean hasita eta bukatu gabe dauden prozedurei egiten zaie erreferentzia; bigarrenean, aldiz, finkatutako egoerei egiten zaie erreferentzia. Hortaz, ez du ematen tituluak xedapenaren bi paragrafoekin lotuta dagoenik maila berean.</p> <p>Aurretik azaldutako guztiagatik, gomendatzen da lehenengo xedapen iragankorra berrikusteko.</p> <p>Gainera, lehenengo xedapen iragankorrak hauxe dio bigarren atalean:</p> <p><i>“Ingurumen baimen integratuen eta sailkatutako jardueretarako udal lizentzien titularren jarduerak edo instalazioek dagozkien titulu administratiboen edukiaren eta Legeak berak finkatzen duenaren araberako eskubideak erabiltzen jarraituko dute...”</i>. Adierazi behar da, manu horren hitzez hitzeko zentzuari erreparatuz, jarduerak eta instalazioek ez dutela inolako nortasun juridikorik; hortaz, ez dute inolako eskubiderik eta, horregatik, idazketa aldatzeko iradokitzen da.</p> | Bi alegazioak hartzen dira eta dagozkien aldaketak txertatzen dira lege-testuaren zirriborro berrian. | Onesten da |

| XEDAPEN INDARGABETZAILEA |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |               |
|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| XI                       | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | AUKERA        |
| XI                       | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Lege-aurreproiektuaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetutako xedapenak edo enuntziatuak jasotzen ditu eta beren-beregi aipatu egiten du Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 371998 Lege Orokorra.</p> <p>Kontu horri dagokionez, adierazi behar da Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko indarreko Lege Orokorrak ez duela soilik aipatzen ingurumen-ebaluazioa, askoz zabalagoa baita. Besteak beste, ondare naturalaren babesarekin lotutako zenbait alderdi arautzen ditu. Hortaz, ingurumen-administrazioarenaren desberdinak diren ingurumen-gaiak arautzen ez direnez, bidezkoa da artikulua berrikustea arauketarik gabeko egoerarik ez sortzeko.</p> | <p>Gure aburuz, otsailaren 27ko 3/1998 Legea indargabetzeak ez du eragingo, alegatzaileak aipatzen duen bezala, ondare naturala babestearekin lotutako alderdien arauketarik eza.</p> <p>Horren inguruko legeria sektorial espezifikoa existitzen da, luzeagoa eta modernoagoa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra indargabetzearekin sor litezkeen identifikatu gabeko arauketa-gabeziak zuzenduko lituzkeena.</p> | Ez da onesten |

| BIGARREN AZKEN XEDAPENA                        |                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                           |            |
|------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen aldaketa |                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                                           |            |
| AX                                             | ALEGATZAILEA                                                        | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                                                                                                                                                     | AUKERA     |
| 2.AX                                           | OGASUN ETA EKONOMIA SAILA. KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEA | <p>Aurreproiektuaren testuak Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legea aldatzen duen Bigarren Azken Xedapena jasotzen du. Eta aldaketa horren alderdien artean, hamabigarrenak Uraren Legearen 34 bis berria idaztea ezartzen du, testu hau proposatuz:</p> <p>“34 bis artikulua. Hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren tokiko ordenantza arautzaileak</p> <p>Hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren zerbitzuaren araubide juridikoa dagokion tokiko ordenantzaren bidez arautuko da. Ordenantzek, Eusko Jaurlaritzak Uraren Euskal Agentziak proposatuta onorio horietarako ezartzen duen zerbitzuaren araudi-esparru arautzailearekin bat etorritik, kontu hauek arautu beharko dituzte:</p> <p>[...]</p> <p>“d) Kontratazio-araubidearen ezaugarriak.</p> <p>[...]”</p> <p>Batzorde honek ulertu nahi du ura hornitzeko zerbitzuaren kontratazio-araubidea dela, baina komeni litzateke hori argitzea; izan ere, “kontratazio-araubidea” esaten denean, ulertu ohi da kontratazio publikokoa dela eta tokiko ordenantza batek ezingo luke hori inoiz</p> | <p>Alegazio horiek eta beste batzuk aztertu ostean eta legegintza-teknikako arrazoiengatik, legegintza-aldaketa proposatu duen organoak erabaki du bigarren azken xedapena ezabatzea.</p> | Onesten da |

|      |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                    |            |
|------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
|      |                                                                                                  | ezarri. Uraren sektoreko kontratazio publikoko araubidea balitz, uraren, energiaren, garraiobideen eta posta-zerbitzuen sektoreetan kontratazio-prozeduren inguruko legeria ezartzen duena da.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                    |            |
| 2.AX | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p><b>Bigarren azken xedapenaren</b> bidez, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legea aldatzen da. Hala eta guztiz ere, adierazpena apur bat heterodoxoa da legegintza-teknikako ikuspegitik. Lehenik eta behin, adierazi behar da aldaketaren edo gehikuntzaren arrazoiak azalpen-atalean jaso behar direla eta ez xedapenen atalean. Bigarrenik, adierazpen hau iradokitzen dugu:</p> <p>“BIGARREN AZKEN XEDAPENA. Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen aldaketa.</p> <p>Honako aldaketa hauek egiten dira Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean:</p> <p>Bat. Hala, 7. artikuluko k) eta l) atalak aldatzen dira eta s) atala gehitzen da, hain zuzen ere, honela geratzen direnak:</p> <p>«k) Izaera loteslearekin jakinaraztea plan orokorrak, arau subsidiarioak, plan partzialak eta plan bereziak hasiera bateko onespeneren ostean. Txosten hau udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren, horren babesguneen eta itsas-lurreko jabari publikoaren babeseko zortasun-gunearen babesaren eta erabileraren arteko harremanari buruzkoa izango da eskusiboki. Hori horrela izango da beste lege aplikagarri batzuek arrazoi sektorialengatik edo ingurumen-arrazoiengatik xedatzen dutena gorabehera. Aurkakotzat joko da ez bada bi hilabeteko epean</p> | Alegazio horiek eta beste batzuk aztertu ostean eta legegintza-teknikako arrazoiengatik, legegintza-aldaketa proposatu duen organoak erabaki du bigarren azken xedapena ezabatzea. | Onesten da |

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |  |  |
|--|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p><i>igortzen eta jakinarazten.</i></p> <p><i>l) Izaera loteslearekin jakinaraztea plan orokorrak, arau subsidiarioak, plan partzialak eta plan bereziak hasiera bateko onespeneraren aurretik. Txosten hau Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremanari buruzkoa izango da eskusiboki, baita plangintza horren eta jabari publiko hidraulikoaren, horren babesguneen eta itsas-lurreko jabari publikoaren babeseko zortasun-gunearen babesaren eta erabileraren arteko harremanari buruzkoa ere. Hori horrela izango da beste lege aplikagarri batzuek arrazoi sektorialengatik edo ingurumen-arrazoiengatik xedatzen dutena gorabehera. Aurkakotzat joko da ez bada bi hilabeteko epean igortzen eta jakinarazten. »</i></p> <p><i>«s) Lege honetan aurreikusitako Hiriko hondakin-urak hornitzeko eta arazteko Gida-plana egitea eta Eusko Jaurlaritzari bidaltzea.»</i></p> <p>Bi. Ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 12. artikuluan a) eta e) atalak aldatzen dira eta honela idatzita geratzen dira:</p> <p><i>«a) Jaurlaritzari proposatzea, ingurumen-arloan eskuduna den sailaren bidez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen eremuan eta horren aldaketak, horien guztien onespenerako edo izapidetzerako, betiere eskumenekin bat etorriz .»</i></p> <p><i>«e) Ekialdeko Kantauriko Demarkazio Hidrografikoaren erabiltzaileen erkidegoen eta ureztatzaileen ordenantzak eta estatutuak onestea</i></p> |  |  |
|--|--|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |  |  |
|--|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p><i>Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen eremuan.»</i></p> <p>Hiru. Ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 13. artikuluan a) atala aldatzen da eta j) atala gehitzen da, honela geratzen dena:</p> <p>«a) <i>Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren proposamena egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren Barne Arroen eremuan, baita horren aldaketak ere.»</i></p> <p>«j) <i>Hasiera batean onestea eta Eusko Jaurlaritzari igortzea lege honetan aurreikusitako Hiriko hondakin-urak garbitzeko eta arazteko Gida-plana.»</i></p> <p>Lau. 15. artikuluan n) atala gehitzen da eta honela idatzita geratzen da:</p> <p>«n) <i>Administrazio-kontseiluari proposatzea Hiriko hondakin-urak garbitzeko eta arazteko Gida-plana.»</i></p> <p>Bost. 22. artikulua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:</p> <p><i>“22. artikulua. Euskadiko plangintza hidrologikoa</i></p> <p><i>1. Euskadiko plangintza hidrologikoa plan hidrologikoen, Uholde-arriskua Kudeatzeko Planen eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko, Ekialdeko eta Mendebaldeko Kantauriko eta Ebroren Arroko demarkazio hidrografikoen Lehortze-planen bidez egiten da, baita horiei dagozkien neurrien programen eta xehetasun-plan eta programa desberdinen bidez ere.</i></p> <p><i>2. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da eta Uraren Euskal</i></p> |  |  |
|--|--|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

|  |  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |  |  |
|--|--|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|
|  |  | <p><i>Agentziak gauzatzen du eskumen hori. Halaber, Uraren Euskal Agentziak parte hartzen du Estatuaren Administrazioari dagokion plangintzan, zehazki, Mendebaldeko Kantauriko eta Ebroko demarkazio hidrografikoei eta Kantauriko Ekialdeko Demarkazioaren erkidego arteko arroei dagokienez, zehazki, indarreko antolamendu juridikoaren arabera.»</i></p> <p>Aurrekoa nahiko adierazgarria da aldaketa-teknika nola aplikatu behar den jakiteko, hau da, aurreko arau bati edo horren parte desberdinei idazketa berria emateko edo xedapen berriak gehitzeko. Hortaz, ez dugu horretan sakonduko, baina aipatu nahi dugu bigarren azken xedapenean jasotako aldaketa-arauek aurrekoen akats berberak dituztela.</p> <p>Azkenik, adierazi behar dugu, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 12.1 artikuluan xedatutakoari eta Gobernu Kontseiluak 1993ko martxoaren 23ko saioan onetsitako lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideei jarraiki, eranskin gisa agertuko dela, bidezkoa denean, indargabetutako edo aldatutako xedapenen zerrenda.</p> |  |  |
|--|--|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|--|

| BOSGARREN AZKEN XEDAPENA |                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                             |            |
|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|------------|
| AX                       | ALEGATZAILEA                                                                                     | OHARRAREN EDO IRADOKIZUNAREN LABURPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ANALISIA                       | AUKERA     |
| 5.AX.                    | INGURUMEN,<br>LURRALDE<br>PLANGINTZA ETA<br>ETXEBIZITZA<br>SAILEKO<br>ZERBITZUEN<br>ZUZENDARITZA | <p>Lehenik eta behin, gaitu beharreko organoa ez da EAEko administrazio orokorra, baizik eta Gobernu Kontseilua. Izan ere, ohiko arautzeko ahalmena, lege-mailako arauan bertan aurkakoa beren-beregi aurreikusi ezean, kide anitzeko Gobernu Kontseilua den organoari esleitzen zaio, hain zuzen ere, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 29. artikulua eta Gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. artikulua arabera.</p> <p>Bigarrenik, aurreikuspen hori, hau da, legezko araudi-testu batean gehitzea gaikuntza bat exekutiboarentzat aurreikusten dena bezalako eguneraketak egiteko, ohiko praktika bat da eta ez du legezketasun-arazorik sortzen, baina bai jarraitutako araudi-teknikak berak eragindakoak. Izan ere, horrek xedatzen du beharrezkoa dela horiek konpontzeko deslegalizazio-klausula bat ezartzea. Teknika horren inguruan mintzatu da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko lege-aurreproiektuaren inguruan igorritako 58/2014 irizpena ematean.</p> | Alegazioa onesten da eta, horrenbestez, testua aldatzen da. | Onesten da |